

Eusko Jaurlaritzak,  
2017-2020 Legegintzaldian,  
**giza eskubideen eta  
bizikidetzaren**  
arloan sortutako  
dokumentuen bilduma

# 3



1. Proiektu orokorra
2. Iragana argitzea

## **3. Biktimak**

4. Memoria
5. Espetxe-politika
6. Hezkuntza
7. Erlijio-aniztasuna
8. Asiloa eta migrazio zaurgarria
9. Nazioarterako ekarpena
10. Eranskina. ETAren armagabetzea eta desagitea

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Idazkaritza Nagusia

2020ko uztaila



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetzeta  
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación



## Aurkibidea

Bilduma honen aurkezpen orokorra.	4
Liburu honen aurkezpena.	6
<b>1. dokumentua.</b> Biktimen arloan jarduteko urteko planak.	9
<b>2. dokumentua.</b> Terrorismoaren biktimen egia-eskubidea.	29
<b>3. dokumentua.</b> IVAC/KREI-k Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarentzat egindako ikerketen laburpena (2016-2019).	95
<b>4. dokumentua.</b> Eskuin-muturreko erakunde terroristek 1975. eta 1978. urteen bitartean eragindako motibazio politikoko biktimei buruzko txostena.	115
<b>5. dokumentua.</b> Fabian Salvioliren mintzaldia: Euskal Autonomia Erkidegoaren 12/2016 Legea, "Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa", giza eskubideen nazioarteko araubidearekin bateragarria den.	125
<b>6. dokumentua.</b> 5/2019 Legea, apirilaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei erre-konozimendua eta erreparazioa emateari buruzko uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzekoa.	149
<b>7. dokumentua.</b> Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluan garatutako eztabaida-gaien ondorioen proposamena.	157
<b>8. dokumentua.</b> Iñigo Urkullu Lehendakariak XI. Legegintzaldiko Memoriaren Egunean eta Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean emandako hitzaldiak, eta Batera Konpromisoaren testua.	167

---

## Bilduma honen aurkezpen orokorra

---

2011ko urriaren 20an, IX. Legegintzaldiko (2008-2012) azken urtean, ETAK “jarduera armatuaren behin betiko amaiera” iragarri zuen. Urtebete geroago, hauteskunde autonomikoak egin ziren eta Iñigo Urkullu Renteria buru zuen lehen gobernuari bide eman zioten (X. Legegintzaldia: 2012-2016). Hamarkaden ondoren lehen aldiz, euskal politikak eta gizarteak indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabeko Legealdiari ekin zioten.

Une hartan, Lehendakariak hartutako lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi berri bat sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari atxikia eta haren mende zuzenean. Helburu nagusia indarkeriaren amaiera ordenatua lortzen laguntzea eta *Gizartea Elkartzea* zen.

2016ko irailaren 25ean izan ziren berriro EAEko hauteskundeak. Urte hartako urriaren 20an, Eusko Legebiltzarra hasiera eman zion XI. Legegintzaldiari (2016-2020). 2016ko azaroaren 23an, Iñigo Urkullu Renteria izendatu zuten Lehendakari, bigarren agintaldian.

Aurreko Legegintzaldiko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagokionez, Lehendakariak egitura horri eutsi zion, baina aldaketa batzuk eginda izenari eta funtzioei dagokienez. Horrela, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia izena hartu zuen. Hirugarren esparru hori sartu zuen, *lankidetzarena*, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia haren barruan sartu zelako. Idazkaritza horri atxikita geratu zen, halaber, errefuxiatuen krisi humanitarioari eman beharreko erantzunaren koordinazioa.

Horrela, XI. Legegintzaldian Idazkaritzak bere barne-egituran Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, *Gogora* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza izan ditu.

XI. Legegintzaldian, aurrekoan bezala, Idazkaritzak Legegintzaldiko plan estrategiko bat izan du: 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. Gogora Institutuak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sail-plan mailako bi jarduera-programaren bidez antolatu dute beren egitekoa.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko apirilaren 4an aurkeztu zen, eta urte bereko urriaren 10ean onartu zen behin betiko. Aurreikuspenetatik 16 ekimen eta horietatik eratorritako programa eta jarduera ugari atera dira.

Liburu-bilduma honek hamar liburutan biltzen ditu 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren garapenaren esparruan Legegintzaldi honetan sortutako dokumentu nagusiak. Horien egitura, izenburuak kontuan hartuta, honako hau da: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, (7) Erljio-aniztasuna eta (8) Asilo eta migrazio zaugarria, (9) Nazioarteko ekarpena, eta (10) Eranskina: ETaren armatzea eta desegitea.

Hirugarren liburu honetan biktimen eskubideen arloan politika publikoen esparruan garatutako jarduerari buruzko dokumentuak jasotzen dira.

### Giza eskubideen agenda Covid-19aren ostean

2016an amaitu zen Legegintzaldiaren eta 2020an amaitu denaren artean, beste aldaketa esanguratsu bat egon zen Eusko Jaurlaritzaren arlo horren izendapenarekin lotuta, baina kontzeptuzko funts garrantzitsu batekin. “Bakearen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatetik “giza eskubideen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatera igaro zen. Aldaketa horren atzean 2016aren amaieran adierazitako egoeraren diagnostiko hau zegoen:

*“Bakea, terrorismoak eta indarkeriak markatutako garai baten amaierari lotua, atzean geratzen ari zen agenda giza ikusten zen sozialki. Egiteke zegoen agenda bat zen, iraganari lotua. Giza eskubideekin lotutako bizikidetzaren formulazioa, egiteke zeuden erronkak ahaztu gabe, mundu aldakor eta ziurgabetasunez inguratutako baten erronketara hobeto egokitzea zen. Giza eskubideen eta orainari eta etorkizunari lotutako bizikidetzaren agenda azaleratu zen”.*

Diagnostiko hura zehatza izan zen. Euskal XI. Legegintzaldiko denbora, arlo horretan, funtsezko bi egitate-  
ren ondorioz igaroko da historiara:

- Alde batetik, ETAre armagabetzea 2017ko apirilaren 8an, eta behin betiko desegitea 2018ko maiatza-  
ren 3an. Hori guztia iraganaren ondorio eta zeinu anakroniko gisa; izan ere, bidegabera izateaz gain,  
onartezina eta jasanezina zen gure garaiko euskal eta europar gizartean.
- Bestalde, euskal gizartean giza eskubideekin, berdintasunarekin, justiziarekin, ingurumenarekin, migra-  
zioekin, errefuxiatuekin, askatasunarekin eta abarrekin lotutako kezka eta ezinegon sozialen agenda  
berri bat finkatzea.

2020an, ETAre amaierari lotutako egiteke dauden zereginen agenda bat geratzen da, batez ere hiru ere-  
mutan: biktimen arloko politika publikoak, memoriari eta ETAr buruzko hausnarketa kritiko eta partekatua,  
eta adostasuneko eta bizikidetzarako espetxe-politika.

Dena den, giza eskubideen euskal agenda gero eta gehiago da giza eskubideen agenda globala. Iragana-  
ri lotutako tokiko agendatik giza eskubideen agenda globalarekin erabat bat egiteko trantsizioari buruzko  
hausnarketa horrek XII. Legegintzaldiaren hasiera markatzen du (2020-2024).

Aipatu bezala, 2016ko amaierako diagnostiko hark azpimarratzen zuen beharrezkoa zela “mundu aldakor  
eta ziurgabetasunez inguratuaren erronketara egokitzea”. Ordura arte ezagututako ezerk ezin zuen hobeto  
sinbolizatu aldaketa eta ziurgabetasuna, 2020aren hasieran planeta osoan agertu zen Covid-19 pandemiak  
baino. XI. Legegintzaldia ere historiara pasako da, azken aldia pandemia honen ondorioengatik monopoli-  
zatuta egon delako.

Tokiko eta planetako bizipen hark indartu eta berretsi baino ez du egin Euskadin giza eskubideen agen-  
da globala errotzea. Munduaren errealtateari beste begirada bat emateko eskatzea gogoeta kontzeptuala  
baldin bazen, pandemiaren ondoren errealtatearen agindua da orain. Paradigma-aldaketa baten aurrean  
gaude, eta oraindik ez dakigu zer irismen eta ondorio dituen.

Galdera berri batzuk eginda daude. Ez, ordea, erantzun guztiak. Idazkaritza honen jarduera-eremuan bi  
galdera garrantzitsu daude: batetik, nola adieraziko dira giza eskubideen urraketa- eta urrakortasun-modu  
berriak?; eta, bestetik, nola planteatu beharko dira giza eskubideen defentsarako eta sustapenerako politika  
publikoak pandemiaren atzean zehaztutako errealtate berrian?

Covid-19ren ondorioei buruzko eztabaida batzuek giza eskubideen balio hierarkikoki gorenaren gaineko  
lehia sakona iragartzen dute. Iritzi eta eragin globaleko korrante boteretsuek beren balioaren mespretxua  
defendatzen dute, edo, edozein kasutan, indibidualismo materialista baten ardatz ideologikoari lotutako bes-  
te balio batzuen mende egotea.

Ikuspegi ideologiko horrek gutxietsi egiten du komunitatearen zentzua eta guztion ongia “onkeria” antzu eta  
are kaltegarri gisa bilatzen du, eta zenbait balio lehenesten ditu, hala nola lokalismoa, “salba dadila ahal  
duena”, segurtasuna, protekzionismoa edo merkatuaren lidergoa, politikaren aurrean, besteak beste.

Giza eskubideen defentsa eta, ondorioz, elkartasun-betebeharra dira datozen hamarkadetako zeregin na-  
gusia. Jokoan duguna da ea munduaren grabitate-zentroak elkartasunaren ardatzera jotzen duen edo, aitzit-  
tik, indibidualismoaren ardatzean sakontzen duen, bai herritarren kontzientzian duen proiektzioan, bai tokiko,  
nazioko edo nazioarteko politikaren hainbat eremutan duen islapenean.

Covid-19ren ondoren, are arrazoi gehiagorekin, beharrezkoa izango da elkartasunaren, berdintasunaren, ez  
baztertzearen eta giza eskubideen tokiko agenda globalean sakontzen jarraitzea. 2030 Agendaren Garapen  
Jasangarriko Helburuak, Eusko Jaurlaritza bere ekintza osoan konprometituta daudenak, abiapuntu bat dira  
ziklo berri honetan. Horixe da, hain zuzen ere, XI. Legegintzaldia amaitzen eta XII. Legegintzaldia hasten  
deneko zalantzen eta erreferentzien ikuspegia.

---

## Liburu honen aurkezpena

---

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak bere 4. ekimenean honakoa ezartzen du: *“Eusko Jaurlaritzak biktimen arloan duen politika publikoa biktimek egia jakiteko, justizia egiteko eta ordaina emateko duten eskubidean oinarritzen da, eta biktimei jasan zuten bidegabekeriaren aurrean elkartasuna erakustean. Konpromiso hori biktimei eragindako kaltea eta sufrimendua aitortzean eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioan oinarritzen da, biktima bihurtu dituzten kausak alderatu gabe”.*

Oinarri filosofiko horren gainean, Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen biktimen politika publikoak ETaren eta antzeko erakundeen terrorismoaren biktimei buruzkoak dira. Memoria hurbila deritzon aldian, erakunde horiek izan dira bizitzeko eskubidearen urraketen eragile nagusiak. Politika horien barruan sartzen dira, halaber, BVE, GAL eta antzeko erakunde terroristen biktimak, beti aitortu ez diren edo, kasu batzuetan, ikertu ere egin ez diren hildakoak eta oso sufrimendu larriak eta bidegabeak eragin zituztenak. Eusko Jaurlaritzak esparru honetan eskaini nahi duen erreparazioa eta errekonozimendua, era berean, Estatuaren estamentuen botere-abusuak eragindako giza eskubideen urraketen biktimak ere biltzen ditu.

Biktima desberdinak daudela aitortzeak,aldi berean, berekin dakar indarkeria bat kontrapisu argudio gisa erabiltzeko edo beste zeinu bateko beste bat legitimatzeko edozein asmo erabat baztertea. Eusko Jaurlaritzak indarkeria mota oro arbuiazeak berekin dakar biktima batzuen giza eskubideen urraketa batzuen instrumentazioa baztertea beste biktima batzuk daudela justifikatzeko, konpentsatzeko, diluitzeko edo minimizatzeko.

Biktimen arloko politika publikoek hainbat fase igaro dituzte. 70eko eta 80ko hamarkadetan gabezia handiak egon ziren errekonozimenduan eta erreparazioan, gerora autokritika argiak eta esanguratsua merezi izan dituztenak. 90eko hamarkadan, etengabeko sentsibilizazioa nagusitu zen, aintzatespen- eta elkartasun-erantzuna emateko beharrari dagokionez. Terrorismoaren biktimen elkartean eta beste gizarte eragile batzuen zeregina oso garrantzitsua izan zen horretarako.

2000. urteaz geroztik, babesa eta elkartasuna emateko arau-, erakunde- eta gizarte-estaldura eraiki da, eta, hobetzeko modukoa izan arren, urtetik urtera aurrera egin du. Atera daitekeen ondorioa da lana ez dela amaitu. Azken urteetako ildoari jarraitu behar zaio, egindakoa hobetuz eta etorkizunerako begirada txertatuz.

ETaren terrorismoaren biktimei dagokienez, gainditu gabeko gai nagusia eta berezia da korrante politikoa bakar bat ere ez dadila geratu adierazi gabe *ezein kausak ez zuela inoiz balio handiagorik izan biktima bakoitzaren bizitza, duintasuna edo osotasuna baino*. Aho batez entzutea jasandako terrorismoari buruzko ondorioa dela *ez zuela justifikaziorik izan, ez zela inoiz gertatu behar, inoiz ez dela errepikatu behar*.

Hori da iragana, aintzatespenaren ikuspegitik, bizikidetzaren ikuspegitik, etorkizunarekin lotzeko bitartekorik leheneratzaileena eta eraikitzaileena. Biktimenganako errekonozimendu eta erreparazio nagusia da egiaztatzea inoiz gehiago ez mezu horrek proiektzio pedagogikoa eta belaunaldien artekoa duela. Iraganaren aitortpen kritiko horrek balio erreparatzaile sakona du biktimekiko.

Biktimen politika publikoak iraganari begiratzearekin lotuta egon dira. Hau beharrezkoa da. Dena den, iraganera bakarrik begiratzen duen ikuspegi bat mugatzailea da biktimentzat eta biktimizazioa gainditzeko. Beharrezkoa da paradigma hori zabaltzea. Begirada etorkizunari ere lotu dakioke. Horrek esan nahi du, biktimez pentsatzen dugunean, iraganean jasan zuten kaltearen bidegabekeria pentsatuko dugula, bai eta gizarte osoarekin batera orainean eta etorkizunean bizikidetzara eraikitzeke duten eginkizunean ere. Ikuspegi hori txertatzea izan da Eusko Jaurlaritzak aurreko Legegintzalditik egin duen ahaleginetako bat.

Oinarri horien gainean, Legegintzaldi honetarako helburuak bi apustutan bildu dira: (1) *“biktima guztiei aitortza eta ordaina emateko prozesuak osatzen laguntzea eta haiek ere bizikidetzara eraikitzeke orduan parte har dezaten sustatzea”*; eta (2) *“lehenik eta behin, biktimek arretoa eta aitortza eman zaiela sentitzeko baliabide guztiak jartzea eta bigarrenik, biktimek bizikidetzaren eta normalizazioaren arloan lortutako arrakasta sozial ororen partaide direla sentitzeko baliabide guztiak jartzea”*.

Kontzeptuzko esparru horretan, biktimen arloko urteko jarduera-planak jasotzen ditu **1. Dokumentuak**. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak dio urtero lan programa bat prestatu beharko dela. Dokumentu horiek aurreikuspen hori betetzen dute. 2017rako 2018rako eta 2019rako dokumentuak sartu dira.

**2. Dokumentuak** Terrorismoaren biktimen Egiarako Eskubideari buruzko txostena jasotzen du, AVTk egin Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz. Terrorismoaren biktimen egia jakiteko eskubideari laguntzea du helburu, batez ere behar besteko erreparazio judizialik jaso ez duten biktimena. Dokumentu hau abiapuntua da biktima horietako bakoitzari aitorten instituzional pertsonalizatua eskaintzeko, kasu bakoitzean eskuragarri dagoen informazioa biltzen duen dokumentu baten eta jasandako bidegabekeriari buruzko adierazpen baten bidez. Proiektuaren bigarren zati hau hurrengo Legegintzaldian garatuko da.

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak akordio bat du Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiaren Euskal Institutuarekin (IVAC/KREI), eta, horren bidez, urtero terrorismoaren biktimen beharrek lotutako hainbat alderdi jorratzen dituen azterlan edo ikerketa bat egiten du. **3. Dokumentuak** “KREIk egindako azterlanen laburpena” izenekoak 2017an, 2018an eta 2019an egindako ikerketen ondorioen atalak jasotzen ditu.

UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrarekin lankidetzan, lan bat egin da 1975 eta 1978 bitartean motibazio politikoko eskuin muturreko erakunde terroristen biktimen kasuak zein egoeratan dauden jakiteko. **4. Dokumentuak** arlo horretako dokumentazio aurreratua aurkezten du. Lan hori oinarri gisa erabiliko da hurrengo Legegintzaldian biktima horietako bakoitzari aitorten instituzional pertsonalizatua eskaintzeko, kasu bakoitzean eskuragarri dagoen informazioari buruzko bilketa-dokumentu bat entregatuz.

Aurreko Legegintzaldian, Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko Lege-proiektua onartu zuen, eta Eusko Legebiltzarrari zuzendu zion; hedabideek “polizia-abusuen biktimen legea” deitzen diote proiektu horri. Legea 2016ko uztailaren 28an onartu zen, eta Espainiako Gobernuak presidenteari konstituzio-kontrakotasuneko errekursoaren xede izan zen, baita Konstituzio Auzitegiak partzialki bertan behera uztearen xede ere. 2017ko apirilaren 24an, “Biktimen 12/2016 Legea. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea” Jardunaldia egin zen eta bertan Fabian Salvioli Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko presidentea ohiak txosten bat aurkeztu zuen. **5. Dokumentuan**, lege honek giza eskubideen nazioarteko araubidearekin duen bateragarritasuna jorratzen duen txosten hori jasotzen da.

Lege horri berari dagokionez, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzeta Batzordeak akordio bat lortu zuen 2018ko uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasun-errekursoan atzera egiteko. Akordio hura garatzeko zenbait aldaketa egin ziren helegitea jarritako Legean honen segurtasun juridikoa sendotzeko. 2019ko apirilaren 4an, Eusko Legebiltzarrak 5/2019 Legea onartu zuen, 12/2016 Legea aldatzen duena, eta **6. Dokumentu** gisa jaso da liburu honetan.

Legegintzaldi osoan zehar, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak elkarrizketarako, eztabaidarako eta adostasunerako prozesu egituratu bat garatu du lau gai nagusiren inguruan, terrorismoaren biktimen errealitatearekin lotuta. **7. Dokumentuak** lan honen ondorioen proposamena jasotzen du, eta Legegintzaldi berriaren hasieran berretsi beharko da.

**8. Dokumentuan**, Iñigo Urkullu Lehendakariak, XI. legegintzaldian, Memoriaren Egunean eta Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean emandako diskurtsoak jaso dira. Amaitzeko, Batera Konpromisoaren testua ere sartu da. Testu hori aurreko Legegintzaldiaren amaieran aurkeztu bazen ere, Eusko Jaurlaritzak arlo horretan dituen politika publikoak inspiratzen jarraitu du. Biktimen politika publikoetan paradigma berrietara bideratzen duen hausnarketa bat jasotzen du. Batera Konpromisoak esan nahi du biktimen politiketan etapa bat bultzatzea, biktimei iraganera begiratzeaz gain, etorkizunera ere begiratzeko eta biktimen eta gizartearen arteko batasuna bizikidetzeta sustatzeko.







# 1

● dokumentua

---

Biktimen arloan jarduteko  
urteko planak



---

# Biktimen arloan jarduteko urteko planak

---

**2020ko apirila**

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Idazkaritza Nagusia

---

*Euskadi, auzolana, bien común*



---

# **Biktimen inguruko**

## Jarduera Plana 2017

---

2017ko apirila



## Sarrera

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren proposamenak bere 4. ekimenean Eusko Jaurlaritzaren jarduera-aurreikuspenak ezartzen ditu biktimen inguruan. Honek funtsean duen oinarri filosofikoa horrela adierazten da: *“Eusko Jaurlaritzak biktimen arloan duen politika publikoa biktimek egia jakiteko, justizia egiteko eta ordaina emateko duten eskubidean oinarritzen da, eta biktimei jasan zuten bidegabeke-riaren aurrean elkartasuna erakustean. Konpromiso hori biktimei eragindako kaltea eta sufrimendua aitortzean eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioan oinarritzen da, biktima bihurtu dituzten kausak alderatu gabe”*.

Oinarri hauek kontuan hartuz, Legegintzaldi honetarako helburuak bi apustutan biltzen dira: (1) *“biktima guztiei aitortza eta ordaina emateko prozesuak osatzen laguntzea eta haiek ere bizikidetzara erakitzeke orduan parte har dezaten sustatzea”*; eta (2) *“lehenik eta behin, biktimek arretoa eta aitortza eman zaiela sentitzeke baliabide guztiak jartzea eta bigarrenik, biktimek bizikidetzaren eta normalizazioaren arloan lortutako arrakasta sozial ororen partaidea”*.

Aipatutako planean aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren biktimen politika publikoak lau jardue-  
ra-ardatz izango ditu legegintzaldi honetan zehar:

- **Jarraitutasuna.** Terrorismoaren biktimen arloan, aurreko legegintzaldietan biktimei laguntzeko eta aitortza eta ordaina emateko bultzatu diren politikak bultzatzen jarraitzea, indarrean dagoen esparru arautzailea eta bereziki 4/2008 Legea errespetatuz.
- **Garapena.** Eusko Legebiltzarrak 2016ko uztailaren 28an onetsitako 12/2016 Legea garatzea, arrazoi politikoeke eragindako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortza eta ordaina emateari buruzkoa.
- **Berrikuntza.** Batera Konpromisoa izeneko dokumentua oinarri hartuta, biktimak eta gizartea elkar-  
tzea eta guztiek etorkizuna eta bizikidetzara erakitzen parte hartzea sustatzen duten jardue-  
ra-ildoeke bultzatzea.
- **Ebaluazioa.** Legegintzaldi amaieran biktimen aitortzaren arloan egiteke geratu diren zereginak eba-  
luatzea.

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak 2020an azken ebaluazioa egiteke ondorengo irizpidea ezartzen du: *“Legegintzaldi amaieran arlo honetako politikeke instituzioak, eragile politikoak, elkarteak eta herritarrak gehiago elkartzeke espazio bat osatzea, biktimen parte-hartzearekin. Logikoa den moduan, elkarketa horie-  
tan desadostasunak ere onartu beharko dira baina funtsean batasuna sustatuko da”*.

Lan-konpromisoen eremuan haxe adierazten da “urtero-urtero, azken hiru hilekoan, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak hurrengo urterako lan-programa bat prestatuko du. Lan-programa horrek jarraitutasunaren, garapenaren eta berrikuntzaren ardatzak garatu beharko ditu biktimen arloko politiketan”. Dokumentu honek aurreikuspen hau betetzen du 2017. urterako.

### 1. Abiapuntua. Batera Konpromisoa

Berrikuntzaren ikuspegitik, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak bere gain hartzen duen helburu nagusia biktimen inguruan haxe da: “Batera Konpromisoa izeneko dokumentua oinarri hartuta, biktimak eta gizartea elkartzea eta guztiek etorkizuna eta bizikidetzara erakitzen parte hartzea sustatzen duten jardue-  
ra-ildoeke bultzatzea”.

2015eko irailaren 22an, “Batera Konpromisoa. Biktimen inguruko politika publikoetan beste aurrerapauso bat emateke oinarriak” izenburua daraman txostena publiko egin zuen Eusko Jaurlaritzak. Bere edukiaren muina *hiru printzipiotan* laburbiltzen da: legegintzaldi honetarako biktimen inguruko Eusko Jaurlaritzaren lan-programa iradokitzen duten *paradigma* bat eta *lehentasunezko balioa*.

---

**Benetakoa izatea:** autokritika egin beharra egokitu zaigu, eta egingo dugu

Biktimen kontuetan iraganean zer egin dugun kritikoki aztertuta, ez da zaila oker batzuk hautematen: berandu ibili gara biktimei behar zuten elkartasuna eta erantzuna ematen; gehiago erreparatu diogu bateraezintasun politikoari, biktimen inguruko batasunari baino; biktimak bereizi izan ditugu, pairatu izan duten indarkeriaren arabera, eta biktimen auzia bakoitzaren alderdikerietarako tresnatzat hartu dugu.

Eusko Jaurlaritzak autokritika egin du, eta horietako bi oker egin dituela ametitu du. Hasteko, 90eko hamarkadaren lehenengo urteak arte, erakundeak beti berandu iritsi garelako biktimen kausara. Eta jarraitzeko, hurrengo urteetan, bateraezintasun politikoak zirela-eta, ez garelako gai izan elkar hartuta denok biktimekin solidario izateko eta denok batera indarkeria errefusatzeko.

Egin du, ba, egin beharreko autokritika Eusko Jaurlaritzak, eta eskatu die barkamena indarkeriaren eta terrorismo ororen biktime izan direnei, egindakoengatik eta egin gabe utzitakoengatik, batez ere, 70eko eta 80ko hamarkadan ez genielako konturik egin, batere. Lehenago erreakzionatu behar genuen, eta hobeto erantzun, denok batera. Autokritika hauxe da Batera Konpromisoaren abiapuntua.

**Egia esatea:** minimo etikoa argi eta garbi definitzea

ETAren amaierak ezin du ekarri besterik gabe orria pasatzea gertatutakoari buruzko kritika espliziturik gabe. Memoria-politikek ezinbestean dakarte edozer indarkeria- edo terrorismo-mota bidegabeak direla errekonozitzea; hortaz, baita ETAren indarkeria eta terrorismoa ere.

Indarkeriaren justifikazio ororen eta giza eskubideen urraketa ororen kontra altxatuko gara. Hitz ematen dugu gure aldetik biktimen oroimena eta ohorea ez direla bazterturik geratuko, iragana ahazturik etorkizunera begiratzeagatik. Horixe da gure minimo etikoa, etorkizuna eraikitzeke ezinbestekoa, horretan oinarritzen da Batera Konpromisoa.

**Berdintasuna gauzatzea:** biktimen eskubideak betetzea

Biktimen inguruko politika publikoak egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eskubideetara begira taxutuko dira aurrerantzean ere, eta, aurrerantzean, biktimei emango zaien arreta harik eta pertsonalizatuena izaten saiatuko gara bereziki.

Horretan, gogoan izango dugu biktimen eskubideek berdinak izan behar dutela beti, hau da, berdin kontu egin behar zaiela denei, jasandako indarkeria edonolakoa izanda ere. Printzipio honek bi adierazpen izango ditu: batetik, biktimen artean egindako bereizkeria okertzat ematea, eta zuzentzea; eta, bestetik, biktime batzuk daudelako beste batzuk egotea justifikatu nahia erabat gaitzestea.

**Paradigma zabalagoa:** biktimak etorkizunari ere lotzea

Biktimen inguruko politikak atzera begira landu izan ditugu orain artean. Nola ez ba, ezinbestekoa da eta izango da atzera begiratzea. Hala ere, atzera besterik ez begiratzea oso murrizta da bai biktimentzat eta bai biktimizazioa gainditzeko lanerako. Paradigma hori zabaldu nahi du, hortaz, Eusko Jaurlaritzak.

Izan ere, biktimei erreparatuz, etorkizuna ere begi aurrean dakusagu. Begira diezaiozun ba etorkizunari; hala, biktimei buruz pentsatzen dugunean, iraganean jasan izan zuten kaltearen gaitza ez ezik, gaur egungo eta etorkizuneko elkarbizitza eraikitzen denekin batera daukaten papera ikusiko dugu.

**Gure bitxi preziatuena:** biktimak eta gizartea bat eginda

Terrorismoaren edo indarkeriaren biktimek pairatzen duten bizipen traumatikoak ez du parerik gizartean. Horrek lubakia eragin du biktimaren eta gizartearen artean. Biktomologiaren ikerketek erakutsi dute, bai hemen eta bai munduko beste edozein txokotan, biktimen eta gizartearen arteko harremana hurbil-urrun ardatzean kokatzen dela.

Denboraren joanean biktimak eta gizartea hurbildu edo urrundu egiten dituzten faktoreak agertzen dira. Politika publikoek badute gaitasuna distantzia hori txikitu edo ezabatzeke. Eusko Jaurlaritzaren arduraren kontuetan, biktimekin lotutako ekintza guztietan, bitxi preziatu bat irabazi nahian jokatzeko dugu beti: biktimen eta gizartearen artean batasun eta konfluentzia lortu nahian, etorkizunera eta elkarbizitza hobera begira.

Batera Konpromisoak etapa berriak ekarriko ditu biktimen inguruko politiketara, iraganera ez ezik, etorkizunera ere begiratu dezaten, eta biktimen eta herritarren batasuna bultzatuko du, denak elkarrekin hobeto



bizi gaitezen. Konpromiso honek lau hitz lotuko ditu: biktimak, gizartea, etorkizuna eta elkarbizitza. Denen ahalegina beharko du horretarako. Erakundeena, alderdi politikoena, komunikabideena, gizarte eragileena, biktimena eta herritarrena.

## 2. Erronka estrategikoa: prozesu eraikitzaileak partekatzea

Batera Konpromisoaren ildotik, biktimen arloan aurrerapen kualitatibo bat egiteko aukerak bi giltzarri ditu: (1) Biktimen politikak, iraganari ez ezik, etorkizunari ere lotzea, eta biktimen eta gizarteren arteko batasuna sustatzea; eta (2) biktimen eginkizuna bizikidetzaren eta etorkizunaren eraikuntzaren arloa eramatea, gizartearekin batera.

Behar bada, lan-hipotesi horretan, gizarteak biktimei eskaini diezaiekeen erreparazio-eragile handiena hau da: gainerako gizartearekin orainaren eta etorkizunaren eraikuntzaren partaide senti daitezen lortzea. Horren ildotik, **prozesu eraikitzaileak partekatzea da** erronka estrategikoa; printzipio, jarduketa-esparru, metodo eta helburu eraikitzaileekin gauzatutako prozesuak alegia.

- **Printzipioa.** Elkarteen eta erakundeen artean, eta biktimen eta gizartearen artean, jarduketa-printzipio eraikitzaile eta kolaboratzaile batean bat etortzea eta konpromisoa hartzea.
- **Esparrua.** Eraikuntzako erronka honetarako lehentasunezko jarduketa-esparru gisa erabiltzea Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak eskainitakoa.
- **Metodoa.** Lan partekatuaren metodoa adostasuna bilatzen duen eta desberdintasunak errespetatzen dituen elkarrizketa argi eta zintzo baten aldeko etengabeko apustu batean kontzentratzea.
- **Helburua.** Gizarte osoarekin batera, bizikidetzaren eta etorkizunaren eraikuntzan biktimek duten papera indartzen laguntzea.

Aurreko legegintzaldietan garatutako biktimei buruzko politika publikoei jarraipena emateaz, osatzeaz eta hobetzeaz gainera, Eusko Jaurlaritzaren urteroko jarduketa-planek erronka estrategikoa hau dute: **prozesu eraikitzaileak partekatzea**. XI. legegintzaldiko lau urteak aukera bat dira ildo horretan.

## 3. Lehen urratsa: Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluan elkarrizketa garatzeko agenda-proposamena

Lehen urratsa gogoeta hauek elkarrizketarako gai zehatzen agenda batera eramatea da, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren barruan. Horren ildotik, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak elkarrizketarako agenda-proposamen bat aurkezten du, eztabaidarako lau gai-multzo dituen. Horiek guztiek galdera berberera eramaten dute: Eman beharreko urratsak zein diren (halakorik bada). Horrek esan nahi du eztabaida horiek egiaz gauzatzeko borondatea eta asmoa behar dela.

### I. Terrorismoaren biktimen errekonozimendua eta erreparazioa: eman beharreko urratsak

- Errekonozimendu- eta erreparazio-politiketan egiteke dauden lanak gauzatzea.
- Guztiz argitu ez diren atentatuen biktimei erantzunak ematea.

### II. Biktimak iraganari buruzko gogoeta kritikoko prozesuetan: eman beharreko urratsak

- Justizia konpontzailearen gaitasuna eta biktimek jaso beharko lituzketen mezu konpontzaileak.
- Biktimaren lekukotza memoriaren eraikuntzaren eta benetan gertatutakoaren berreraikuntzaren parte gisa.

### III. Biktimak subjektu, desberdinen arteko elkarrizketa-prozesuetan: eman beharreko urratsak

- Desberdinen arteko elkarrizketaren balioa biktimen eta gizartearen arteko batasunaren ikuspuntutik.
- Aztertzea biktimek elkarrizketarako, entzuteko eta entzunak izateko duten beharra, eta norekin egin behar duten.

### IV. Biktimen heziketa-ekarpina: eman beharreko urratsak

- Biktimen lekukotzen esperientzia hezkuntzan, eta hori beste esparru batzuetara zabaltzea.
- Prebentzioa nazioarteko terrorismoaren aurrean, eta Europako gazteen erradikalizazio-fenomenoak.

#### 4. 2017rako ardatzen, edukien eta lan-helburuen laburpena biktimen inguruan

Ardatza	Edukia	Lan-helburuak
·Jarraitutasuna	-Terrorismoaren biktimen arloan, aurreko legegintzaldietan biktimei laguntzeko eta aitortza eta ordaina emateko bultzatu diren politikak bultzatzen jarraitzea, indarrean dagoen esparru arautzailea eta bereziki 4/2008 Legea errespetatuz.	<p>—Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak laguntza- errekonozimendu- eta erreparazio-politikak mantentzea.</p> <p>—Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua sustatzea, urteko lan-plana aurkeztuta.</p> <p>—Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna ospatzea, terrorismoaren biktimekin batera ahalik eta batasun sozial eta politiko handiena bilatuz.</p> <p>—Erantzun erreparatzaileei buruzko azterlan espezifikoa bati ekitea, guztiz argitu ez diren atentatu biktimei dagokienez.</p>
·Garapena	-Eusko Legebiltzarrak 2016ko uztailaren 28an onetsitako 12/2016 Legea garatzea, arrazoi politikoei eragindako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortza eta ordaina emateari buruzkoa.	<p>—Jardunaldi bat egitea, 12/2016 Legeak giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean duen kokapenari buruz.</p> <p>—Lege honen segurtasun juridikoa defendatzea beharrezkoa den esparru guztietan.</p> <p>—Legea garatzeko parlamentu-mandatuan aurrera egitea legez posible den guztian, Espainiako Gobernuak jarritako errekursoaren erantzunak gauzatzen diren neurrian.</p> <p>—Biktimei uneoro informazioa ematea, Legearen kudeaketaren egoerari buruz.</p>
·Berrikuntza	-Batera Konpromisoa izeneko dokumentua oinarri hartuta, biktimak eta gizartea elkartzea eta guztiek etorkizuna eta bizikidetzara erakitzen parte hartzea sustatzen duten jarduerak bultzatzea.	<p>—Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren barruko elkarrizketarako agenda-proposamen bat aurkeztea, eta agenda hori legegintzaldian gauzatzeko egutegi bat programatzea.</p> <p>—Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzei buruzko politikan etapa berri bat bideratzea, biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatuz, etorkizuna eta bizikidetzara erakitzeari begira.</p> <p>—Biktima hezitzaileen lekukotzei buruzko Adi-adian hezkuntza-proposamena eguneratzea, eta beste esparru batzuetara hedatzeko aukera aztertzea.</p> <p>—Autokritikari, biktimei eta justizia konpontzaileari buruzko jardunaldi batzuk sustatzea.</p>

---

# 2018ko balantzea eta 2019ko jarduera-plana

---



## Sarrera

2017-2020ko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren 4. ekimenean jasota daude Eusko Jaurlaritzak biktimen arloan egin nahi dituen jarduketak. Horren oinarri filosofikoa honako hau da: “Eusko Jaurlaritzak biktimen arloan duen politika publikoa biktimek egia jakiteko, justizia egiteko eta ordaina emateko duten eskubidean oinarritzen da, eta biktimei jasan zuten bidegabekeriaren aurrean elkartasuna erakustean. Konpromiso hori biktimei eragindako kaltea eta sufrimendua aitortzean eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioan oinarritzen da, biktima bihurtu dituzten kausak alderatu gabe”.

Oinarri horien gainean, legealdi honetarako helburuak bi apustutan kontzentratzen dira: (1) “biktima guztiei aitortza eta ordaina emateko prozesuak osatzen laguntzea, eta berariazko programa batzuk partekatzeari, haiek ere bizikidetzara erakitzen parte har dezaten sustatzeko”; eta (2) “lehenik eta behin, biktima guztiek arreta eta aitortza eman zaiela sentitzeko baliabide guztiak jartzea eta bigarrenik, biktimek bizikidetzaren eta normalizazioaren arloan lortutako arrakasta sozial ororen subjektu eta partaide direla sentitzeko baliabide guztiak jartzea”.

Aipatu planean aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren biktimen politika publikoek lau jarduerar-ardatz izango dituzte oinarritzat legealdi honetan zehar:

- Jarraitutasuna. Terrorismoaren biktimei dagokienez, jarraitu bultzatzen, indarrean dauden arauak eta bereziki 4/2008 Legeari jarraikiz, azken legegintzaldiko politikak, asistentzia-, aitorpen- eta erreparazio-gaietan.
- Garapena. Arrazoi politikoengatik indarkeriaren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzko 12/2016 Legea garatu (Eusko Legebiltzarrak 2016ko uztailaren 28an onartua).
- Berrikuntza. Batera konpromiso-agirian oinarrituta, biktimen eta gizartearen arteko batasuna bultzatzen duten jarduerak bultzatu, bai eta haren partaidetza etorkizunaren eta bizikidetzaren eraikuntzan ere.
- Ebaluazioa. Legealdiaren amaieran, biktimen aitortzaren arloan egiteko dauden zereginak ebaluatu.

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak honako irizpide hau ezartzen du 2020ko azken ebaluaziorako: “Legegintzaldi amaieran arlo honetako politikek instituzioak, eragile politikoak, elkarteak eta herritarrak gehiago elkartzeko espazio bat osatzea, biktimen parte-hartzearekin. Logikoa den moduan, elkarketa horietan desadostasunak ere onartu beharko dira baina funtsean batasuna sustatuko da”.

Laneko konpromisoen arloan ezarri denez, “urtero-urtero, azken hiru hilabeteetan, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak hurrengo urterako lan-programa bat prestatuko du. Lan-programa horrek jarraitutasunaren, garapenaren eta berrikuntzaren ardatzak garatu beharko ditu biktimen arloko politiketan”. Agiri honek bete egiten du 2019. urterako aurreikuspen hori.

## 1. 2018an garatutako jarduera nagusien balantzea

Ardatza	Jardueren balantzea
<p><b>·Jarraitutasuna</b></p> <p>-Terrorismoaren biktimei dagokienez, jarraitu bultzatzen, indarrean dauden araei eta bereziki 4/2008 Legeari jarraituz, azken legegintzaldiko politikak, laguntza-, aitorten- eta erreparazio-gaietan.</p>	<p>—Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzaren laguntza- errekonozimendu- eta erreparazio-politika publikoei eutsi die.</p> <p>-51 laguntza-espeditu izapidetu dira: psikologia, lana, ikasketetarako laguntza, protesiak eta abar.</p> <p>-Gure bulegoan edo beren egoitzetan eman diegu zuzeneko arreta 100 biktimei baino gehiagori.</p> <p>-Esperientzia traumatikoetako biktimei laguntza emateko graduondoko ikastaroen gaineko lankidetzak-hitzarmena daukagu IVAC-KREIrekin.</p> <p>-Era berean, IVAC-KREIek ikerketa-txosten bat egin zuen, honako izenburu honen pean: “Terrorismoaren biktimen emozioak eta arrazoiak: eskubideak eta asmoak hilketan terroristetan zigortzeko eta leheneratzeko jarrerari buruz. 2. zatia: Hedabideak”.</p> <p>-EAEko Administrazioaren eta hiru euskal unibertsitateen arteko lankidetzarako esparru-akordioaren arabera, honako lan hauek aurkeztu dira: (1) UPV-EHU, “Gatazken inguruko hausnarketa eta ikastetxeetan uzartzeko programak”; (2) Mondragon Unibertsitatea “Gizalegez Egitasmoa 2018 Mondragon Unibertsitatea”; (3) Deustuko Unibertsitatea, “Metodologia para la elaboración de memorias institucionales de la violencia terrorista” (indarkeria terroristaren memoria instituzionalak egiteko metodologia).</p> <p>-Bi laguntza izendun esleitu dira: COVITE eta AVT.</p> <p>-2018. urtean zehar, biktimen elkarteek antolatutako hainbat jardunalditan parte hartu dugu, horren adibide: Andaluziako Elkarteak, Almerian; Extremadurako Elkarteak, Olivenzan; Valentziako Elkarteak, Valentzian; Errioxako Elkarteak, Logroñon; AVT, Donostian; Covite, Donostian. Gainera, biktimak oroitzeko 30 ekitaldi baino gehiagotan parte hartu dugu.</p> <p>-Bi txosten egin dira: “1973ko martxoaren 24an desagertutako hiru gazte coruñarrei buruzko txostena” (2018ko martxoa), UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrak egina, eta “Terrorismoaren biktimen egia-eskubidea”, AVT egina (2018ko ekaina).</p> <p>—Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua finkatu da, urteko lan-plana aurkeztu, garatu, eztabaidatu eta adostu ondoren.</p> <p>—Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna ospatu da, terrorismoaren biktimekin batera ahalik eta batasun sozial eta politiko handiena bilatuz.</p> <p>—Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, AVTrekin lankidetzan, proiektu zehatz bat garatzen jarraitzen du guztiz argitu ez diren atentatuen (batez ere 60ko eta 70eko hamarkadetan) biktimei erantzun konpontzaile eta indibidualizatua emateko.</p>

<p><b>·Luzapena</b></p> <p>-Arrazoi politikoengatik indarkeriaren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzko 12/2016 Legea garatu (Eusko Legebiltzarrak 2016ko uztailearen 28an onartua).</p>	<p>—Lege honen segurtasun juridikoa defendatu du Eusko Jaurlaritzak, beharrezkoa izan den esparru guztietan.</p> <p>—2018ko uztailearen 10ean, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Legean aurreikusitako Balorazio Batzordeko kideak izendatu ditu.</p> <p>—2018ko uztailearen 23an, ezespren-akordioa adostu du Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin, hark 2017ko maiatzaren 5ean aurkeztutako konstituzio-kontrakotasunaren gaineko errekurtsoan.</p>
<p><b>·Berrikuntza</b></p> <p>-Batera konpromiso-agirian oinarrituta, biktimen eta gizartearen arteko batasuna bultzatzen duten jarduera-lerroak bultzatu, bai eta haren partaidetza etorkizunaren eta bizikidetzaren eraikuntzan ere.</p>	<p>—Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren baitan adostutako lan-agenda egutegian aurreikusitakoaren arabera garatu da.</p> <p>—2018an, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzei buruzko politikan orientazio berri bat sartu da, biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatuz, etorkizuna eta bizikidetzeta eraikitzeari begira. Datuak. Terrorismoaren biktimen 15 elkarteren artean 133.075,70 € banatu dira, aurkeztutako 34 proiektutan.</p> <p>—Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eguneratu egin du biktima hezitzaileen lekukotzei buruzko Adi-adian proposamen hezitzailea, eta hura unibertsitate-mailan ezar dadin hedatu du. 24 ikastetxek parte hartu dute, hiru unibertsitateak barne. 47 saio egin dira, eta horietan 3.954 ikaslek parte hartu dute.</p>

## 2. 2019ko jarduera-programa

### 2.1. Abiapuntua: Batera konpromisoa

Berrikuntzaren ikuspegitik, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza eskubideen Planak biktimen gainean duen helburu nagusia honako hau da: Batera konpromiso-agirian oinarrituta, biktimen eta gizartearen arteko batasuna bultzatzen duten jarduera-lerroak bultzatu, bai eta haren partaidetza etorkizunaren eta bizikidetzaren eraikuntzan ere.

2015eko irailaren 22an, Eusko Jaurlaritzak honako agiri hau eman zuen argitara: “Batera konpromisoa. Biktimen inguruko politika publikoetan beste aurrerapauso bat egiteko oinarriak”. Agiri horren eduki nagusia laburbiltzen dute hiru printzipiok, paradigma batek eta bitxi preziatu batek, hau da, Eusko Jaurlaritzak legealdi honetarako biktimen gainean duen lan-programaren oinarri diren horiek:

**Benetakoa izatea:** autokritika egin beharra egokitu zaigu, eta egingo dugu

*Biktimen kontuetan iraganean zer egin dugun kritikoki aztertuta, ez da zaila oker batzuk hautesmaten: (1) berandu ibili gara biktimei behar zuten elkartasuna eta erantzuna ematen; (2) gehiago erreparatu diogu bateraezintasun politikoari, biktimen inguruko batasunari baino; (3) biktimak bereizi izan ditugu, pairatu izan duten indarkeriaren arabera, eta (4) biktimen auzia bakoitzaren alderdikerietarako tresnatzat hartu dugu.*

*Eusko Jaurlaritzak autokritika egin du, eta horietako bi oker egin dituela ametitu du. Hasteko, 90eko hamarkadaren lehenengo urteak arte, erakundeak beti berandu iritsi garelako biktimen kausara. Eta jarraitzeko, hurrengo urteetan, bateraezintasun politikoak zirela-eta, ez garelako gai izan elkar hartuta denok biktimekin solidario izateko eta denok batera indarkeria errefusatzeko.*

*Egin du, ba, egin beharreko autokritika Eusko Jaurlaritzak, eta eskatu die barkamena indarkeriaren eta terrorismo ororen biktima izan direnei, egindakoengatik eta egin gabe utzitakoengatik; batez ere, 70eko eta 80ko hamarkadan ez genielako konturik egin, batera. Lehenago erreakzionatu behar genuen, eta hobeto erantzun, denok batera. Autokritika hauxe da Batera konpromisoaren abiapuntua.*

**Egia esatea:** minimo etikoa argi eta garbi definitzea

*ETAren amaierak ezin du ekarri besterik gabe orria pasatzea gertatutakoari buruzko kritika espliziturik*

---

*gabe. Memoria-politikek ezinbestean dakarte edozer indarkeria- edo terrorismo-mota bidegabeak direla errekonozitzea; hortaz, baita ETaren indarkeria eta terrorismoa ere.*

*Indarkeriaren justifikazio ororen eta giza eskubideen urraketa ororen kontra altxatuko gara. Hitz ematen dugu gure aldetik biktimen oroimena eta ohorea ez direla bazterturik geratuko, iragana ahazturik etorkizunera begiratzeagatik. Horixe da gure minimo etikoa, etorkizuna eraikitze gutzienekoa, horretan bermatzen da Batera konpromisoa.*

**Berdintasuna gauzatzea:** *biktimen eskubideak betetzea*

*Biktimen inguruko politika publikoak egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eskubideetara begira taxutuko dira orain arte bezala, eta, aurrerantzean, biktimei emango zaien arreta harik eta pertsonalizatuena izaten saiatuko gara bereziki.*

*Horretan, gogoan izango dugu biktimen eskubideek berdinak izan behar dutela beti, hau da, berdin kontu egin behar zaiela denei, jasandako indarkeria edonolako izanda ere. Printzipio honek bi adierazpen izango ditu: batetik, biktimen artean egindako bereizkeria okertzat ematea, eta zuzentzea; eta, bestetik, biktima batzuk daudelako beste batzuk egotea justifikatu nahia erabat gaitzestea.*

**Paradigma zabalagoa:** *biktimak etorkizunari ere lotzea*

*Biktimen inguruko politikak atzera begira landu izan ditugu orain artean. Nola ez ba, ezinbestekoa da eta izango da atzera begiratzea. Hala ere, atzera besterik ez begiratzea oso murrizta da bai biktimentzat eta bai biktimizazioa gainditzeko lanerako. Paradigma hori zabaldu nahi du, hortaz, Eusko Jaurlaritzak.*

*Izan ere, biktimei erreparatu, etorkizuna ere begi aurrean dakusagu. Begira diezaiozun ba etorkizunari; hala, biktimei buruz pentsatzen dugunean, iraganean jasan izan zuten kaltearen gaitza ez ezik, gaur egungo eta etorkizuneko elkarbizitza eraikitzen denok in bat batera daukaten papera ikusiko dugu.*

**Gure bitxi preziatuena:** *biktimak eta gizartea bat eginda*

*Terrorismoaren edo indarkeriaren biktimek pairatzen duten bizipen traumatikoak ez du parerik gizartearen. Horrek lubakia eragin du biktimen eta gizartearen artean. Biktomologiaren ikerketek erakutsi dute, bai hemen eta bai munduko beste edozein txokotan, biktimen eta gizartearen arteko harremana hurbil-urrun ardatzean kokatzen dela.*

*Denboraren joanean, biktimak eta gizartea hurbildu edo urrundu egiten dituzten faktoreak agertzen dira. Politika publikoek badute gaitasuna distantzia hori txikitu edo ezabatzeke. Eusko Jaurlaritzaren arduraren kontuetan, biktimekin lotutako ekintza guztietan, bitxi preziatu bat irabazi nahian jokatzeko dugu beti: biktimen eta gizartearen artean batasun eta konfluentzia lortu nahian, etorkizunera eta elkarbizitza hobera begira.*

Batera Konpromisoak etapa berriak ekarriko ditu biktimen inguruko politiketara, iraganera ez ezik, etorkizunera ere begiratu dezaten, eta biktimen eta herritarren batasuna bultzatuko du, denak elkarrekin hobeto bizi gaitzean. Konpromiso honek lau hitz lotuko ditu: biktimak, gizartea, etorkizuna eta elkarbizitza. Denen ahalegina beharko du horretarako. Erakundeena, alderdi politikoetan, komunikabideena, gizarte eragileena, biktimena eta herritarrena.

## **2.2. Erronka estrategikoa: prozesu eraikitzaileak partekatzea**

Batera Konpromisoaren ildotik, biktimen arloan aurrerapen kualitatibo bat egiteko aukerak bi giltzarri ditu: (1) Biktimen politikak, iraganari ez ezik, etorkizunari ere lotzea, eta biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatzea; eta (2) biktimen eginkizuna bizikidetzaren eta etorkizunaren eraikuntzaren arloa eramatea, gizartearekin batera.

Behar bada, lan-hipotesi horretan, gizarteak biktimei eskain diezaiekeen erreparazio-eragile handiena hau da: gainerako gizartearekin orainaren eta etorkizunaren eraikuntzaren partaide senti daitezen lortzea. Horren ildotik, prozesu eraikitzaileak partekatzea da erronka estrategikoa; printzipio, jarduketa-esparru, metodo eta helburu eraikitzaileekin gauzatutako prozesuak alegia.

•**Printzipioa.** Elkarrekin eta erakundearen artean, eta biktimen eta gizartearen artean, jarduketa-printzipio eraikitzaile eta kolaboratzaile batean bat etortzea eta konpromisoa hartzea.

•**Esparrua.** Eraikuntzako erronka honetarako lehentasunezko jarduketa-esparru gisa erabiltzea Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak eskainitakoa.

•**Metodoa.** Lan partekatuen metodoa adostasuna bilatzen duen eta desberdintasunak errespetatzen



dituen elkarrizketa argi eta zintzo baten aldeko etengabeko apustu batean kontzentratzea.

•**Helburua.** Gizarte osoarekin batera, bizikidetzaren eta etorkizunaren eraikuntzan biktimek duten pateraper indartzen laguntzea.

Aurreko legegintzaldietan garatutako biktimei buruzko politika publikoei jarraipena emateaz, osatzeaz eta hobetzeaz gainera, Eusko Jaurlaritzaren urteroko jarduketa-planek erronka estrategiko hau dute: prozesu eraikitzaileak partekatzea. XI. legegintzaldiko lau urteak aukera bat dira ildo horretan.

### 3. Biktimen gaineko 2019ko lan-helburuen, edukien eta ardatzen eskema

Edukia	Lan-helburuak
<p>•<b>Jarraitutasuna</b></p> <p>-Terrorismoaren biktimei dagokionez, jarraitu bultzatzen, indarrean dauden araei eta bereziki 4/2008 Legeari jarraituz, azken legegintzaldiko politikak, laguntza-, aitortpen- eta erreparazio-gaietan.</p>	<p>— Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak laguntza- errekonozimendu- eta erreparazio-politikak mantentzea.</p> <p>-50 laguntza-espeditu inguru izapidetuko direla aurreikusten da. Arreta pertsonalizatuan 100 biktimei gora artatzea espero da.</p> <p>-2019an, IVAC-KREIri ematen zaizkion laguntzekin jarraituko da, esperientzia traumatikoetan biktimei laguntza emateko graduondoko ikastarotarako eta justizia konpontzailearen gaineko ikerketa-lan baterako.</p> <p>-AVTi eta COVITEri laguntza izendunak ematen jarraituko da.</p> <p>-Era berean, hiru euskal unibertsitateek laguntza izendunak edukiko dituzte proiektuak edo ikasketak gauzatzeko.</p> <p>-2019. urtean zehar, terrorismoaren biktimen elkarte desberdinek antolatutako jardunaldietara eta EAEn nahiz bertatik kanpo biktimek oroitzeko egingo diren ekitaldi desberdinetara bertaratzea aurreikusten da. 30 ekitalditik gora izan daitezke.</p> <p>-ETAren esparruan mehatxuak jasan zituzten zinegotziek bizi izan zuten injustiziari buruzko txostena (“Informe sobre la injusticia padecida por concejales que sufrieron amenazas en el marco de la existencia de ETA”) aurkeztea aurreikusten da.</p> <p>— Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua sustatzen jarraitzea, urteko lan-planarekin.</p> <p>— Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna ospatzea, terrorismoaren biktimekin batera ahalik eta batasun sozial eta politiko handiena bilatuz.</p> <p>— Guztiz argitu ez diren atentatuen (batez ere 60ko eta 70eko hamarkadetan) biktimentzat erantzun konpontzaile eta indibidualizatuak emateko proiektu zehatza garatzen jarraitzea.</p>
<p>•<b>Luzapena</b></p> <p>-Arrazoi politikoengatik indarkeriaren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzko 12/2016 Legea garatu (Eusko Legebiltzarrak 2016ko uztailaren 28an onartua).</p>	<p>— 12/2016 Legea garatzea eta aplikatzea, haren aldaketaren onarpena onarri hartuta, Espainiako Gobernuak sinatutako ezespren-akordioaren arabera.</p> <p>— 12/2016 Legearen babespean egon daitezkeen biktimei eskariak aurkezteko epea irekitzea.</p> <p>— Giza eskubideen urraketan kasu garrantzitsuak aztertzea, proiektu pilotu gisa, etorkizunean esku hartzeko lerroak prestatzeko.</p>

---

**·Berrikuntza**

-Batera konpromiso-agirian oinarrituta, biktimen eta gizartearen arteko batasuna bultzatzen duten jarduera-leerroak bultzatu, bai eta haren partaidetza etorkizunaren eta bizikidetzaren eraikuntzan ere.

— Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren baitan adostutako lan-agenda garatzea.

— Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzei buruzko politikaren orientazio berria finkatzea, biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatuz, etorkizuna eta bizikidetzaren eraikitzeari begira, eta aurretik elkarteei jakinaraztea horrek zein berrikuntza eragiten dituen.

— Biktima hezitzaileen lekukotzei buruzko Adi-adian proposamen hezitzaileak finkatzeko eta unibertsitateetara eta hezkuntza-eremu berrietara zabalatzeko lanekin jarraitzea.

---







# 2

● dokumentua



---

Euskadin gertatutako  
tortura eta tratu txarrak  
ikertzeko proiektua  
(1960-2014)



---

# Terrorismoaren biktimen **egia-eskubidea**

---

Carmen Ladrón de Guevara Pascual  
**Terrorismoaren Biktimen Elkarte**

**2018ko ekaina**

---

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren  
**enkarguz egina**

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetzeta  
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubiaren Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos





## **Aurkibidea**

### **I. Sarrera.**

1. Helburuak.
2. Egitura.
3. Metodologia.
4. Iturriak.
5. Egilea.

### **II. Aurrekariak.**

1. Ez dago datu ofizial bateraturik.
2. "Argitu gabeko kasuak" direlakoak.

### **III. Terrorismoaren biktimen egia-eskubidea.**

1. Kontzeptua eta edukia.
2. Justiziarik izan ez dutenez, ordain modura, terrorismoaren biktimek egia jakiteko eskubidea.

### **IV. Epaitegietan zer egin den, eta erakunde terroristak Euskal Autonomia Erkidegoan egin dituen eta heriotza eragin duten atentatuen harira.**

### **V. Terrorismoaren biktimen banakako azterketa**

### **VI. Ondorioak eta gomendioak.**

### **VII. Bibliografia.**

Eranskinak.

---

# I. Sarrera

---

## 1. Helburuak

Terrorismoaren biktimek egia jakiteko eskubidea dute. Horretan laguntzeko egin dugu lan hau, aitortzen baitugu eskubide hori justizia-eskubidearen funtsezko elementu bat dela eta zuzenbide-estatu orok daukala biktimei eskubide hori bermatu beharra, batez ere terrorismoaren biktimei.

ETAk egin dituen atentatu terroristen kontakizunik ahalik eta osatuena eskaini nahi diegu terrorismoaren biktimei, atentatu horiengatik baitira biktima. Lehen-lehenik, begiak aspaldiko kasuetan pausatuko ditugu bereziki, denboraren joana dela-eta ia ezinezkoa baita epai bidez halakoak ebaztea.

Horretarako, egia juridikoa, Auzitegi Nazionalak emandako epaietan bilduta datorrena -sortu zenez geroztik, 1977an, organo judizial horren ardura izan baita terrorismo-delituak epaitzea- nolabait osatu egin nahi dugu, hango eta hemengo argitalpenetan eta kazetaritzako informazioetan jasota dagoen egia historikoa baliatuz.

Lehen momentu honetan, eta abiapuntu modura, ETAk Euskal Autonomia Erkidegoan egin dituen eta nor edo noren heriotza eragin duten atentatu terroristak izango dira lan honen gai nagusia.

## 2. Egitura

Sarreraz, ondorioez, bibliografiaz eta eranskinez gainera, lan hau lau zatitan egituraturik dago, aztergaia jorratzeko erabilitako metodologiaren arabera.

Hasiera batean, funtsezkoa iruditu zaigu azterlan honen aitzinetik sortuak ziren aurrekarietatik abiatzea, argiago ulertzearen nondik datozen darabiltzagun datuak eta zergatik ulertzen ditugun ulertzen ditugun bezala. Funtsezkoa izan da orobat berariaz aipatzea ez dagoela datu ofizial bateraturik ETAk eraildako biktimen ginean, badela hor arazo bat azterlanaren erreferentzia-lagina zehaztu ahal izateko.

Bigarrenik, lana zedarrizteko marko teorikoa dakargu, abiapuntutzat hartuz biktimek egia jakiteko eskubidea dutela, eta eskubide autonomoa dela hori, estatuko erakundeek bermatu beharrekoa.

Hirugarren eta laugarren zatietan, atentatu horien harira Auzitegi Nazionalak burutu duen jarduera judiziala aztertu dugu; atentatuak, esan dugu zeintzuk diren: ETAk Euskal Autonomia Erkidegoan eginak eta nor edo nor hiltzea eragin dutenak. Denak batera harturik eta banan bana aztertu ditugu, terrorismoaren biktima ba-koitzeko profil bat osatuz.

Atal horretan, eta denboraren mugak behartuta, lehen ekinaldi honetan, adibide modura, hiru kasu baino ez ditugu ekarri, kasu guztiak hiru talde handitan sailkatu ditugulako, gaur egun zer informazio dagoen eta zer informazio eskura daitekeen gorabeheran.

Azkenik, ondorioetan, gomendio batzuk eskaini ditugu, haien haritik etorkizunean ere jarraipena emateko lan honen ikerketa-galari.

## 3. Metodologia

Lau fasetan egin dugu lan hau:

**1. fasea.** Zehaztea ea erreferentzia modura zer lagin hartuko dugun ETA erakunde terroristak eraildako biktimen artetik.

**2. Fasea.** Zehaztea zer den eta noraino iristen den “argitu gabeko kasu” kontzeptua; hots, egile materia- la kondenatu gabe dagoenean izango da kasua argitu gabea. Analisia terrorismo-biktimaka egin dugu, ez atentatuka (baliteke atentatu batean biktima bat baino gehiago egon izana).

**3. fasea.** Zehaztea ea, ETAk Euskal Autonomia Erkidegoan hil dituen biktima guztien artetik, zein atentatu- tako egile materialak ez dauden kondenaturik. Honela sailkatu ditugu:

- Amnistiatuak.
- Zati batean dago argiturik: edo badago epaia baina parte-hartzaile batzuen aurkakoa da, edo epaia absolutzioa izan da.
- Argitu gabe: ez dago epairik.

**4. fasea.** Kasu guztiak banan bana aztertu, eta terrorismo-biktima bakoitzeko profil bat taxutu dugu.

## 4. Iturriak

Lan hau egiteko, informazio-iturri hauek erabili ditugu:

- a) ETA erakunde terroristak zenbat biktima erail dituen zehazteko:
- 1) Terrorismoak erail dituen eta Barne Ministerioaren dirulaguntza jaso dutenen zerrenda<sup>1</sup>.
  - 2) Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak aitor-tutako biktimen zerrenda<sup>2</sup>.
  - 3) *Euskal kasuan 1960tik 2010era bizitza eskubidearen aurka izan diren urraketen argazkiak, herriz herri*, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak egina<sup>3</sup>.
  - 4) *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Rogelio Alonso, Florencio Domínguez eta Marcos Garciak idatzia<sup>4</sup>.
  - 5) *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*, Manuel Sánchez eta Manuela Simónek idatzia<sup>5</sup>.
  - 6) *Foronda txostena. Terrorismoaren eragina euskal gizartean*, Raúl López Romok egina<sup>6</sup>.
- b) Jakiteko auzitegietan zer egoeratan dauden ETAk Euskal Autonomia Erkidegoan egin dituen erail-keta-atentatu terroristak.
- 1) *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Rogelio Alonso, Florencio Domínguez eta Marcos Garciak idatzia.
  - 2) Auzitegi Nazionaleko zigor-arloko salak emandako epaiak<sup>7</sup>.
  - 3) Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren txostena. 2011n egin zuten, Terrorismoaren Biktimen Fundazioak eskatuta, ETAk 1960 eta 2010 bitartean eraildako 349 biktimaren zerrenda batean oinarriturik. 2017ko otsailean eguneraturik dago.
  - 4) Auzitegi Nazionaleko lehendakaritzaren txostena, 2011n egina: *Balance Provisional sobre la información solicitada por las víctimas de ETA en relación con 349 atentados cometidos por la referida banda terrorista*.
  - 5) *Agujeros del Sistema: más de 300 asesinatos de ETA sin resolver*, Juanfer Calderínek idatzia<sup>8</sup>.

1 Barne Ministerioaren web orria: [http://www.interior.gob.es/documents/10180/1210621/fallecidos\\_terrorismo\\_indemnizados\\_02\\_01\\_2015.pdf/8e8df51d-947b-462a-a6d8-130e3f4d7f79](http://www.interior.gob.es/documents/10180/1210621/fallecidos_terrorismo_indemnizados_02_01_2015.pdf/8e8df51d-947b-462a-a6d8-130e3f4d7f79)

2 Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren web bilatzailea: <http://www.euskadi.eus/web01-apvictim/es/o11aConsultaWar/victima?locale=es>

3 EUSKO JAURLARITZAKO GIZA ESKUBIDE, BIZIKIDETZA ETA LANKIDETZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA: Udal Erretratuak: Euskal kasuan bizitza eskubidearen aurka 1960tik 2010era izan diren urraketen argazkiak, herriz herri, (bigarren argitalpena) 2016ko azaroa, <http://www.euskadi.eus/retratos-municipales/web01-s1lehbak/es/>

4 ALONSO, R/DOMÍNGUEZ, F/GARCÍA REY, M: *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa Calpe, Madril, 2010.

5 SÁNCHEZ, M/SIMÓN, M: *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*, Volúmenes I y II, Ediciones Península, Bartzelona, 2017.

6 LÓPEZ ROMO, R: *Foronda txostena. Terrorismoaren eragina euskal gizartean*, Valentín de Foronda Gizarte Historiarako Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea. Catarata argitaletxea, Madril, 2015.

7 II. eranskinean dago kontsultatutako epaien zerrenda.

8 CALDERÍN, J: *Agujeros del sistema: más de 300 asesinatos de ETA sin resolver*, Ed. Ikusager Ediciones, Vitoria-Gasteiz, 2015.

- 
- 6) Asociación Dignidad y Justicia zerrrenda, La Razón egunkarian argitaratua: *Los 377 crímenes sin esclarecer de ETA llegan a las Naciones Unidas*<sup>9</sup>.
- 7) *1960tik 2014ra erakunde terroristek egin zituzten heriotza-ataentatuen egoera prozesalari buruzko txostena. Euskal Kasua*. Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatuta egina<sup>10</sup>.
- 8) Auzitegi Nazionalaren memoriak<sup>11</sup>.
- c) Terrorismo-biktimen bana-banako azterketa egiteko.
- 1) Iturburu irekiak
    - Zenbait komunikabideetako hemerrotekak: ABC, EL PAÍS, Fundación Centro Memorial de Víctimas del Terrorismo.
  - 2) Argitalpenak
    - *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Rogelio Alonso, Florencio Domínguez eta Marcos García idatzia.
    - *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA*, Manuel Sánchez eta Manuel Simónek idatzia.
  - 3) Txostenak
    - *Euskal kasuan 1960tik 2010era bitartean bizi-eskubidearen aurka izandako urreketen argazkiak, herriz herri*, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak egina.
    - Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren txostena. 2011n egin zuten, Terrorismoaren Biktimen Fundazioak eskatuta, ETAk 1960 eta 2010 bitartean eraildako 349 biktimaren zerrrenda batean oinarriturik. 2017ko otsailean eguneraturik dago.
    - Auzitegi Nazionaleko lehendakartzaren txostena, 2011n egina: *Balance Provisional sobre la información solicitada por las víctimas de ETA en relación con 349 atentados cometidos por la referida banda terrorista*.
  - 4) Auzitegi Nazionalaren epaiak.

## 5. Egileak

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzak eskatu zion lan hau Terrorismoaren Biktimen Elkarteari, eta hark bere atal juridikoko kideetako bati agindu zion: Carmen Ladrón de Guevara Pascual andreari.

Duela hamar urte baino gehiagotik Auzitegi Nazionalan dihardu terrorismo-kasuetan letratu, eta, hori dela-eta, pentsatu genuen ederto ezagutzen dituela epaiak eta baita ETA erakunde terroristaren funtzionamendua ere. Horregatik aukeratu genuen Carmen Ladrón de Guevara andrea lan hori egiteko. Gainera, Terrorismoaren Biktimen Elkarteko atal juridikoko kide ere bada 2011ko urtarriletik, eta begiramen berezia du biktimizekiko.

Carmen Ladrón de Guevara Zuzenbideko eta Enpresen Zuzendaritza eta Administraziozko lizentziatua da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Zuzenbideko doktorea. Terrorismoa aztertzeke eta prebenitzeko masterra, Madrilgo Juan Carlos Erregea Unibertsitatean. Eta, 2008tik, Madrilgo Abokatu Elkargoko kidea.

---

9 VELASCO, F: *Los 377 crímenes sin esclarecer de ETA llegan a las Naciones Unidas*, La Razón egunkarian argitaratu zen 2015eko martxoaren 30ean.

10 FONSECA, C: *1960tik 2014ra erakunde terroristek egin zituzten heriotza-ataentatuen egoera prozesalari buruzko txostena. Euskal Kasua*. Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatuta egina, 2014ko abenduan.

11 AUZITEGI NAZIONALAREN MEMORIAK: 2012, 2013, 2014, 2015 eta 2016.

## II. Aurrekariak

Lan hau egiten hasi baino lehen, ezinbestekoa izan da aurretiaz kontzeptu batzuk argi uztea, jakitearren zein diren erreferentziako lagina eta zein interpretazio-irizpideak.

Horretarako, aurretiaz, beste bi gauza zehaztu behar izan ditugu: alde batetik, ETAk eraildako biktima guztietatik, zenbat ditugun oraingo honetan aztergai; eta, bestetik, zer izango den “argitu gabeko kasua”.

### 1. Ez dago datu ofizial bateraturik

Terrorismo-biktimekin zerikusia duten erakunde publiko guztiak ez datoz bat zenbat ote diren ETAk eraildako biktimak, eta derrigorra gertatzen da, hortaz, aurretiaz gai horri heltzea.

Kontua da batzuek eta besteek irizpide ezberdinak erabiltzen dituztela ekintza terrorista bat nor edo nori egozteko orduan, eta funtsean horregatik gertatzen dira bat ez etortze horiek. Egia da gaur egun kopuru orokorra ematen dela –aukera hori egin baita– administrazioak zenbat terrorismo-biktima aitortzen dituen adierazteko, talde terroristak desberdindu gabe; baina, lan hau egiteko, ezinbestekoa zen aurretik zehaztutako zerrenda batetik abiatzea.

Horretarako, oinarri modura, bai Barne Ministerioak bai Eusko Jaurlaritzak aitorturik dituzten biktima-zerrendak erabili ditugu, eta, gero, erkatu ditugu, alde batetik, gai honetan aitortpen ezaguna duten argitalpen batzuekin: liburuok: *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA* eta *Historia de un desafío. Cinco décadas de lucha sin cuartel de la Guardia Civil contra ETA* (lehen ere aipatu ditugu), eta *Foronda Txostena.. Terrorismoaren eragina euskal gizartearen; eta, beste alde batetik, Auzitegi Nazionaletik ebazpen judizialen bitartez lortutako datuekin (autoak eta epaiak).*

Azkenean, zerrenda horietako hirutan gutxienez hala aitortuta daudenak hartu ditugu ETAREN hil-biktimatzat.

Horrenbestez, azterlan hau egiteko erreferentzia-lagina 853 biktimiek osatzen dute, guztiak ere ETA erakunde terroristak erailak. Zerrenda I. eranskinean dago erantsita.

### 2. “Argitu gabeko kasuak” direlakoak

Asko idatzi da gai honen gainean. Eman dira bai kopuruak, baina haien jatorria azaldu gabe, eta iruditu zaiagu saiatu behar dugula aurretiaz argitzen zer diren “argitu gabeko kasuak”.

2011ko abenduan, Terrorismoaren Biktimen Fundazioak argitaratu zuen ETAREN hil-atentatuen artetik 300 baino gehiago egongo liritekeela argitu gabe<sup>12</sup>. Kopuru horretara iritsi ziren barne-lan baten ondorioetan. Azterlan hau sinatzen duen honek egin zuen lan hura fundazioaren eskariz; gaia: *“Investigación y elaboración de archivo sobre atentados terroristas de ETA con resultado de muerte”*.

Xehetasun handiegietan hasteko asmorik gabe, azal dezagun, labur-labur, nondik datozen kopuru hori eta hartara iristeko irizpideak.

Lehenik eta behin, Ángel Juanes Peces Auzitegi Nazionalako lehendakariarekin bilera bat egin ondoren, lehen zerrenda bat osatu zen. Zerrenda hartan, antolakunde terroristak egindako atentatu guztietatik, nor edo nor hiltzea eragin eta egile materiala kondenatu gabe dituztenak bildu ziren. Zerrenda hura hobeto osatuta utzi genuen, *Vidas Rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA* liburutik ateratako informazioa erabiliz eta Auzitegi Nazionalan ETA erakunde terroristaren zenbait kideei egindako epaiketen inguruan kaleratutako informazioa erabiliz. Guztira, 349 hildako agertzen ziren, 270 prozedura penaletan batuta.

Lehen zerrenda hura fiskaltzara eta Auzitegi Nazionalako lehendakaritzara igorri genuen, zekarren informazioa egiaztatu zezaten eta “ofizialtasuna” eman ziezaioten.

2011ko abenduaren 13an, eta lehen zerrenda hari erantzutearren, Auzitegi Nazionalako Fiskaltzak txosten bat entregatu zuen. Txosten hartan, hasierako zerrendako 349 kasuetako bakoitzari buruzko informazioa zetozen.

12 CEBERIO, M: *314 asesinatos de ETA sin condena*, El País-en argitaratua 2011-12-28.

---

Aztertu genuen Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren erantzuna, eta hasierako txostena hobeto osatzeko baliatu ere bai. Txostenaren ondorio nagusiak Madrilen aurkeztu genituen, 2011ko abenduaren 27an. Ondorioek zioten ETAren gutxienez 314 erailketaren egileak kondenaturik gabe zeudela; 314 erailketa doako antolokunde terroristarentzat, su egiteko edo lehergailua ezandarazteko arduradunak kondenatu gabe baitzeuden. Kopuru horretara iristeko, zenbaketatik kanpora geratu ziren 1977ko<sup>13</sup> Amnistia Legearen onurapean ziren atentatuak; eta zenbaketa barruan, berriz, sopikunen edo eragileen aurkako epaiak –ez egilearen aurkakoak alegia–, edo absoluziozkoak. Horregatik hain zuzen ere, kopuru horrek ez ditu “argitu gabeko kasuak” adierazten, balitekeelako kasu bakar batean biktima bat baino gehiago egotea. Alegia, erailketa-kopuru bat da, ETAk egin ditu, eta egile materiala kondenatu gabe dago, horixe.

Txosten haren ondotik, 2012ko uztailean, Auzitegi Nazionaleko Lehendakariak beste erantzun bat bidali zigun, eta, horrela, arian-arian, hasierako kopuru hura hobeto osatzeko eta doitzeko aukera izan genuen.

Garrantzitsua da adieraztea harrez geroztik Auzitegi Nazionaleko bai Fiskaltza bai Lehendakaritza (zehatz-mehatz Terrorismo Biktimen Arretarako Bulegoa) saiatu direla prozedurak aurkitzen (bulegoa ibili da horretan) eta kasuak berriro irekitzen eta kasu horiek argitzeko ikerketa-diligentziak egiten (Fiskaltza). Hala, bada, txostenak eguneratu egin dira eta kopurua mehetu. Eta, horregatik, ezinezkoa da kopuru itxi eta estatikorik ematea “argitu gabeko kasuetarako”, etengabe ari baita aldatzen zenbatekoa.

Behin puntu horiek argiturik, lan honek pausu bat haratago eraman nahi du gai honen lanketa, hau da, eskaintzen ditugun datuak Auzitegi Nazionalak berak emandako ebazpen judizialeetatik erauzita daude, baina, gainera, beste informazio-iturri batzuk ere erabili ditugu haiek biribiltzeko.

---

13 46/1977 Legea, urriaren 15ekoa, Amnistiakoa.

## III. Terrorismoaren biktimen egia-eskubidea

### 1. Kontzeptua eta edukia

Begira dezagun *Terrorismoaren Biktimen Eskubideen Gutunean*<sup>14</sup>, eta ikus dezagun zer esan nahi dugun egia jakiteko eskubideaz dihardugunean: “eskubide autonomoa eta besterenduezina da; alegia, estatuak giza eskubideak babestu eta bermatu behar ditu, ikerketa eraginkorrak egin behar ditu eta baliabide eraginkorrak egon daitezen eta ordaina lor dadin zaindu behar du, obligazio eta ardura hori du, eta eskubide hau hartara lotua dago”<sup>15</sup>. Eskubide hau beste eskubide batzuetara estu-estu oratuta dago, eta baditu alderdi batzuk banakakoak eta beste batzuk kolektiboak. Gainera, ez du denboran eteterik onartzen eta ezin du inolako murrizketaren pean egon.

Eskubidearen izatea bera Nazioarteko Zuzenbideak ziurtatzen du, eta nazioarteko jurisprudentziak ere aitortua du, bai giza eskubideen nazioarteko auzitegietatik eratorriak (GEEA, Giza Eskubideen Ameriketako Gortea) bai giza eskubideak kontrolatzeko nazioarteko erakundeetatik eratorriak (adibidez, NBEko Giza Eskubideen Batzordea).

Egia jakiteko eskubidea edukitzeak esan nahi du biktimek eta zuzeneko senitartekoez eskubidea dutela oso-osorik ezagutzeko gertatu diren egintzak, biktima bihurtu dituztenak alegia, eta egintzetan norke parte hartu zuen, eta gorabehera zehatzak “-bereziki, gertatu diren urraketenak-, eta motibazioa”<sup>16</sup>.

Bigarren maila batean, eskubide iraungiezina da, “eskubidea, urraketen inguruabarrei buruz egia jakiteko, eta, inor hil edo desagertarazi bazuten, biktimari zer gertatu zitzaion jakiteko”<sup>17</sup>.

Eta, azkenik, eskubide honek, oinarritz, funts juridiko luze-zabala du nazioartean, nazioarteko era askotako hainbat arautatik abiatuz eraikia (ohiturazkoak, erakundeetakoak eta ohikoak), nazioarteko jurisprudentziak ere argi utzi duenez.

### 2. Terrorismoaren biktimek egia jakiteko eskubidea dute. Justiziarik izan ez dutenez, ordain modura har daiteke

ETAk hamarkadetan zehar aurrera eraman duen jarduera terroristari dagokionez, terrorismo-biktimen ehu-neko handi batek ez du ordainik jaso justizia efektiboaren eskuetatik. Baina, legez ezinezkoa izan arren terrorismo-biktima batzuei justizia eskaintzea (adibidez, denborak aurrera egin duela-eta erantzukizun penala iraungita geratu delako), egia jakiteko eskubidearen ikuspuntutik, terrorismo-biktimei aukera eman behar diegu osorik eta ahalik eta xehenen ezagutu ditzaten biktima bihurtu zituen dena delako atentatu terroristaren inguruko gorabeherak, eta norke parte hartu zuen, eta egin ziren urraketen inguruko gorabehera zehatzak eta motibazioa.

Hori dela-eta, lan honen bitartez, terrorismo-biktimei bi gauza eskaini nahi dizkiegu: alde batetik, ahalik eta modurik osatuenean jakin dezatela zer gertatu zen biktima bihurtu zituen atentatuaren inguruan; eta, bestetik, Ignacio Subijana Zunzunegui Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko lehendakariaren hitzak ekarriz: “*Una declaración pública de reproche por el injusto causado, afirmando que el daño no viene motivado por el azar o por culpa de terceros o de la propia víctima, sino única y exclusivamente por un comportamiento antijurídico del victimario*”<sup>18</sup>.

14 TERRORISMOAREN BIKTIMEN ELKARTEEN SARE EUROPARRA (NAV): Terrorismoaren biktimen eskubideen gutuna, Turinen aurkeztua 2009ko maiatzean.

15 NBE, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, Giza Eskubideen Batzordea, *Egia jakiteko eskubideari buruzko azterlana. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Txostena*. 2006ko urtarrilaren 9a (E/CN.4/2006/91).

16 *Ibid.*, 3. orria.

17 *Giza eskubideak babesteko eta sustatzeko printzipio eguneratuen sorta, zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko*: 4. printzipioa (E/CN.4/2005/102/Add. 1, 3. eta s orriak).

18 SUBIJANA ZUNZUNEGUI, I: “LA JUSTICIA A LAS VÍCTIMAS DEL TERRORISMO. Una exégesis de la prescripción compatible con el relato de las víctimas”, EGUZKILORE aldizkaria, 23. zenbakia, Donostia, 2009ko abendua, 79 – 86 orrialdeak.

---

## IV. Epaitegietan zer egin den, eta erakunde terroristak Euskal Autonomia Erkidegoan egin dituen eta heriotza eragin duten atentatuen harira

---

Ezertan hasi baino lehen, argitu dezagun ETAk eraildako 853 biktimetatik, aztertu dugun laginetik alegia, 572 Euskal Autonomia Erkidegoan zituela erail.

**1. taula:** ETAk zenbat pertsona erail dituen Euskal Autonomia Erkidegoan

	BIKTIMEN KOPURUA
GIPUZKOA	316
BIZKAIA	212
ARABA	44
<b>GUZTIRA</b>	<b>572</b>

### 1. ETAk 1977ko urriaren 16a baino lehenago egindako atentatuak

ETAk aurrera eraman duen jarduera kriminala dela-eta gure justizia-auzitegiek egin duten lanari dagokionez, garbi-garbi bi garai bereizi behar ditugu: 1977an Auzitegi Nazionala sortu aurrekoa eta ondokoa.

Ordura arte, jurisdikzio militarri zegokion terrorismo-delituaz arduratzea eta haiek epaitzea. Baina, 1977an, hiru errege-lege-dekretu bidez, indarrak gabe geratu zen Ordena Publikoko eta Diru Delituetakoko Auzitegia, terrorismo-gaietako eskumenak jurisdikzio arruntaren eskuetan geratu ziren, eta Auzitegi Nazionala sortu zen jurisdikzio arruntaren barruko erakunde modura. Horrenbestez, horrelako delituaz arduratzeko eta haiek epaitzeko eskumena jurisdikzio militarretik jurisdikzio arruntera igaro zen.

Derrigorra da, hortaz, lehen bloke bat bereizita uztea, hau da, multzo honetan, ez dakigu egilea nor den eta ikerketa eta epaitze-lana -halakorik izan bada- ez da Auzitegi Nazionalaren ardura izan, baizik eta auzitegi militarrena edo Ordena Publikoko Auzitegiarena. 1977an, gainera, Amnistia Legea onartu zen<sup>19</sup>, bai terrorismo-delituengatik kondenaturik zeudenentzat bai justiziarekin kausaren bat kitatzeke zeukatenentzat ere, eta ez da erraza gertatzen, oso zaila da, kasu horiei dagozkien espediente judizialak kontsultatzea, artxibategi bat baino gehiagotan banaturik baitaude.

Terrorismoaren Biktimen Fundazioak, 2011n, ETAREN oraindik argitu gabeko 349 erailketaren zerrenda bidali zuen. Haren ondotik, eta terrorismo-biktimentzako arreta hobetzeko lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu ondoren Botere Judizialaren Kontseiluak eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak, Auzitegi Nazionalako Biktimen Arretarako Bulegoak lanari heldu zion: ETA talde terroristak ekinean hasi zenez geroztik 1977ra arte egin zituen terrorismo-delituen sumarioen bila hasi zen, urte hartan sortu baitzen Auzitegi Nazionala. Gaitza lantegia. Hasi ziren, bada, sumario haien bila, Madrilgo eta Burgosko Gobernu Militarrean, A Coruñaiko Laugarren Lurralde Auzitegi Militarreko artxiboetan eta Ferrolgo Ipar Mendebaldeko Bitarteko Artxibo Militarrean. Eta han beharko bila hasi, esana dugun moduan 1977ra arte auzitegi militarrek baitzeukaten terrorismo-delituaz arduratzeko eta haiek epaitzeko eskumena. Edonola ere, beste bilaketa-ahalegin batzuk ere egin ziren Salamancako Artxibo Historikoan, Salamancako Probintzia Artxibo Historikoan eta Madrilgo Probintzia Auzitegian.

---

<sup>19</sup> 46/1977 Legea, urriaren 15ekoa, Amnistiakoa.



## 2. ETAk 1977ko urriaren 16a baino beranduago egindako atentatuak

### a) Epaitegietan zati batean argitutako kasuak

Multzo honetan dauden kasuak Auzitegi Nazionalak ikertu eta epaitu ditu, ez da egon egile materiala kondentatzeko epairik, baina bai atentatuan parte hartu duten beste batzuen aurkakoa (sopikunak, ezkutatzaileak, bultzatzaileak eta abar) edo absolutzio-epaia egon da.

Bigarren multzo honetan, eman diren epai gehienak aztertu ditugu, baina, Datuak Babesteko Legea dela-eta, ezinezkoa da haien zuzeneko aipamenik egitea, eta beste informazio-iturri ireki batzuk beharko dira erabili haiek aipatzeko.

### b) Argitu gabeko kasuak

Hirugarren multzo honetan daude gainerako kasuak, hau da, kasu hauetan, ez dugu ezaguerarik inolako epairik egon denik. Gehienak artxibatuta daude, egileak eta parte-hartzaileak identifikatu ezinik.

Hirugarren multzo honetan bildu ditugun beste batzuk, berriz, 2011n gai hau publiko egin ondoren atzera berriz ireki direnak dira, baina diligentziak noiz egingo zain daude (gehienetan, ETAk 90eko urteez geroztik egindako atentatuak dira, nahiz eta baden 80ko salbuespenen bat ere). Eta, beste batzuetan, denboraren joana dela-eta ezinezkoa izango da argitzea, egileen erantzukizun penala iraungita egongo baita.

Kasu horietan izan ditugu zailtasunik handienak egilea nor izan ote zen jakiteko informazioen bat inguratze-ko. Ikusi egin behar beste inolako informazio-iturritara iristen ote garen; esate baterako, epaitegiko sumarioa bera edo polizia-txostenak.

Bereziki aipatu beharrekoak dira epaitegiko espedientea espurgaturik daukaten kasuak, halakoetan ezinezkoa baita haiek aurkitzea eta aztertzea.

**2. taula:** ETAk Euskal Autonomia Erkidegoan erail dituen biktimen artetik, zenbatetan ez den egilea kondentatu.

	AMNISTIATUAK	ZATI BATEAN ARGITUAK	ARGITU GABEAK	EGILEA AURKITU EZ
GIPUZKOA	32	29	93	122
BIZKAIA	11	32	77	109
ARABA	0	5	16	21
<b>GUZTIRA</b>	<b>43</b>	<b>66</b>	<b>186</b>	<b>252</b>

**3. taula:** ETAk Euskal Autonomia Erkidegoan erail dituen biktimen artetik, kondenatu ez direnak

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
José Antonio Pardines Arcay	68/7/7	Villabona	Amnistiatur
Melitón Manzananas González	68/8/2	Irun	Amnistiatur
Fermín Monasterio Pérez	69/4/9	Arrigorriaga	Amnistiatur
Eloy García Cambra	72/8/29	Galdakao	Amnistiatur
Gregorio Posada Zurrón	74/4/3	Azpeitia	Amnistiatur
Manuel Pérez Vázquez	74/6/3	Ataun	Amnistiatur
Martín Durán Grande	74/9/11	Bilbao	Amnistiatur
Jerónimo Vera García	74/10/29	Pasaia	Amnistiatur
Argimiro García Estévez	74/12/17	Arrasate-Mondragón	Amnistiatur
Luis Santos Hernández	74/12/17	Arrasate-Mondragón	Amnistiatur
José Díaz Linares	75/3/29	Donostia / San Sebastián	Amnistiatur
José Ramón Morán González	75/4/22	Getxo	Amnistiatur
Andrés Segovia Peralta	75/5/6	Gernika	Amnistiatur
Fernando Llorente Roiz	75/5/7	Bilbao	Amnistiatur
Domingo Sánchez Muñoz	75/5/14	Gernika	Amnistiatur
Mariano Román Madroñal	75/6/5	Donostia / San Sebastián	Amnistiatur
Carlos Arguimberri Elorriaga	75/7/7	Deba	Amnistiatur
Francisco Expósito Camio	75/7/31	Usurbil	Amnistiatur
Demetrio Lesmes Martín	75/8/8	Hernani	Amnistiatur
Esteban Maldonado Llorente	75/10/5	Arantzazu (Oñati)	Amnistiatur
Jesús Pascual Martín Lozano	75/10/5	Arantzazu (Oñati)	Amnistiatur
Juan Moreno Chamorro	75/10/5	Arantzazu (Oñati)	Amnistiatur
Manuel López Treviño	75/10/18	Zarautz	Amnistiatur
Antonio Echeverría Albisu	75/10/24	Oiartzun	Amnistiatur
Manuel Vergara Jiménez	76/1/17	Ordizia	Amnistiatur
Victor Legorburu Ibarreche	76/2/9	Galdakao	Amnistiatur
Julián Galarza Ayastuy	76/2/10	Zizurkil	Amnistiatur
Emilio Guezala Aramburu	76/3/1	Lezo	Amnistiatur

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Manuel Albizu Idiáquez	76/3/13	Getaria	Amnistiatur
Ángel Berazadi Uribe	76/3/18	Donostia / San Sebastián	Amnistiatur
Vicente Soria Blasco	76/3/30	Soraluze	Amnistiatur
Miguel Gordo García	76/4/11	Barakaldo	Amnistiatur
Antonio de Frutos Sualdea	76/5/3	Legazpi	Amnistiatur
Luis Carlos Albo Llamosas	76/6/9	Basauri	Amnistiatur
Juan María de Araluce Villar	76/10/4	Donostia / San Sebastián	Amnistiatur
José María Elícegui Díaz	76/10/4	Donostia / San Sebastián	Amnistiatur
Alfredo García González	76/10/4	Donostia / San Sebastián	Amnistiatur
Antonio Palomo Pérez	76/10/4	Donostia / San Sebastián	Amnistiatur
Luis Francisco Sanz Flores	76/10/4	Donostia / San Sebastián	Amnistiatur
Constantino Gómez Barcia	77/3/13	Arrasate-Mondragón	Amnistiatur
Antonio Galán Aceituno	77/4/29	Tolosa	Amnistiatur
Manuel Orcera de la Cruz	77/5/18	Donostia / San Sebastián	Amnistiatur
Javier de Ybarra y Bergé	77/5/20	Alto Barazar	Amnistiatur
Valentín Godoy Cerezo	77/6/26	Vitoria-Gasteiz	Ez
Antonio Hernández Fernández-Segura	77/10/8	Gernika-Lumo	Zati batean
Ángel Rivera Navarrón	77/10/8	Gernika-Lumo	Zati batean
Augusto Guillermo Unceta Barrenechea	77/10/8	Gernika-Lumo	Zati batean
José Díaz Fernández	77/11/2	Irun	Ez
Manuel Lemus Noya	78/2/24	Santurtzi	Zati batean
Joaquín Ramos Gómez	78/3/5	Vitoria-Gasteiz	Ez
Miguel Raya Aguilar	78/3/5	Vitoria-Gasteiz	Ez
José Vicente del Val del Río	78/3/5	Vitoria-Gasteiz	Ez
José María Acedo Panizo	78/3/10	Aduna	Ez
Esteban Beldarrain Madariaga	78/3/16	Galdakao	Zati batean

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Martín Merquelán Sarriegui	78/5/23	Oiartzun	Ez
José María Portell Manso	78/6/28	Portugalete	Espurgatua
José Javier Jaúregui Bernaola	78/7/8	Lemoa	Ez
Alfonso Estevas-Gilmain Muñoz	78/8/28	Hondarribia	Ez
Aurelio Salgueiro López	78/8/28	Arrasate-Mondragón	Ez
José Antonio Ferreiro González	78/9/23	Vitoria-Gasteiz	Zati batean
Francisco de Asís Liesa Morote	78/10/3	Bilbao	Ez
Anselmo Durán Vidal	78/10/9	Elgoibar	Ez
Ángel Pacheco Pata	78/10/9	Markina	Ez
José Benito Díaz García	78/10/13	Bilbao	Ez
Elías García González	78/10/13	Bilbao	Ez
Ramón Muiño Fernández	78/10/13	Bilbao	Ez
Alberto Villena Castillo	78/10/14	Lekeitio	Ez
Luis Carlos Gancedo Ron	78/10/22	Getxo	Ez
Luciano Mata Corral	78/10/22	Getxo	Ez
Andrés Silverio Martín	78/10/22	Getxo	Ez
Epifanio Benito Vidal Vazquez	78/10/25	Durango	Ez
Rafael Reaola Landa	78/11/2	Lezo	Ez
Luis Candendo Pérez	78/11/9	Antzuola	Ez
José Benito Sánchez Sánchez	78/11/20	Basauri	Zati batean
Benjamín Sancho Legido	78/11/20	Basauri	Zati batean
Elías Elexpe Astondoa	78/11/26	Amorebieta-Etxano	Ez
Heliodoro Arriaga Ciaurri	78/11/27	Villabona	Zati batean
Alejandro Hernández Cuesta	78/11/30	Irun	Ez
Vicente Rubio Ereño	78/12/9	Santurtzi	Ez
Saturnino Sota Argai	78/12/13	Vitoria-Gasteiz	Zati batean
Joaquín María Azaola Martínez	78/12/19	Getxo	Ez
José Luis Vicente Cantón	78/12/31	Laudio/Llodio	Ez
Ciriaco Sanz García	79/1/5	Laudio/Llodio	Zati batean
Hortensia González Ruiz	79/1/6	Beasain	Ez

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Antonio Ramírez Gallardo	79/1/6	Beasain	Ez
José Díez Pérez	79/2/3	Andoain	Ez
Vicente Irusta Altamira	79/2/8	Ibarruri (Muxika)	Ez
Sergio Borrajo Palacín	79/2/14	Vitoria-Gasteiz	Ez
Benito Arroyo Gutiérrez	79/2/23	Alto de Itziar	Ez
Miguel Chávarri Isasi	79/3/9	Beasain	Ez
José María Maderal Oleaga	79/3/16	Bilbao	Espurgatua
Adolfo Mariñas Vence	79/4/6	Tolosa	Ez
Miguel Orenes Guillamont	79/4/7	San Sebastián	Ez
Juan Bautista Peralta Montoya	79/4/7	Donostia / San Sebastián	Ez
José Miguel Maestre Rodríguez	79/5/2	Ordizia	Ez
Antonio Peña Solís	79/5/2	Ordizia	Ez
Andrés Antonio Varela Rúa	79/6/7	Tolosa	Ez
Ángel Baños Espada	79/6/13	Lemoiz	Ez
Héctor Abraham Muñoz Espinoza	79/6/19	Irun	Ez
Francisco Medina Albala	79/6/22	Donostia / San Sebastián	Ez
Diego Alfaro Orihuela	79/6/22	Donostia / San Sebastián	Espurgatua
Jesús María Colomo Rodríguez	79/7/21	Beasain	Ez
Emilio López de la Peña	79/7/28	Bilbao	Ez
Miguel Ángel Saro Pérez	79/7/28	Bilbao	Ez
Moisés Cordero López	79/7/28	Donostia / San Sebastián	Ez
Antonio Pastor Martín	79/7/28	Donostia / San Sebastián	Ez
Juan José Tauste Sánchez	79/8/4	Eibar	Ez
Antonio Nieves Cañuelo	79/8/8	Loiu	Ez
Manuel Ferreira Simois	79/8/13	Portugalete	Ez
José María Pérez Rodríguez	79/8/30	Zumarraga	Ez
Aureliano Calvo Val	79/8/30	Donostia / San Sebastián	Ez
Modesto Carriegas Pérez	79/9/13	Barakaldo	Ez

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Julián Ezquerro Serrano	79/9/19	Bilbao	Ez
Aurelio Pérez-Zamora Cámara	79/9/19	Bilbao	Ez
Lorenzo González-Vallés Sánchez	79/9/23	Donostia / San Sebastián	Zati batean
Sixto Holgado Agudo	79/9/26	Errenteria	Ez
Luis María Uriarte Alza	79/9/29	Lemoa	Espurgatua
Pedro Goiri Rovira	79/9/30	Getxo	Espurgatua
Antonio Mesa Portillo	79/10/11	Getxo	Ez
Manuel Fuentes Fontán	79/10/31	Portugalete	Espurgatua
Fernando Rodríguez Espínola	79/11/12	Oiartzun	Ez
Jesús García García	80/1/5	Barakaldo	Zati batean
Jesús Ignacio Velasco Zuazola	80/1/10	Vitoria-Gasteiz	Zati batean
Francisco Moya Jiménez	80/1/14	Elorrio	Zati batean
José Miguel Palacios Domínguez	80/1/19	Getxo	Ez
Alfredo Ramos Vázquez	80/1/23	Barakaldo	Zati batean
Juan Manuel Román Moreno	80/1/27	Basauri	Ez
Alfredo Díez Marcos	80/2/1	Ispaster	Zati batean
José Gómez Martiñán	80/2/1	Ispaster	Zati batean
José Gómez Trillo	80/2/1	Ispaster	Zati batean
Antonio Marín Gamero	80/2/1	Ispaster	Zati batean
José Martínez Pérez-Castillo	80/2/1	Ispaster	Zati batean
Victoriano Villamor González	80/2/1	Ispaster	Zati batean
Miguel Rodríguez Fuentes	80/2/8	Pasaia	Ez
Enrique Aresti Urien	80/3/25	Bilbao	Ez
Francisco Pascual Andreu	80/4/6	Orio	Ez
Florentino Lopetegui Barjacoba	80/4/6	Orio	Ez
Luis Martos García	80/4/16	Irun	Zati batean
José Torralba López	80/4/16	Irun	Zati batean
Rufino Muñoz Alcalde	80/4/28	Errenteria	Ez
José Espinosa Viscarret	80/5/8	Pasaia	Ez
Antonio Moreno Núñez	80/5/9	Santurtzi	Ez

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Jesús Holgado Sabio	80/5/15	Donostia / San Sebastián	Ez
José Manuel Rodríguez Fontana	80/5/15	Donostia / San Sebastián	Ez
Dionisio Villadangos Calvo	80/5/15	Donostia / San Sebastián	Ez
Tomás Sulibarria Goitia	80/6/3	Bilbao	Ez
José Pablo García Lorenzo	80/6/19	Amorebieta-Etxano	Ez
Julio Santiago Expósito Pascual	80/6/20	Sestao	Ez
Luis María Hergueta Guinea	80/6/25	Vitoria	Ez
Joaquín Becerra Calvente	80/7/2	Amurrio	Ez
Antonio Gómez Ramos	80/7/13	Orio	Zati batean
Aurelio Navío Navío	80/7/13	Orio	Zati batean
Mario González Blasco	80/8/2	Eibar	Ez
Jesús María Echeveste Toledo	80/8/28	Irun	Ez
Antonio Fernández Guzmán	80/9/3	Santurtzi	Ez
Basilio Altuna Fernández de Arroyabe	80/9/6	Erentxun	Ez
José María Urquizu Goyoaga	80/9/13	Durango	Ez
José Ignacio Ustarán Ramírez	80/9/29	Vitoria-Gasteiz	Ez
Benito Morales Fabián	80/10/2	Errenteria	Ez
Sergio Canal Canal	80/10/3	Durango	Zati batean
Jesús Hernando Ortega	80/10/3	Durango	Zati batean
José Antonio Merenciano Ruíz	80/10/3	Durango	Zati batean
Carlos García Fernández	80/10/7	Eibar	Zati batean
Juan Manuel García Cordero	80/10/23	Donostia / San Sebastián	Zati batean
Juan Carlos Fernández Azpiazu	80/10/29	Donostia / San Sebastián	Zati batean
Juan de Dios Doval Mateos	80/10/31	Donostia / San Sebastián	Zati batean
Miguel Zunzunegui Arratibel	80/11/12	Ataun	Zati batean
Vicente Zorita Alonso	80/11/14	Santurtzi	Ez
Aurelio Prieto Prieto	80/11/21	Tolosa	Ez

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Antonio Díaz García	81/1/5	Errenteria	Ez
Vicente Sánchez Vicente	81/4/8	Barakaldo	Ez
Francisco Francés Garzón	81/4/9	Bilbao	Ez
José María Félix Latiegui Balmaseda	81/4/14	Usurbil	Zati batean
Esteban Álvarez Merayo	81/6/5	Donostia / San Sebastián	Ez
María José García Sánchez	81/6/16	Zarautz	Zati batean
Ignacio Ibarguchi Erostarbe	81/6/24	Tolosa	Zati batean
Juan Manuel Martínez Castaños	81/6/24	Tolosa	Zati batean
Pedro Conrado Martínez Castaños	81/6/24	Tolosa	Zati batean
Antonio Murillo Chacón	81/6/26	Hernani	Ez
Magín Fernández Ferrero	81/7/5	Barakaldo	Ez
Félix Galíndez Sánchez	81/7/25	Amurrio	Ez
Santiago González de Paz	81/10/17	Santurtzi	Ez
Manuel Hernández Seisdedos	81/11/26	Getxo	Zati batean
Benigno García Díez	82/1/27	Ondarroa	Zati batean
José Fragoso Martín	82/2/16	Oiartzun	Zati batean
Modesto Martín Sánchez	82/3/15	Errenteria	Ez
Antonio Pablo Fernández Rico	82/5/2	Ondarroa	Zati batean
Ángel Pascual Múgica	82/5/5	Bilbao	Ez
Antonio Huegun Aguirre	82/5/14	Eibar	Espurgatua
Daniel Henríquez García	82/6/3	Bilbao	Ez
Alberto López Jaureguizar Poncela	82/7/16	Getxo	Ez
Miguel Garrido Romero	82/8/25	Mungia	Ez
Vicente Gómez Duarte	82/8/25	Mungia	Ez
Antonio Cedillo Toscano	82/9/14	Errenteria	Zati batean
Alfonso López Fernández	82/9/14	Errenteria	Zati batean
Jesús Ordoñez Pérez	82/9/14	Errenteria	Zati batean
Juan Seronero Sacristán	82/9/14	Errenteria	Zati batean
Domingo Javier García González	82/10/22	Getxo	Ez



<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Francisco González Ruiz	82/10/31	Vitoria-Gasteiz	Ez
Juan Ramón Joya Lago	82/12/12	Tolosa	Zati batean
Juan Manuel García Mencía	82/12/29	Irun	Ez
Manuel López Fernández	82/12/29	Irun	Ez
Joaquina Patricia Llanillo Borbolla	83/2/12	Tolosa	Ez
Aniano Sutil Pelayo	83/3/27	Donostia / San Sebastián	Ez
Emilio Juan Casanova López	83/6/23	Donostia / San Sebastián	Ez
Francisco Machío Martos	83/7/7	Azpeitia	Ez
Manuel Francisco García San Miguel	83/7/13	Sopela	Zati batean
Rafael Gil Marín	83/7/31	Getaria	Ez
Enrique Rúa Díaz	83/7/31	Getaria	Ez
Manuel Benito José	83/10/3	Portugalete	Ez
José Reyes Corchado Muñoz	83/10/15	Oñati	Ez
Alberto Martín Barrios	83/10/18	Bilbao	Ez
Cándido Cuña González	83/10/20	Errenteria	Ez
Manuel Carrasco Merchán	83/11/5	Villabona	Ez
Antonio de Vicente Comesaña	83/11/12	Bermeo	Zati batean
Francisco Javier Collado Azurmendi	83/12/8	Zegama	Ez
Pablo Garraza García	83/12/9	Errenteria	Ez
Francisco Arín Urcola	83/12/15	Tolosa	Ez
José Naranjo Martín	84/3/27	Elorrio	Ez
José Verdú Ortiz	84/4/6	Galdakao	Ez
Antonio Velasco Benito	84/4/21	Bilbao	Ez
Juan Flores Villar	84/5/14	Hondarribia	Ez
Manuel Vicente González Vilorio	84/6/18	Ispaster	Ez
Antonio Torrón Santamaría	84/7/19	Portugalete	Ez
José María Martínez Martínez-Cubero	84/9/21	Valle de Trápaga-Trapagaran	Ez
Victoriano Collado Arribas	84/9/28	Alegría-Dulantzi	Ez

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Agustín David Pascual Jove	84/9/28	Alegría-Dulantzi	Ez
José Luis Veiga Pérez	84/9/28	Alegría-Dulantzi	Ez
Carlos Díaz Arcocha	85/3/7	Vitoria-Gasteiz	Zati batean
Jesús Ildfonso García Vadillo	85/4/29	Galdakao	Ez
Máximo Díaz Bardera	85/5/21	Donostia / San Sebastián	Ez
Francisco Rivas López	85/5/21	Donostia / San Sebastián	Ez
Moisés Cosme Herrero Luengo	85/5/26	Getxo	Ez
Eugenio Recio García	85/6/18	Santurtzi	Ez
Juan Merino Antúnez	85/7/9	Donostia / San Sebastián	Ez
Antonio Jesús Trujillo Comino	85/7/9	Donostia / San Sebastián	Ez
Fernando Amor Calvo	85/8/3	Luiaondo	Ez
José Expósito Afán	85/8/4	Elgoibar	Ez
Alejandro Sáenz Sánchez	85/12/30	Lasarte-Oria	Ez
Manuel Fuentes Pedreira	86/5/20	Arrigorriaga	Ez
Antonio Ramos Ramírez	86/6/8	Arrasate/ Mondragón	Zati batean
José Miguel Moros Peña	86/6/27	Portugalete	Ez
José María Baltasar Gil	86/6/28	Zarautz	
Adrián González Revilla	86/7/26	Aretxabaleta	Ez
Ignacio Mateu Istúriz	86/7/26	Aretxabaleta	Ez
Julio César Sánchez Rodríguez	86/10/28	Bilbao	Zati batean
María Luisa Sánchez Ortega	87/2/19	Bilbao	Ez
Vicente Montoya Salazar	87/9/25	Barakaldo	Ez
Pedro Ballesteros Rodríguez	88/3/19	Durango	Zati batean
José Luis Barrios Capetillo	88/9/17	Santurtzi	Ez
Cristóbal Díaz García	88/10/29	Bilbao	Ez
José Calvo de la Hoz	89/4/12	Getxo	Zati batean
Juan Bautista Castellanos Martín	89/4/25	Bilbao	Ez
Luis Reina Mesonero	89/9/12	Bilbao	Ez

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Ignacio Bañuelos Lasso	89/11/15	Bilbao	Ez
José Ignacio Pérez Álvarez	90/1/30	Galdakao	Ez
Aureliano Rodríguez Arenas	90/3/1	Donostia / San Sebastián	Ez
Benjamín Quintano Carrero	90/4/4	Pasaia	Ez
Elena María Moreno Jiménez	90/4/6	Donostia / San Sebastián	Ez
Miguel Paredes García	90/4/6	Donostia / San Sebastián	Ez
Virgilio Do Nacimiento Afonso	90/5/23	Donostia / San Sebastián	Ez
José Lasanta Martínez	90/6/13	Donostia / San Sebastián	Zati batean
Ignacio Urrutia Bilbao	90/6/28	Donostia / San Sebastián	Zati batean
Carlos Arberas Arroyo	90/10/6	Plentzia	Ez
José Francisco Hernández Herrera	90/11/18	Santurtzi	Ez
Daniel López Tizón	90/11/18	Santurtzi	Ez
Vicente López Jiménez	90/12/13	Donostia / San Sebastián	Zati batean
Luis Alfredo Achurra Cianca	90/12/14	Amorebieta-Etxano	Zati batean
Francisco Díaz de Cerio Gómez	91/1/31	Bilbao	Ez
Luis Aragón Guillén	91/3/16	Donostia / San Sebastián	Ez
Manuel Echevarría Echevarría	91/3/21	Bilbao	Ez
María del Koro Villamudría Sánchez	91/4/15	Donostia / San Sebastián	Ez
Francisco Álvarez Gómez	91/5/9	Ortuella	Zati batean
Carlos Pérez Dacosta	91/7/28	Getxo	Ez
Eduardo Sobrino González	91/10/23	Donostia / San Sebastián	Ez
Juan Carlos Trujillo García	91/10/23	Donostia / San Sebastián	Ez
Juan Manuel Helices Patino	92/4/23	Irun	Zati batean
José Manuel Fernández Lozano	92/8/17	Oiartzun	Ez
Juan Manuel Martínez Gil	92/8/17	Oiartzun	Ez

<b>BIKTIMAREN IZENA</b>	<b>DATA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ZENBATERAINO ARGITUA</b>
Ricardo González Colino	92/9/14	Donostia / San Sebastián	Ez
José Luis Luengos Martínez	92/9/29	Errenteria	Ez
Juvenal Villafañe García	93/9/16	Andoain	Ez
Ramón Doral Trabadelo	96/3/14	Irun	Ez
Isidro Usabiaga Esnaola	96/7/26	Ordizia	Ez
Eugenio Olaciregui Borda	97/1/30	Donostia / San Sebastián	Ez
Francisco Arratibel Fuentes	97/2/11	Tolosa	Ez
Modesto Rico Pasarín	97/2/17	Bilbao	Zati batean
José Manuel García Fernández	97/5/3	Abanto-Zierbena	Zati batean
José Luis Caso Cortines	97/12/11	Irun	Zati batean
Manuel Francisco Zamarreño Villoria	98/5/25	Errenteria	Ez
Jesús María Pedrosa Urquiza	00/6/4	Durango	Ez
Froilán Elespe Inciarte	01/3/20	Lasarte-Oria	Ez
José María Lidón Corbi	01/11/7	Getxo	Zati batean
Ana Isabel Arostegi Legarreta	01/11/23	Beasain	Ez
Francisco Javier Mijangos Martínez de Bujo	01/11/23	Beasain	Ez

**ETAk Euskadin erail dituen biktimen artetik, zenbatetan ez da egilea kondenatu: 295**

## V. Azter ditzagun banan bana, terrorismoaren biktimen arabera

Zehaztu dugu zein diren lan honetan aztertuko ditugun biktimak. Orain, adibide modura, hiru kasu auke-ratuko ditugu –talde bakoitzeko bana–, ikusteko ea praktikan ere ikerketaren planteamendua zuzena den:

### 1. kasua

**Biktimaren izena:** José Antonio Pardines Arcay.

**Atentatuaren data:** 1968/07/07.

**Atentatuaren lekua:** Villabona (Gipuzkoa).

**Zenbateraino argitu den:** Amnistiataua.

**Zer informazio daukagun:**

#### Nola gertatu zen

Ikus dezagun Vidas Rotas liburuak nola azaltzen duen zer gertatu zen: *“José Antonio, soltero, de veinticinco años, estaba regulando el tráfico en una zona de obras de la carretera Nacional I, junto a su compañero de patrulla Félix de Diego Martínez, que sería asesinado en 1979. Pardines estaba en un extremo de las obras y su compañero en el otro, a dos kilómetros de distancia. Un Seat 850 Coupé, con matrícula de Zaragoza, ocupado por los miembros de ETA Iñaki Sarasketa y Francisco Javier Etxebarrieta (él escribía Echebarrieta) Ortiz, Txabi, se detuvo junto a Pardines. El agente debió de encontrar algo sospechoso en la matrícula porque solicitó la documentación del vehículo y se dirigió a la parte trasera de este para mirar el número del bastidor y contrastarlo con el que aparecía en los documentos que le habían entregado.*

Sarrera-apartatuaren ostean, azterlanak segitzen du testuinguruan jartzen aztertutako biktimizazio-prozesuak. Horretarako, Historiako, Politika Zientzietako eta Kazetaritzako lan berri batzuetara jo dugu. Ondoren, dimentsio objektiboetan izendatu dugun atalean geratuko gara (Euskal Herrian, mugatutako aldian, erakunde terroristek gauzatutako bahiketen ondoriozko biktimizazioen dimentsio objektiboetan). Hor, hiru ikuspuntu bereizten ditugu: juridikoa, psikologikoa eta soziojuridikoa edo filosofikoa, diziplinarteko erlazioa bilatu nahian. Hurrengo epigrafean, berriz, dimentsio subjektiboak bilatuko ditugu (indibidualki bizi izandakoak), biktimei buruz hedabideek, auzitegiek eta Segurtasun Indar eta Kidegoetako agenteek egin dituzten narratibekin. Azken epigrafea, amaitzeko, Biktimologiako ikasleek eurek, oroimen protesiko edo jarauntsi modura, sortutako narratibari buruzkoa da, eta hausnartzen du zein den postlekukoaren zeregina kultura batez ere bisual baten esparruan. Azkenik datoz laburbiltze bat, zerrrenda bibliografiko bat eta eranskin batzuk, erabilitako datuak biltzeko protokoloak jasotzen dituztenak.

Metodologia kualitatiboaz eta Eversi (2016) jarraikiz, bereizi egin ditugu: teknika analitikoak, iturri bakotzean bilatutakoaren arabera; datuak lotzeko taktikak, eta haiek interpretatzeko estrategiak. Montes de Oca-ekin bat etorriz (2016):

*“Horrek esan nahi du berriro hartzea ‘hermeneutika bikoitza’ soziala ulertzeko ezagutza zientifiko edo aditua –ezagutza-eremu partikular bateko azalpen teoriko-kontzeptualak– trinkotzea lortuta, analisiko subjektuen sen edo legoarekin... ikertzailea bere autonomia propiotik lotzen da informazioaileekin –besteak (alter)– interdependentzia-lotura batean (autonomia-heteronomia)... Bereziki, erlazio horrek dakar subjektu bien arteko lotura, nortzuek nor bere akzio eta enuntziatio-izaera propiotik elkarri eragiten baitiote elkar aitortuta”.*

Autore horrek bere buruari galdetzen dio ere ea zelan maneiatu kontraesanezko informazioa, triangulazio-arriketa batetik sortzen dena, ikerketa-teknikak eta perspektibak bateratzean. Gure azterlanak metodologia kualitatibo bati erantzuten dio ikuspegi narratibo baten barruan, zeina lehenago deskribatu baita azterlan biktimologikoen esparruan. Aurkibidean proposatutako egiturari jarraikiz, erabilitako ikerketa-tekniken artean, jasotzen dira: berrikuspen bibliografikoa ez ezik, hainbat diziplina bereizi eta integratzen dira: berri eta ebazpen judizialen edukiaren analisisa (Auzitegi Nazionalarena eta Auzitegi Goreneko artxibategi historikoa-rena), kasuak ikertuta; adituei eta segurtasun-indar eta -kidegoetako kideei<sup>8</sup> egindako elkarrizketa eta galdera sortak; bi eztabaida talde ikasleekin; eta bat ikasleekin eta terrorismoaren zeharkako biktimekin (baina ez bahiketen biktimekin, baizik eta soil-soilik asasinatuetakoekin).

Datu kualitatiboak antolatu eta analizatzeko, *NVIVO* programa eskuratu zen, baina analisisa batez ere erlazionalekoa da, eta ez da oinarritzen frekuentziak kodetzean edo zenbatzean.

<sup>8</sup> Lan egin da aukera- edo komenientzia-lagin kualitatibo batekin, “elur-bola” estrategiari jarraituz eta, nolana ere, ikerketaren etikari lotutako kontuak errespetatuz eta, bereziki, harremanetan jarri diren pertsonen anonimotasun-nahia errespetatuz. Hemeroteketan eskuragarri dauden datuak eta interes publikokoak izaki, azterlanak erabili eta erreproduzitu dira, zeinek datu-baseak jasotzen baitituzte biktimen izen-abizenak eta guzti (Pérez 2008; Landa 2008; Llera eta Leonisio 2015).

---

## 2017:

# Terrorismoko biktimen interes prosozialak, sistema penalaren helburuei dagokienez. Nola ikusten duten haiek justizia, gizarte-bizitzako geruza gainjarri modura

---

*“Badira iragan biziak eta iragan hilak. Zenbait iragan orainaren ikertzaile zorrotzenak dira, eta etorkizuneko tranpolinik onenak” (Le Cobusier, Katedralak zuriak zirenean, 1937)*

Lan hau ikerketa-lan baten fruitua da, hain zuzen ere “Terrorismoaren biktimen emozioak eta arrazoiak: eskubideak eta asmoak hilketa terroristetan jarrera zigortzaile eta erreparatzaileei buruz (1. parte)” izeneko lanarena, Kriminologiaren Euskal Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren (BGEZ) lankidetzaren hitzarmenaren barruan egina. Horrek dakar lan kuantitatibo eta kualitatiboekin segitzea duela hamar urte terrorismo-biktimei buruz irekitako ikerketa-ildo bat, zeina baita biktimek, esperientzia indibidual modura eta zentzu etiko-politikoaz (Reyes Mate 2017), justizia- eta injustizia-kontzeptuen inguruan dituzten eskubide, premia eta igurikimenei buruzkoa (de la Cuesta, 2012, 2014a, 2014b; Varona, 2015, 2016, 2017b), eta bide ematen baitu hausnartzeko ea zer aukera dagoen erantzuteko eta erreparatzeko.

Biktimologiako ikerketa-lerro berrienetako baten ardatza da biktimen ongizatea hobetzea, baita haiek gizarteari ekarpenak egitea, ikuskera babesle batetik haratago. Ongizatearen kontzeptuak ikuspuntu eskusiboki terapeutikoa gaintzen du. Biktimen giza eskubideen juridifikazioa eta espezifikazioa eskala globaleko prozesu argia bada ere, praktikan, badira ikerketa batzuk, zalantzatan jartzen dutenak zein puntutaraino aplikatzen diren eskubide horiek eta juridifikazio horrek zer neurritan hobetu duen, berez, haien egoera eta okerragotu ahal izan duen beste aktore batzuen. Nahiz eta beste azterlan batzuetan, biktimen interesei erantzuteko (Varona, 2018c), zenbait gai jorratu dugun zuzenbide biktimekin sinbolikoarekin eta Zuzenbidearen (penalaren) mugekin erlazioatuak, ikerketa honekin fokuratu nahi ditugu terrorismoko biktimen esperientzia indibidualak, jarrera eta igurikimen modura, erantzun judizial eta sozialari dagokionez, gero biktimen irudi soziala eraikitzeari buruzko gai kulturekin erlazioatzeko. Sakon daiteke zelan biktimaren kontzeptu subjektiboa ezin uler daitekeen beraren kontzeptu soziala barik; kontzeptu sozialak, berriz, halako autonomia bat du, beharbada bat ez datorrena biktimen esperientziekin.

Ikerketa honen helburu orokorra da egiaztatzea zein puntutaraino den erreala biktima mendekariaren eta emozioek gaintuaren mitoa, eta zelan mito horrek sortu eta finkatu ditzakeen eraikuntza sozialak. Helburu orokor hori lortu nahi da, bestalde, sarreraren ostean dauden lau kapituluetan.

Lehenengoan definitzen da zein diren azterlan honek lantzen dituen funtsezko kontzeptuak: terrorismoko biktimak, eskubideak, premiak eta interesak; kalteberatasunaren eta afektuen teoriaren inguruko emozioak eta arrazoiak; jarrera zigortzaileak eta erreparatiboak eta interes prosozialak. Definizio hori, berriz, oso modu zehatzean landu da ikerketa honen esparruko bibliografia espezifikorekin, esparru hori oso garrantzitsua baita. Bigarren kapituluaren lantzen da zein diren joera zigortzaileak eta erreparatiboak neurtzeko tresnetako batzuk, eta zer muga duten tresna horiek. Hirugarren kapituluaren, Euskal Herriko azterlan espezifikoa jasoko dugu, justizia zigortzailearen helburuen inguruko joerei buruzkoa, biktimizazio terroristei dagokienez, eta biktima eta gazteei pasatako galdera sorten emaitzak eta kontrasteak aurkeztuko ditugu. Laugarren kapituluaren, aztertuko dugu zer emaitza lortu diren eztabaida talde batean, zeina sortu baita biktima eta ikasleekin, joera horien dimentsio indibidual eta sozialei buruz. Bosgarren kapituluaren, oroimen erreparatiboaren kontzeptuan sakontzen da, iragana eta etorkizuna integratzeko proposamen modura, justiziaren beste ikuspegi batean, zeinak, beharbada, bide emango baitu hobeto ulertzeko zer aukera dagoen lotura integratzaile bat egiteko zigor- eta erreparazio-nozioen artean. Amaitzeko, azterlanak laburbiltze bat egiten du, eta haren ostean datoz bibliografia eta eranskinak. Laburbiltze horretan, hainbat hausnarketa sartzen dira, terrorismoko biktimen irudia eta haien estereotipoak eraikitzeari buruzkoak.

Proposatutako helburuen zerbitzura segitutako metodologiaren barruan, berriro ere galde daiteke ea zelan jardun lankidetzan komunitate akademikoaren eta terrorismo-biktimekin lan egiten duten erakunde eta zerbitzuen artean, kontuan hartuz helburu eta interes propio eta komunak. Jabeturik zer zailtasun dagoen gai honi buruz ikertzeko, bereziki biktimak berreskuratu eta erreparatzeko eta biktimagileak birgizarteratzeko loturari dagokionez, ahaleginak egin dira ideiak partekatzeko, ikerketa-galdera garrantzitsuak eraiki eta gartzeko ekintza parte-hartzaileko ikerketa baten proposamen pean.

Biktimologia kritikoaren esparru teorikoaren barruan, aipatuko da zelan jorratu emozioak biktima- eta zigor-politiketan, oinarritzat hartuta zein diren egungo ezagutza neurozientifikoak, afektuen teoria (Gregg eta Seigworth, 2010) eta kalteberatasunaren teoria. Hirurogeiko hamarkadatik, afektuen teoriak, Spinoza eta beste autore batzuen aurrekariarekin eta Silvan Tomkinsek Psikobiologiatik egiten duen ekarpenarekin, hainbat korrante teoriko aurkezten ditu, bat etorri azterlan feministekin, azterlan kulturekin, Filosofia politikoa-rekin, Psikologia eta Psikoanaliziarekin. Nahiz eta afektuen teoriak hainbat interpretazio<sup>9</sup> izan, hemen batez ere aipatzen dugu Spinozatik datorren korrantea, arrazoa emozioarekin erlazionatzeko aukerei dagokienez. Nolanahi ere, egungo kontzepzio neurozientifiko eta kultural askok defendatzen dute zerbait prekontziente dela, aukera kognitibo guztien aurrekoa, pentsamenduaren eta ekintzaren motibatzaile diren emozioen zerregina.

Metodologia mistoari jarraikiz ikerketa-ekintza parte-hartzaileen barruan, hainbat azterlanetan kontrastatutako hipotesi bat landuko da biktimen motibazio prosozialei buruz, premia indibidualetatik haratago. Galde sorta bat emango da, joera zigortzaile eta errestitutibo buruzkoa, terrorismoko, zenbait delitutako eta erakunde terroristetako –nahiz eta ETak eragin duen biktimizaziorik gehien– biktima zuzenei eta zeharkakoei zuzendua, EAE barrukoak zein kanpokoak. Galde sorta egituratua da, eredu konparatu bati jarraikiz, eta Likert eskala erabiltzen du. Haren emaitzak konparatu egingo dira EAEn gazteekin egindako beste azterlan batekin. Azken eztabaida taldeak aukera emango du emaitza horiei buruz sakontzeko; horrez gain, ñabardurak kontrastatu ahal izango dira aurretik egindako beste ikerketa batzuekin.

Nolanahi ere, komeni da ohartaraztea ezen egindako galde sortak ez direla lagin esanguratsu bat, eta emaitzak ezin direla orokortu; hala ere, errealitate batzuk badira esanguratsuak, subjektu parte-hartzaileek bizi duten bezala. Ildo horretatik, eztabaida taldearen garapenak aukera ematen du motibazio-analisi bat egiteko, bat datorrena Kriminologiako Europako Elkarteko<sup>10</sup> Ikerketa Kualitatiboetako Metodologiei eta Epistemologiei buruzko Lantaldeak egindako proposamenekin. Nahiz eta jarrera zigortzaileak izan egungo Kriminologiak<sup>11</sup> gehien lantzen duen gaietako bat, ikerketa honek klabe biktimologikoan ikusten ditu, jarrera errestitutiboekin eta interes prosozialekin duten erlazioan, hurrengo kapituluan definituko diren moduan. Era berean, modu zabalagoan kokatzen dira diziplina anitzek sistema penaleko emozioez oraintsu agertu duten interesean<sup>12</sup>.

10 Talde horri buruz, ikus informazio gehiago hemen: <https://www.esc-eurocrim.org/index.php/activities/working-groups/66-qualitative-research-methodologies-and-epistemologies-wg-qrme>.

11 Ikus, besteak beste, Matthews (2005); Sessar (1999); Chen eta Einat (2015); Brown eta Socia (2017), eta Adrianssen eta Aertsen (2015). Espainian, ikus Marteache (2012); Varona (2008); Becerril (2014); Ferrer (2015) eta Antón-Mellón et al. (2017)

12 Ikus, adibide modura, Morforteko Unibertsitateko tematika horri buruz klusterreko web-orria (<http://www.dmu.ac.uk/research/research-faculties-and-institutes/health-and-life-sciences/community-and-criminal-justice-research/emotion-and-criminal-justice.aspx>). Cfr. Karstedt, Loader eta Strangek (2011) zuzendutako monografia eta Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak oraintsu antolatutako tailerra, disziplinartekoa, titulu hau duena: *Sharing and regulating emotions in legal spaces: Mediation, restoration, and reconciliation* (Oñati, maiatzaren 31 - ekainaren 1a, 2018), S. Karstedtek (Kriminologia eta Justizia Penaleko Eskola, Griffith Unibertsitatea, Australia), Darío Páezek (EHU) eta B. Rimék (Lovainako Unibertsitatea, Belgika) koordinatua, hainbat eta hainbat unibertsitatetako eta herrialdeetako ikertzaileen parte-hartzearekin.

---

## 2018:

# Biktimen islak hedabide digitaletan eta sare sozialetan

---

*“Datuak ez diraitsuak. Geu gara datuak, sinpleki kode bitar batera murriztuta”* (Ferguson 2017, 123)

## 1. Sarrera

Solas egitea da elkarrekin hitz egitea. Itxuraz erraza eta ohikoa dena konplexu bilakatzen da hitz egite horren baldintzetan eta testuinguruetan pentsatzen badugu. “Solas egitearen” hirugarren adiera da: “beste konpainian bizitzea”, baina dagoeneko ez da erabiltzen. Lan honek aztertzen du zer solas izan daitekeen egungo espazio digitaletan biktimizazio terrorista iraganekoen eta egungoen inguruan, eta zelan elkarriketa horiek baldintzatzen duten biktimen irudia eta, are gehiago, haien inguruko diskurtso sozio-juridikoak.

Azterlan honetan, ez dugu lantzen zer erlazio sinbiotiko dagoen terrorismoaren eta hedabideen artean mezu terrorista transmititzeko (VV.AA. 2003) eta biztanleria edo biztanle batzuk ikartzeko (Denoix de Saint Marc et al. 2015, 20). Lan honek ez du aztertzen zer jokabide duten hedabideek terrorismoaren aurrean, baizik eta zein den hedabide digitalen eta sare sozialen zeregin zehatza terrorismo-biktimak irudikatze, erreferentziatza hartuta 2018. urtea. Hainbat herrialdeetako errealitateetatik, hausnartzen da zein den hedabide sozialen zeregina oroimen-, erreparazio- eta adiskidetze-prozesuetan.

Ikerketa-ildo jarraitu baten barruan (Varona 2018a), Europako, Espainiako eta EAEko arlo horretako legeriek definitzen dute zein den biktimizazio terroristaren kontzeptua. Lehengoari dagokionez, Europako Legebiltzarreko eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko 2017/541 Zuzentarauko bigarren kontuan hartuzkoan, zeina terrorismoaren aurkako borrokari buruzkoa baita, espresuki esaten da, balio kalteu supraindibidualak adieraziz:

*Batasuneko oinarri diren balio unibertsalak –giza duintasuna, askatasuna, berdintasuna, elkartzasuna eta giza eskubideez eta funtsezko askatasunaz baliatzea– urratzeko modurik larrienetako bat dira egintza terroristak. Era berean, demokraziaren eta Zuzenbide Estatuaren kontrako erasorik larrienetako bat dira; izan ere, demokrazia eta Zuzenbide Estatuaren printzipio amankomunak dira estatu kide guztietan, eta haietan oinarritzen da Batasuna.*

Zuzentarau beraren 27. kontuan hartuzkoan, definizio zehatzagoa jasotzen da, ikerketa honek hartu duena kontuan, eta igorpen argi bat egiten da era guztietako delituetako<sup>13</sup> biktimen eskubideei buruzko Zuzentarau espezifikora.

*2012/29/EB Zuzentarauko 2. artikulua definitzen du zer den terrorismo-biktima, hau da: terrorismo-delitu batek zuzenean eragindako kalte edo galeraren bat jasan duen pertsona fisikoa, batik bat lesio fisikoak edo mentalk, kalte emozionalak edota galera ekonomikoak jasan dituen; delitu batek zuzenean eraginda hil egin den pertsona baten senitartekoak, eta pertsona horren heriotzaren ondorioz kalte edo galeraren bat jasan dutenak. Terrorismitik bizirik irauten duten biktimen*

---

<sup>13</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideen, laguntzen eta babesaren inguruko gutxieneko arauak ezartzen dituena. Zuzentarau horrek Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordeztzen du. Zuzentarau hori gure antolamendu juridikoan txertatu zen Delitu-biktimen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legearen bidez eta hura garatzeko Erreglamenduaren bidez, zeina onartu baitzen abenduaren 11ko 1109/2015 Errege Dekretuaren bidez, zeinak lege hori garatzen baititu eta Delituaren Biktimen Laguntzarako Bulegoak arautzen. 2012/29 Zuzentarauaren aurrekari dira: Nazio Batuen 1985ko abenduaren 8ko A/RES/40/9 Ebazpena, delituen eta botere-abusuaren biktimentzako oinarritzko justizia-printzipioei buruzkoa; Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen 1985eko ekainaren 28ko R (85) 11 Gomendioa, Zuzenbide penalaren esparruan biktimek duten posizioari buruzkoa, eta Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen R (2006) 8 Gomendioa, delitu-biktimei laguntzeari buruzkoa. Ebazpen horrek eta gomendio horiek ez dute balio juridiko loteslerik, baina balio hori dute Europako zuzentzauek, Espainiako estatutuak eta terrorismo-biktimei buruzko legeria espezifikokoak, hala estatukoak nola erkidegokoak (Espainiakoak: 29/2011 Legea, irailaren 22koa, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babestekoak. EAEkoak: 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoak).



*senitartekoak, aipatutako artikuluan definitzen diren moduan, irispidea dute biktimei laguntzeko zerbitzuetara eta babes-neurrietara, zuzentarau horretan xedatutakoarekin bat etorriz.*

## 2. Solasean aritzeko artea

Indibidualki eta sozialki jasandako sufrimenduaren eta injustiziaren partaide egiten gaitu solasak, baina “gizatasun partekatua eta elkarrekiko errespetuaren sententzia ere sortzen du” (Zeldin 2014, 126). Horrek guztiak aldaketa txiki baina iraultzailea ekar dezake pertsonen eguneroko bizitzan. Ideia hori inportantea da, zeren gure lanaren ardatza da jakitea zer aukera eta muga dituzten terrorismo-biktimei buruzko informazioak eta solasek ingurune digital batzuetan. Terrorismo-biktimen lankidetzaz egindako azterlan batzuen ostean, ondorioztatu dezakegu ezen solasaren elementua funtsezkoa dela haien igurikimenterako eta bizikidetzarako.

Zeldin historiagileak dioskunez (2014, 19), solasaren interesa da: “hasieran ginena ez, baizik eta hasten dena beste pertsona arean diferente bat izaten amaitzeko asmoaz”. Ildo horretatik, esperimendu bat da, “baina inoiz ez daude bermatuta haren emaitzak”. Arriskua dakar. Abentura bat da, zeinetan onartzen baitugu mundua elkarrekin kozinatzea, eta ahalegintzen baikara haren zaporea izan ez dadin hain mingotsa”.

Ezin egon daiteke solas gozagarri, elkarrekiko errespeturik gabe, inoren duintasunaren adierazgarri baita. Horrez gain, erabaki behar dugu norantz zuzentzen dugun geure solas-boterea, eta zertarako erabiltzen dugun:

*Ez da bakarrik informazioa lortzea edo emozioak partekatzea... Solasean aritzea topaketa bat da, oroitzen eta ohitura diferenteak dituzten adimenena. Adimenak aurkitzen direnean, ez dituzte soilik trukitzen egintzak: aldatu, birmoldatu egiten dira; haietatik inplikazio desberdinak ateratzen dituzte, eta pentsamenduaren bide berriei ekiten diete. Solasak ez ditu bakarrik kartak nahasten berriro, baizik eta karta berriak sortzen ditu (Zeldin 2014, 31-2).*

Azken finean, aipatutako autoreari jarraikiz, “pentsatzea da: ideiak batzea, ideiek elkarrekin jolastea, ikas dezatela dantza egiten eta elkar besarkatzen” (116. or); ideiak, zeinak egintza isolatu eta testuingururik gabekoetatik edo deskonektatuetatik harago baitoaz; solasak, aukera ematen dutenak “ulertzen dudaren eta ez dudaren arteko muga topatzeko” (120. or), berba hutsetik haratago. Kontua ez da bakunak izatea; izan ere, solasak baldintza batzuk eskatzen ditu aurretik.

## 3. Metodologia eta egitura: Gaiaren egoera berrikustea, azterlan kuantitatiboko eta analisi kualitatiboko datu masiboak monitorizatzeko.

Metodologia misto bati jarraikiz, hura desberdina izango da azterlaneko zati bakoitzerako. Sarreraren ostean, irakurleak II. kapitulu aurkituko du, deskribatzailea bera, eta biktimei eta, oro har, hedabideei buruzkoa, bereziki azpimarratzen duena hedabide sozial digitalen zeregina (sare sozialak barne). Kapitulu horretarako eta gainerako zati bat kokatzeko, bibliografia berrikusi da sistematikoki, barnean hartuz lan teoriko eta enpirikoak, aukera ematen digutenak elementu garrantzitsuak ateratzeko, geure datuak testuinguruan jartzeko eta gero analizatzeko helburu orokorraren arabera, zeina hasierako paragrafoetan finkatzen baita (aztertzea zein den hedabide digitalek eta sare sozialek duten zeregina terrorismoko biktimak irudikatzen).

Gai honen aurreko bibliografia berrikusteko, bilaketa bat egin zen 2018ko maiatzaren 15ean —eta urte bereko abenduaren 4an eguneratu— ingeleseko terminologiarekin EHUKo liburutegiko datu-base guztietan, ahalik eta dokumenturik gehienak lortzeko. Bilaketa egiteko, hitz klabe hauen konbinazioa erabili zen: *big data* + gaia *criminology*, eta 119 lan lortu ziren, eta gure ikerketaren irizpideen arabera hautatu.

Era berean, bilaketa zabaldu egin genuen hitz klabe hauekin: *big data* + gaia *methodology* + *social sciences*, eta 162 emaitza lortu genituen; haiek ere hautatu genituen planteatutako helburuetako irizpideei jarraituz.

Aldi berean, oroimen digitalari<sup>14</sup> buruzko bilaketa bat egin genuen, ingelesez eta gaztelaniaz, *Google Scholar*en (datu-base akademikoetatik haratago hedatzeko bilaketa; izan ere, gure gai espezifikoaren erreferen-

14 Arreta bereziko gaia da, ia hamarkada eskas batetik, gizarte-zientzietan eta oroimenari buruzko azterlanetan.

---

tzia gutxi aurkitu genituen). Bilaketa egiteko, hitz klabe hauek erabili ziren: “digital memory”/“online memory” + victims + terrorism.

III. kapitulua, berriz, azterlan kualitatibo batean zentratzen da. Azterlan hori aitzindaria da Biktimologian, zeren metodo konputazionalan oinarritzen da, hedabide digitaletan 2018an argitaratutako makrodatuak jaso eta analizatzeko. Ikusirik Gizarte Zientzietarako planteatutako erronkak, behin eta berriz errepikatuak, kontsiderazio orokor batzuk jasoko ditugu metodo konputazional horien erabilerari eta mugei buruz. Hirugarren kapituluaren hasieran ere, zehatzago adieraziko da zer metodologia erabili den ikerketa honetarako, zeren, gogora dezagun, beraren helburua da jakitea zer irudi ematen duten terrorismo-biktimek hedabide digitaletan.

Informazioa jaso eta prozesatzeko, *big data* teknikak erabili ziren, *Talaia* plataformaren bidez; izan ere, hura erabiltzen dute Elhuyar Fundazioko<sup>15</sup> ikertzaile laguntzaileek. Proiektu honen azken helburua da analizatzea zein den hedabide digitalen zeregina terrorismo-biktimei buruz gizarteak dituen estereotipoak eraikitze edo indartzeko. Horretarako, eta lan guztian legez, terrorismo-biktimaren definizioa emateko, indarrean da- goen legeriara jo da, sarreran zehaztu den bezala.

Berraurkezpen modura, hurrengo koadroan laburbiltzen dugu nola jarri testuinguruan azterlan kuantitatiboa eta kualitatiboa.

## **Bitarteko eta sare digitaletan terrorismoaren biktimen pertzepzioari buruzko analisiaren testuinguruari buruzko oinarrizko datuak**

- Lankidetzeta Elhuyar Fundazioarekin (testuak aztertzeko eta hizkuntza prozesatzeko teknikak, algoritmoen bidez, Totola plataformaren bidez ereduak ateratzeko).
- Iturriak: prentsa digitala (119.078 albiste) eta sare sozialak (twitter - 423.667 txio).
- Eremu geografikoa: EAE, Nafarroa, Espainia, Frantzia, Irlanda eta Erresuma Batua.
- Denbora-eremua: 2018/03/05etik 2018/11/28ra (ia 9 hilabete).
- Zailtasunak: domeinuaren karakterizazioa (“terrorismoaren biktimak” gako-hitzen zerrrenda); kokapen geografikoa (+/-% 40); erabiltzailearen generoaren analisletarako aurrekontu-muga teknikoak...
- Berrien eta txioen laginaren analisi kualitatiboa.
- Finantziarioa: Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza.

*1. grafikoa: Azterlana testuinguruan jartzea*

---

<sup>15</sup> Ikus bedi, beherago, zer ataza zehatz egiten dituen ikerketa taldeak.

## 2019. Lehen azterlana:

# Justizia errestauratiboa justizia penaleko eta espetxe-testuinguruetako biktimizazio larrietarako: modalitate berritzaileetatik ikasten

*Art in prisons: talking restorative justice through artistic and narrative projects*, izeneko mintegi espezializatu bat zela eta, 2019ko apirilean, Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen bildu ziren, Euskal Herrian, hainbat jatorri geografiko, diziplina eta praktikatako pertsona, adituak edo inplikatutako hala ikasketen eremukoak nola espetxeetako arteari buruzko gaietako adituak. Liburu honetan, mintegi horretako fruitua bera, artista, proiektu praktikoetako koordinatzaile eta ikertzaile gehiago gonbidatu dira parte hartzera, liburuak elkarrekin osatzeko. Oñatiko seminarioan, hainbat tokitako pertsona dauzkagu: Espainiakoak, Italiakoak, Herbehereetakoak, Belgikakoak, Greziakoak, Erresuma Batukoak (Eskozia eta Ipar Irlandakoak), Kanadakoak, Estatu Batuetakoak eta Venezuelakoak. Artista eta akademikoek –ibildu luzekoak nahiz hasiberriak–, eremu horretako teknikari eta arduradunekin batera, geure ikuskerak partekatu ditugu gai lili-ragarri bati buruz, zeina abiatzen baita espetxearen, artearen eta justizia errestauratiboaren arteko lotura ez-agerikotik.

Idea eragilea izan zen aukera bat zela arteak elkarrizketa-prozesu baten modura joko dezakeela eragindako kaltearen gainean, baina haren jatorri eta ondorioen konplexutasuna ez ahazteko erronkarekin. Artea ulertu ahal dugu ezagutzeko modu baten modura, zeinak, zientzia-metodoaren zorrotasunaren berezko mugak gaindituta, lagundu ahal baitigu hobeto ulertzen, batetik, gizatasunaren anbiguotasunak, hutsalke-riarik eta moralkeriarik gabe, eta, bestetik, zer garrantzitsuak diren emozioak, barnean hartzen dutenak irudimen etikoa. Justizia errestauratiboaren definizioak –adostasunik ez badago ere– ezaugarri batzuk partekatzen ditu artearekin, hura ere zaila baita definitzen. Haien artean, nabarmen daiteke, bereziki, sortutako biktimizazioa erreparatzearena, kontuan hartuz, kontsiderazioaren etika batean, kaltetutako pertsonak, errudunak, kaltearen begiraleak eta haiengandik hurbilen dauden komunitateak edo gizarte orokorrean. Justizia errestauratiboak bide ematen du kontuan hartzeko zer aukera dagoen justizia egiteko hainbat eta hainbat alternatibatan. Hala artea nola justizia errestauratiboa izan daitezke indar eraldatzaileak. Georges Braquek baieztatu zuenez: “Artea zauri bat da, argi bilakatu”. Beraz, artea interpreta daiteke, ez bakarrik sufrimenduen osteko edertasun-sortzaile modura, baizik eta batez ere dokumentatu eta ikusgarri egiten duen arte modura; are gehiago, agian ulergarri egiten du sufrimendua, halako moldez non egokiro erreakzioan baitezakegu, gizatasunez esku hartu, parte hartu eta erreparatzeko.

Mintegia egin bitartean, zailtasunak aurkitu ziren artearen eta espetxeko justizia errestauratiboaren arteko erlazioa zehazteko; izan ere, deshumanizatzailea da mugitzen garen testuingurua. Historikoki, idazle eta artista askok arte-adierazpenetan deskubritu zuten modu bat espetxeko baldintzetatik alde eta ihes egiteko. Berezi, egungo eztabaidak –ea haiek toki publikoetan erakutsi behar diren– erakusten du zelan espetxeko *ethosa* hedatzen den handik kanpora tentsio batean, hain zuzen ere delitu astunak egin dituzten presoen arte-adierazpenaren eta hain biktimizekiko errespetuaren arteko tentsio batean.

Orokorrean, erronka bat da espetxeko artea ulertzea (hartzen duen itxura hartzen duela: musika, eskultura, literatura, pintura, argazkilaritza eta abar) terapia hutsa baino zeozer gehiagotzat, halako moldez non aukera ematen baitu, halaber, eztabaidatzeko injustizia sozialaz eta boterearen asimetriez. Azkenik, artea erresistentzia edo interpelazio modura, justifikaziorik eta hutsalke-riarik gabe, ez litzateke kapsulatu behar helburu edo funtzionalitate bat duen tramankulu baten barruan. Arteak beti izango du zerikusia gizarte jakin baten adierazpen pertsonal eta sortzailearekin. Horrek zerbait jakingura-eragile eta dinamiko bilakatzen du artea, hura manipulatzetik harago.

“Espetxe” eta “arte” terminoak oso modu zabalean erabiliz, gure liburuak sei atal ditu. Irudimenaren kontzeptuarekin hasten da (1. kapituluak, Brunilda Pali), narratibekin erlazioan (2. kapituluak, Brenda Morrison, eta 3. kapituluak, Guido Bertagna) eta kasu bakoitzean injustiziak gehien eragin dituen pertsona kaltetuen kontakizunak (4. kapituluak, Anneke van Hoek eta Annemieke Wolthuis). Bigarren atalean, zigorraren asmoa esploratzen da (5. kapituluak, Hal Pepinski), zer esanahi duen espetxeak esperientzia pertsonalean (6. kapi-

---

tulua, Raymond Watson), eta zelan gara dezaketen espetxeratuek artea modu kritikoa (7 kapitulua, Nicola Valentino eta Giulia Spada). Hirugarren atalean, arreta berezia jartzen da espetxean artea egitean modu errestituatiboan (8. kapitulua, Clair Aldington; 9. kapitulua, Annie Buckley eta Annika Yvette Anderson; 10. kapitulua, Tinneke Van Camp eta Emma Hughes; 11. kapitulua, Katerina Soulou; 12. kapitulua, Eva Amann eta Teresa Sousa; 13. kapitulua, Mónica Sáenz eta Carlos Romera, eta 14. kapitulua, Lourdes Fernández). Laugarren atalean, analizatzen da zer esanahi duten zenbait proiektu errestituatibo berriak espetxe barruan eta kanpoan, musikaren bidez (15. kapitulua, Leire Padilla, eta 16. kapitulua Rocío Redondo eta Francisco José Ríos-López) eta poesiaren bidez (17. kapitulua, Javier Ollero). Bosgarren atalean, mugako ekimen errestituatiboak hartzen dira kontuan, hausnarketa bat eginez gure justizia-sistema penala berriro pentsatu beharraz, kritikoki, ikuspuntu politiko, estetiko eta etikoetatik (18. kapitulua, Jaseff Raziel Yauri-Miranda), umorearen bidez egindako gizarte-laneko esperientzien bidez (19. artikulua, Alberto Olalde), baita arte eta humanitateen bidez ere (20. artikulua, Alex Carrascosa). Seigarren atalean, ekarpen berritzaile bat aurki daiteke azaltzen duena zer aukera dagoen justizia errestituatibo eta ezagutza biktimologikoa aplikatzeko suizidioaren tabuari, espetxe-sistemako errealitate presente modura (21. kapitulua, Leire Izaguirre). Amaitzeko, kontsiderazio orokorren kapitulu batekin bukatzen da, zeinak gonbidatzen baitu etorkizunean ikerketak egitera (22. kapitulua, Gema Varona).

Nietzsche filosofoak dantzari kateatutzat jo zuen artista. Kateak apur daitezke (mentalak ere bai), eta, kateatuta ere, artea liberatzailea izan daiteke geure eguneroko bizitzetan, ikertzaile, espetxeratu, biktima, artista, bideratzaile, proiektu-koordinatzaile diziplina gabeko... modura bizitzeko aukeratzen dugun artearen arabera.

Espero dugu lan honek jarraitzea ikerketa sakonago eta muga, horma, diziplina, belaunaldi eta hizkuntzen kuestionatzaile modura. Azken ideia horri dagokionez, akademiako zenbait praktika berdintzaile apurtuz, eta kontuan hartuz ezen artea, bizitza erreala bezala, murgildu egiten dela itzelezko aniztasun batean, irakurleari proposatzen zaio sar dadila liburu batean, zeinak pareka berrikusitako kapituluak baititu, itsu bi-koitzairen sistemari jarraikiz. Haietako batzuk ingelesez idatzita daude, eta beste batzuk gaztelaniaz. Soilik sarrera eta kapitulu bat daude hizkuntza bietan; gainerakoa, berriz, hizkuntza-aberastasunaren adierazpena da, galdu beharko ez litzatekeena. Autoreek batera egindako lanak, argazkien erreproduktzioa barne, gure irudimena elikatzeke opari apal eta delikatua bilakatzen du liburua, proposamena eginez bizi garen espetxeetatik harago jotzeko, kudeaketa teknologiko eta populismo zigortzaileko garai gizagabetzaileetan.

## 2019. Bigarren azterlana: Ibilera errestituratioa hainbat talde terroristatako biktimekin

---

### 1. Azterlanaren funtsa, helburua, metodologia eta egitura

*“Fantasiak, asmaketak eta sormenak pentsatu egiten dute; irudimenak, berriz, ikusi egiten du” (Munari, 2018)*

Lan honek laburpen bat egiten du, hain zuzen ere justizia errestituratioan hamarkadetan lotutako eza-gutza beti mugatuen hausnarketa teorikoarena eta aplikazio praktikoarena. Hiru profesionalak idatzi dute. Haiek elkarrekin lan egiten dute Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiaren Euskal Institutuko *Justizia Errestituratioaren Teoria eta Praktika Laborategian*, baina desberdinak dituzte prestakuntza (Kriminologia, Zuzenbidea, Gizarte Lana, Soziologia Juridikoa...), lan-esperientziak (bideratzaile, ikertzaile, irakasle...) eta interes-gaiak (biktimizazio-prozesuetako alderdi mikro, meso edo makroak eta haien arteko erlazioak). Orri hauekin, asmoa da jakinaraztea zer ikasi den zalantzetatik eta ongi eta gaizki egindakotik, gero atzera itzuli ahal izateko urteetan gurekin lan egin duten pertsonen (biktima, kalteen erantzule, komunitate, agente kal-tetu, teknikari eta kudeatzaile politikoek) eskuzabal eman digutenaren parte bat. Horrela, sustatu nahi da proiektu errestituratioak garatzea etorkizunean, eta apal-apal ahalegintzea pistak edo ziurtasun txikiak transmititzen, ikusteko ea baliogarriak diren beste pertsona gazteek edo ez hain gazteek ekimen errestituratioak diseina eta gauza ditzaten hainbat eremutan, baina batez ere delitu larritzat jotakoen ostean edo eragin handiko prozesu traumatikoen ostean.


Jarraitu beharreko errezetarik emateko inongo asmorik gabe, sormen mestizo eta diziplinartekoa sustatu nahi da ezagutzatik, arreta berezia jarriaz bat egitean justizia errestituratioaren bi modalitate: zirkulu errestituratioak eta ibilbide errestituratio izendatuko ditugunak, “ibilera errestituratio”aren kontzeptuaren barruan. Azaltzean zer esan nahi dugun “ibilera errestituratio”arekin, justizia errestituratioaren beste modalitate baten modura (bitartekaritzarekin, panelekin, konferentziekin, zirkuluekin eta abarrekin batera), adibide errealek erabiliko dira, sistema penalarrekin lotura gehiago edo gutxiago duten biktimizazioekin egin diren esku-hartze errealeak, zeinak beti baitira sistema horren kuestionatzaileak eta, beraz, sozialki eraldatzaileak, zeren alderdi kritikoak ehotzen dituzte, izaera indibidual, pertsonarteko edo komunitariokoak. Nolanahi ere, nahiz eta kasu errealei buruzko ikuskera autoetnografiko batetik abiatu, konfidentzialtasunaren betebeharra zaintzeko, isilean gordetzen ditugu identifikagarriak izan daitezkeen datuak, eta, behar izan denean, fikziozko paralelismoetara jotzen dugu.

Lehenengo kapituluaren izena da: *Denboran bidaiatu, bide errestituratioak ireki, eta biktimizazio larriak errestituratzeko*, eta Gema Varonaren lana da. Kapitulu horretan azaltzen da zein enfoke teorikoren oinarrian egin den praxi hori, non, oroimen errestituratio boko tokiak, terrorismoa bezalako biktimizazio larrietarako, ulertzen baitira ez-bortxakeriaren topologia modura, egindako proiektuen ereduak emanez, oso anitzak euren artean, adierazten dutenak nor diren protagonistak eta zer urrats egin duten. Era berean, hiru epilogo sartzen dira, proiektu bakoitzean parte hartu duten hiru lagunek idatzitako hausnarketa eta guzti (Adam White, Barbara Dührkhop eta Clair Aldington).

Bigarren kapitulua Alberto Olalde idatzi du, eta haren izenburua da: *Ibilera errestituratioak biktimizazio larriak*. Kapitulu horretan, perspektiba autoetnografiko batetik (ikus. 1. irudia) (Madden, 2017) eta bideratzailearen ikuspuntutik deskribatzen da zein den ibilera errestituratio bat, non zirkuluak eta ibilbideak erabili baitira zeharkako terrorismo-biktima baten toki traumatiko eta esanguratsuetakotatik.

## Usearcher's Method

Augmenting and enhancing subjectivity and reflexivity for analytic research purposes  
A progressive knowledge enrichment process through user knowledge and researchers self-knowledge interaction



1. irudia Iturria: Colobrans (2014)

Hirugarren kapitulua Idoia Igartuak idatzi du, eta haren titulua da: *Itxusuria*. Kapitulu horretan, analizatzen da zer garapen praktiko bete den zuhurtziagabekeriako giza hilketa baten ondoriozko biktimizazio larri baten, zeinak tartean sartzen baititu inguruko familiak. Auzibide barruko eta kanpoko kasu bat da, non nabarmenduko baita nola bizi den prozesua, zer ondorio izan dituen, zein diren adierazitako eta isildutako premiak eta zelan apurtu den zaintza-agenteekiko konfiantza auzo- eta justizia-sistemako eremuan.

Hiru kapituluetan, zeinen izaera polifonikoak aukera ematen baitu berezita irakurtzeko, justizia errestitiboaren ikuskera desberdinak azaltzen dira, autore bakoitzaren enfokeak errespetatuz; izan ere, haien arteko desberdintasunak aberasgarri izan daitezke lana irakurtzen duten pertsonentzat, aztertutako gaiaren konplexutasunaren kontu emanez. Bibliografia espezifiko batekin haietako bakoitzarentzat, zenbait ilustrazio jaso nahi izan dira modu bisualean transmititzeko zein diren ideia nagusiak, metodologia deskriptibo bati jarraikiz. Kezka ez da hainbeste proiektu horien euskarri juridikoa eta efektu penologikoa, nahiz eta alderdi garrantzitsuak izan eta beste lan batzuetan haietaz jardun (Olalde, 2017; Igartua, 2018; Varona, 2018), baizik eta esku hartzeko metodologia zehatzak ematea eta eztabaidatzea esparru juridiko oinarritu batean, justizia errestitiboaren programen barruan.

## 2. Bigarren mailako biktimizazioa alegatzea, justizia errestitiboko proiektuak frenatzeko, hain justu ere hura minimizatzeko sortu zirenean?

Hala Estatutuak nola Zuzentzarauak konpromiso orokor bat dute saihesteko edo minimizatzeko bigarren mailako biktimizazioa eta birbiktimizazioa, justizia errestitiboko programak aplikatuta eragin daitezkeena, alde batera utziz justizia klasikoaren administrazioan modu orokorrean (FRA, 2019) dagoen biktimizazio hori. Arriskua daukagu begirune paternalista batean geratzeko, eta hori traba izango litzateke kasuak profesionalen diskreziora bideratzeko, zeinek, oro har, ez baitute prestakuntza larri justizia errestitiboan eta ez baitakite zein diren arlo horretako ikerketa enpiriko ugarien emaitzak, hala gure herrialdeetakoak nola eskala konparatukoak. Emaitza horien artean, nabarmen daitezke pertsonak behar direla prozesu errestitiboetan laguntzeko, batez ere talde-modalitateen bidez (konferentziak edo zirkuluak).

Kasuak programa errestituatiboetara bideratzeko, gure herrialdean dagoen salbuespen legal bakarrak aipatzen du bitartekaritza erabili behar dela genero-bortxakeriako biktima helduen kasuetan. Hain zuzen ere delitu-mota horri dagokionez, Goodmarken ikuspuntutik (2018), justizia errestituatiboak zentzua izan dezake kode ekonomikoan, osasun publikoaren, komunitarioan eta giza eskubideenean. Goodmarken arabera (2018), justizia penalak talderik baztertuenei eragiten die batez ere; baztertuago geratzen dira, eta, nolahi ere, estigmatizazioa eta kaltearen eragilean erantzukizun aktibo falta ekarri ohi du, baita kaltetuak erreparazio gabe geratzea ere. Justizia berriro enfokatu eta biktimei begiratzeak, zeinek premiak, balioak (Holder, 2018)<sup>16</sup> eta eskubideak baitituzte –termino prosozial konplexu, anitz eta dinamikoetan–, aukera emango luke politika judizial eta sozialak egiteko. Gainera, delitu larriei eta zehazki terrorismo-delituei dagokienez, kondenak aplikatu eta gero, bere horretan segitzen du haien deslegitimazio sozialaren erronkak.

Goodmarken argumentazioan (2018), justizia errestituatiboaren oinarria da lau arazo erreali erantzutea: kalteak minimizatzeke premiari, kargutu eta erreparatzeke, aurreikusteari eta kostu-efizientea izateke (Igartua et al., 2015). Horrek ez du esan nahi zigorgabetasuna, terminoaren zentzu arruntan, guztiz kontrakoak baizik: horrek dakar seriotan hartzea bortxakeriaren deslegitimazioa; izan ere, gaia larri inportantea eta konplexua da kokatze zehatzaile edo penal batera murrizteke, zeinak, gainera, erabiltzen dituen denborak ez baitatoz bat biktimen denborekin. Gogora dezagun Biktimen Estatutuak ez duela sortzen soilik justizia-administratioko profesional guztiek duten betebeharra diligentziak jarduteke biktimen eskubideak erreparatzeke, baita betebeharrak positiboak ere hainbat erakunde publikorentzat (justizia penaleko administratiotik haratago), halako moldez non neurri egokiak hartu behar baitira, 2012/29/EB Zuzentaraua txertatu, eta bete daitezkeen Estatutuak jasotzen dituen printzipio eta eskubideak.

Hainbat eremutan eztabaidatzen da ea justizia errestituatiboak izan behar duen eraldatzailea edo sendagarririk, osatzaile huts edo, hala badagokio, zuzentzaile eta erreparatzaile (Urban, 2016). Beharbada, ikuspuntu horiek koordinatu behar dira, zeren, eraldatze-kontzeptu larri utopikoa eta modu arriskutsuan ideologikoa erabiliz gero, dimentsio individuala galtzen da (hala biktimizazioarena nola erantzukizuna hartzearena), eta pertsonak instrumentalizatzen amaitzeko. Horrenbestez, ikuspegi sektoreartekoak behar ditugu, mikro-meso-makroak, biktimizazioaren ikuskera patologikoa eta terapeutikoetan ere erori behar ez dutenak, zeren antagonista eta individualizatzaile izaten amaitzen dute.

Justizia modura justizia errestituatiboak duen garrantziak dakar kaltea aitortzeke premia izatea, hura gaitzesteko, erantzukizuna (aktiboa eta lagundua) hartzeke eta erreparazio solidarioa lortzeke. Ikuspegi zigorzaile estigmatizatzaile barrik, nabarmendu behar da justizia erronka bat edo borondatezko aukera bat dela parte-hartzaileen premiak eta balioak malgutasunez eta sormenez integratzeke, beren ahots propioan eta gizarte osoan. Ibilera errestituatiboak hainbat dinamika dakar. Dinamika horiek, berez, ez dira berriak, baina bat egiten dute justizia errestituatiboaren perspektiba integratzaile batekin, batez ere elkarrizketa erreparatzaile eta eraldatzaile modura.

### 3. Polarizazio bortitzeko sasoietan, justizia errestituatiboaren zeregina aldarrikatzeko premia, intersubjektibotasun-modalitate konplexuago batzuen bidez

*“Hitzak geure garun-erriaekin lotzen dira, geure keinuekin eta geure sentimenduekin. Aldatzen gaituzte. Liburuak eta ideiak arriskutsuak izan daitezke; gaixotu edo zoratu gaitzakete, eta salbatzeko moduak eskaini ditzakete, minetik ihes egiteke bide bat. Baina mesfidatu behar dugu emozio txepelez, erantzun errazez, zeinak pakete distiratsuetan baitatoz “egia”ren etiketa eta guzti (Siri Hustvedt, 2019, 34. or.).*

2019ko urriaren 22an, eztabaida interesgarri bat izan zen, justizia errestituatiboak “iluntasun-sasoi”etan izan behar duen egungo zereginari buruz. Lovainako (Belgika) Unibertsitate Katolikoko irakasle Ivo Aertsenen, zeinak lan itzela sortu baitu gaiari buruz eta hainbat eta hainbat proiektutan lagundu baitu mundu guztian (Pali, Lauwaert eta Pleysier, 2019), erretiro-ospakizunean sartu zen. Ospakizun horretan, Gema Varonak parte hartu zuen, Albert Dzur (Bowling Green State University) eta Claudia Mazzucatorekin (Università Cattolica del Sacro Cuore) batera, Katrien Lauwaertek moderatuta (VU Amsterdam).

Sasoi ilunek aipatu nahi zuten zer giro bizi dugun egun munduko hainbat tokitan. Giro hori definitu daiteke polarizatzaile modura, neke demokratikoa eta etengabeko injustizia sozialekoa, eta sumindura sozia-

<sup>16</sup> Holderrek gogoratzen du interes terminoaren jatorri etimologikoa: *inter-esse* ondasun amankomunen erabilera. modura

---

lekoa. Justizia errestitatiboak bide emango luke gorrotoaren eta sufrimenduaren diskurtsoa (batzuetan biktimista) apurtzeko, aukera emanez sarrera emateko kalteari buruz beste modu prebentibo, proaktibo eta errestitatibo batez pentsatzeko, baita denboraren interdependentziaz pentsatzeko ere (iragana orainaren baldintza modura etorkizun hobea izateko). Lovainako Unibertsitateko elkarrizketan, erreparazio modura azaldu zen justizia errestitatiboa, eta ez mendekatze edo umiliazio modura, eta baieztatu zen printzipio etiko eta pragmatismoekin garatu behar dela, zeinen arabera mendekatzeak eta umiliatzeak biktima gehiago eragiten baitute eta errazago egiten baitute biktimagileek erantzukizunik ez hartzea eta aktiboki erreparazioz ez egitea (Estatu Batuak, 2019).

Ildo horretatik, justizia errestitatiboa genesi-idea da (Alcoba, 2019), zeren jakin-mina pizten du eta arreta bereganatzen, espero denetik ateratzen da eta beste ideia batzuk sortzen ditu, mugak eta belaunaldiak gaindituz. Idea original modura, justizia errestitatiboak ibilbide berrien genesia dakar: egitate erreparazioen aurrean, minaren sendagarri baino gehiago aringarri edo askatzaile da. Munariren sailkapenari jarraikiz (2018, 15.or.), justizia errestitatiboak zerikusia du, fantasiarekin baino gehiago, sormenarekin, "lehenago ez zegoen guztia" bezala "eta egingarria dena era funtsezko eta globalean", eta asmaketarekin, nahiz eta haren izaera praktikoak ez duen eragozten beraren dimentsio estetikoan pentsatzea. Munarik sarrerako aipamenean adierazten duenez ere (2018, 17. or.), fantasiak, asmaketak eta sormenak pentsatu egiten dute, harremanak ezarriz ezagutzen artean; irudimenak, berriz, ikusi egiten du. Ildo horretatik, arestian ere aipatu den bezala, liburu honetan irudimentsuak izan nahi izan dugu iduri inprimatu batzuetan islatzeko justizia errestitatiboaren izaera sortzailea (Biffi eta Pali, 2017).







A large, bold, grey number '4' is the central focus. It is partially overlaid by a white, torn-paper-like shape that extends from the top left towards the center. To the right of the number, the word 'dokumentua' is written vertically in a smaller, grey, sans-serif font. Below the text, there is a small grey circle, and to its right, a larger, solid lime-green circle is partially visible on the edge of the page.

dokumentua

---

Eskuin-muturreko erakunde terroristek  
1975. eta 1978. urteen bitartean  
eragindako motibazio politikoko biktimei  
buruzko txostena



---

# Eskuin-muturreko erakunde terroristek 1975. eta 1978. urteen bitartean eragindako motibazio politikoko biktimei buruzko txostena

---

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen  
UPV/EHUko UNESCO Katedra



**2020ko apirila**

---

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren  
**enkarguz egina**

---

*Euskadi, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



# I. Sarrera

---

## Justifikazioa

Nazio Batuen (NBE) Batzar Orokorrak ebazpen bat onartu zuen 2005eko abenduaren 16an, gai hau zela eta: Oinarrizko printzipio eta jarraibideak, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabarien eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsoak jarri eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzkoak. Ebazpen horrek estatu-kideak behartzen ditu hau bermatzera (...) *“justiziara-ko bide zuzena eta eraginkorra zabaltzea, kontuan hartu gabe azken finean zein den urraketa-aren arduraduna; eta biktimei ematea errekurtso eraginkorrak, ordaina barne (...)”*.

Gai honetan, urriak dira euskal kasuari buruzko azterketa ofizialak, eskuin-muturreko talde terroristen indarkeriaren ondorioz hil ziren biktimeen egoerari buruzkoak. Erakunde horiek, justizian egiaztatuta geratu denez, Estatu-estamentuen partaidetzarekin, inplikazioarekin edo/eta adostasunarekin aritu ziren sarritan.

Erreferentzietako bat dugu txosten hau: 1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzkoa (aurrerantzean, Auzibideari buruzko txostena)<sup>1</sup>.

Txosten horren arabera, guztira 40 hildako eragin zituzten atentatu-ekin BVEk eta haren sigla desberdinek: Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista), ATE (Antiterrorismo ETA), Acción Nacional Española (ANE) eta Grupos Armados Españoles (GAE). Kasu horietan, azterketaren arabera, 6 epai daude (% 15,00) eta 10 behin-behineko largespen (% 25,00). Gainerako 24 hilketetan (% 60,00), ez dakite zein den auzien egoera prozesala.

GALek eragindako 27 erailketa ere zenbatzen dira. Talde hori Ipar Euskal Herrian aritu zen batez ere, 1983 eta 1986 artean. Erailketa horietatik hamabitan dago epaia (% 44,44); 9 artxibatu dira (% 33,33); sumario batek behin-behineko largespena izan du (% 3,70); eta gainerako 5 kasuak (% 18,51) Frantziako auzibideak dira, eta ez dakigu zer egoera prozesal duten.

Hala ere, auzibideen gaineko informazioaz harago, beste azterketa batzuk ere behar dira, gertatu zenari buruzko deskribapen zabalagoa ematen dutenak: gertaerei buruzko datu eta inguruabar gehiago, biktimearen biografia, biktimizazio-mota... Hartara, kontakizun bat osatu ahalko da, biktimeen memoria ohoratzen, egia-aren alde egiten eta biktimearen senideen nahiz inguru afektiboaren sufrimendua aitortzen lagunduko duena.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzak egindako enkargua lotuta dago azken asmo horrekin. Hala, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen EHUko UNESCO Katedrari eskatu zion gertaeren gaineko dokumentazioa eguneratu zezala –biktimizazioen ordena kronologikoa erabilia eta *Auzibideari buruzko txosteneko* zerrenda abiapuntutzat hartuta hautatzeko irizpide gisa–, hauei buruzko zenbait datu sartuta: gertaeren inguruabarrak eta deskribapena, biktimeen nortasuna, egoera prozesalaren eguneratzea eta erreparazioa edo ordaina, halakorik izatekotan.

## Arau-esparrua

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak printzipio, arau, gomendio eta irizpideen zerrenda oparoa ematen du, alde batetik, egiarako eskubidea bermatzeko, eta, bestetik, estatu-kideak behartzeko biktimei, haien senideei edo, oro har, gizarteari informazioa eman diezaieten giza eskubideen urratze larri horiek gertatu ziren inguruabarrei buruz.

“Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabarien eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsoak jarri eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarrizko printzipio eta irizpideak”<sup>2</sup> agiriaren 11. printzipioan honako hau ezartzen da: *“Giza eskubideen nazioarteko*

---

1 FONSECA, C. –koord.–, et al.: *1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena: Euskal kasua*, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2014

2 2005/35 Ebazpena, Giza Eskubideen Batzordearena, 2005eko apirilaren 19koa; 2005/35 Ebazpena, Ekonomia eta Gizarte Arazoeta-

---

*arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioen urraketa larrien aurkako baliabideen artean honako eskubideak agertzen dira, biktimari dagozkionak, (...)*

*- c) informazio egokia urraketei (...) buruz ”.*

Era berean, 22 b) printzipioaren arabera, biktimak ordaina edo erreparazioa jasotzeko eskubidearen barruan sartzen da, asebetetze-modalitate moduan, *“egitateak egiaztatzea eta egia osoa ezagutaraztea jendaurrean (...)*”.

Era berean, 24. printzipioak honako hau ezartzen du: *“biktimek eta euren ordezkariak eskubidea izan behar dute euren biktimizazioaren arrazoiei buruzko informazioa eskatu eta lortzeko, orobat giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabariaren eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien arrazoi eta baldintzei buruzkoa. Era berean, urraketa horiei buruzko egia jakiteko modua izan behar dute”.*

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak, saioen 61. aldian, 2005/66 ebazpena ezarri zuen. Bertan, *“egiarako eskubidea errespetatu eta bermatzearen garrantzia aitortzen du, zigorgabetasunarekin amaitzen laguntzeko eta giza eskubideak sustatu eta babesteko”.* Ebazpen horretan bertan, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoak eskubide horren gaineko azterketa bat presta dezala eskatzen da. Azterketa horretan, *“eskubide horrek nazioarteko zuzenbidean dituen oinarriak, irismenari eta esanahiri buruzko informazioa jaso beharko da”.*

Urtebete geroago, azterketa hori egin zen, eta, bertan, egiarako eskubidea zehaztuta agertzen da, nazioarteko zuzenbidearen esparruan. Azterketaren ondorioak txosten honen kontzeptu- eta araudi-erreferentzien barruan sartuko dira, bai eta Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretua ere, aurrerago aipatuko duguna.

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoaren azterketari jarraikiz, giza eskubideen urratze nabarmenei eta giza eskubideen arauen urratze larriei buruzko egia ezagutzeko eskubide hori eskubide autonomoa eta besterenezina da, eta Estatuaren betebeharrak bati lotzen zaio: giza eskubideak babestu eta bermatzea, ikerketa eraginkorrak egitea eta baliabide eraginkorrak egon daitezela eta erreparazioa jaso dadila bermatzea. Eskubide horrek, lotura estua baitu beste eskubide batzuekin, aldagai indibidual eta kolektiboak dauzka, eta etenezinezkotzat hartu behar da, murrizketarik gabekotzat. Era berean, estu lotzen zaio estatuen betebeharrari: zigorgabetasuna saihestu eta erauztea<sup>3</sup>.

58. paragrafoan dioenez, “giza eskubideen urratze nabarmenen kasuetan –hala nola tortura, auzibidetik kanpoko exekuzioak eta desagertu behartuak–, zuzenbide humanitarioaren urratze larrietan eta nazioarteko zuzenbideko bestelako delitu-egoeretan, biktimek eta senideek egia jakiteko eskubidea dute. Egitarako eskubideak gizarte-alderdi bat ere badu: gizartearen eskubidea da egia jakitea krimen aberranteekin zerikusia duten iraganeko gertaerei buruz, bai eta krimen horien inguruabar eta arrazoiei buruz ere, etorkizunean berriz ere errepikatu ez daitezen”.

Erakunde publikoek motibazio politikoko indarkeriaren biktimei arreta eta erreparazioa emateko dituzten betebeharrak zehazten dituen araudi autonomikoari dagokionez, hau onartu zuen Eusko Jaurlaritzak **107/2012 DEKRETUA, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko.**

Dekretu horrek sarreran dioenez, Eusko Jaurlaritzak *“aitortzen du bidegabea dela biktima haien sufrimendua”, (...)* *“halaber, biktimok erakundearen aldean jasan duten ahanztura amaitzea”. (...)* eta *“adierazten du asmo irmoa duela sufrimendu hori arintzen laguntzeko, eta, horretarako, ordainak emateko neurri batzuk ezartzen dituela”.*

Dekretu horren ostean, hain zuzen ere, urrats bat gehiago eman behar zela ikusi zen, eta legegintzako mugari are gogoangarriago gisa onartu zen, beraz, **12/2016 LEGEA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko.**

---

rako Kontseiluarena, 2005eko uztailaren 25ekoa.

3 NAZIO BATUAK. Ekonomia eta Gizarte Kontseilua. Giza Eskubideen Batzordea. Saioen 62. aldia. Egitarako eskubidearen gaineko azterketa. Txostena, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarena.  
<https://undocs.org/es/E/CN.4/2006/91>



Aipatu legeak zioen azalpenean xedatzen duenez, “107/2012 Dekretuak eta lege honek biltzen dituzten gairietan Euskadin pairatu ziren giza eskubideen urraketen diagnostiko oso batek bere barruan hartu behar ditu terrorismoaren biktimak eta agente publikoek beren lanean, zuzenean edo zeharka, eragindako urraketen biktimak”. Eta, horren arabera, bai 107/2012 Dekretua, bai Legea “mugatzen dira errekonozimendurik eta erreparaziorik izan ez duten biktimak artatzera, bestela interpretatzeko biderik gabe”. Eta, horren arabera, Legeak biktima horiei egiten dien errekonozimendua “beharrezkoa da bizikidetzaren normalizatzeko eta iraganaren memoria kritikoa eraikitzeko”.

Ondorioz, bai biktima horien existentzia, bai justizia, errekonozimendu eta erreparaziorako dituzten eskubiak jasota geratu dira aipatu dugun nazioarteko eta erkidegoko legedian, eta, hala, azterketa honen legezko oinarria osatzen dute. Araudi-mailakoak ez diren beste agiri batzuk ere (esaterako, giza eskubideen nazioarteko erakunde txostenak edo erakunde akademikoek egindakoak nahiz kazetaritzako informazioak) kontsultatu dira txosten honetarako datuak bilatzean.

## Txostenaren helburuak

Hona txostenaren helburu orokorra: biktima batzuen egitarako eskubidea gauzatzen laguntzea; hain zuzen ere, eskuin-muturreko taldeek 1975. eta 1978. urteen bitartean eragindako motibazio politikoko biktimena. Zehatzago esanda, kasuei buruzko informazioa eguneratu eta sendotzea, eta, horretarako, gertaerei, biktimaren nortasunari eta auzibidearen nahiz erreparazioaren alderdiei buruzko informazioa ematea.

Lan honen azken helburua, hain zuzen ere, oinarri izatea da, erakundeek biktimetako bakoitzari errekonozimendu pertsonalizatua eman diezaioten, kasu bakoitzean eskuragarri dagoen informazioa biltzen duen agiri bat entregatuta.

## Eskuin-muturreko talde terroristak: BVE (eta bere sigla desberdinak) eta GAL

Batallón Vasco Español (BVE) Espainiako erakunde parapolizial bat izan zen, orduko gobernuko presidente Luis Carrero Blanco 1973ko abenduaren 20an erail eta gero sortua. Kide gehienak soldatapeko mertzenarioak, poliziak, zerbitzu sekretuetako kideak eta ultraeskuindarrak ziren, eta Frantziaren hegoaldean eta Euskadin jardun zuten 1975eko ekainetik 1982ko urtarrilera bitartean, ETaren terrorismoari aurka egiteko asmoz. Sigla gehiago ere erabili zituzten atentatuen egiletza beren gain hartzean: Triple A, ATE, ANE eta GAE. Talde horietan aritu ziren mertzenarioetako batzuk Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL)<sup>4</sup> izeneko taldeetan sartu ziren urte batzuk beranduago.

Eskuin-muturreko talde terrorista horiek bortizki jardun zuten nazionalisten eta ETako errefuxiatuen kontra, baina baita inolako pisu edo garrantzi politikorik gabeko herritarren kontra ere. Horixe da, esate baterako, Ladislao Zabalak eta Ignacio Maria Iturbidek<sup>5</sup> *Heriotzaren triangelua* deiturikoan (Andoain, Urnieta, Hernani) hildako zenbaiten kasua. Edo 1980ko azaroaren 23an *Hendayais* tabernaren aurka egindako atentatua, non bi pertsona hil ziren metrailatuta eta bederatzi larriki zauritu. Pertsona horietatik guztietatik, bik baino ez zuten harremanen bat euskal errefuxiatuekin.

1985eko ekainean, Zabala eta Iturbide epaitu zituzten, zazpi erailketaren zioz, beste delitu batzuen artean, eta 231 urteko espetxe-zigorra jaso zuten.

Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL) talde terrorista segurtasun-indarreko kideek eta soldatapeko mertzenarioek osatu zuten: ETako militante eta jarraitzaileen kontra egin zuten, Ipar Euskal Herrian batez ere, ETaren aurkako gerra zikina izenez ezagutzen den horretan. 1983. eta 1987. urteen bitartean egon

---

4 FONSECA, C. (Koord.), et al.: 1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena: *Euskal kasua*, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2014, 21. orr.

5 1979. eta 1981. urteen bitartean, zazpi pertsona erail zituzten, eta zigorrak jaso gabe jardun zuten, agintariak nahiz inguruko bizilagunek haien jardueren berri izan arren, harik eta 1981eko martxoan atxilotu zituzten arte. Ikusi: MOLINA, F./PÉREZ, J.A. “El monopolio de la violencia ilegítima: Terrorismos paraestatales y brutalidad policial”, FUSI, J.P./PÉREZ, J.A.: *Euskadi 1960-2011. Dictadura, transición y democracia*, Biblioteca Nueva, Madril, 2017, 169. orr.

---

zen aktibo GAL taldea, hots, Felipe Gonzálezen bi gobernuetan zehar. GALen aurkako ikerketa judizialek eta epaiketek frogatu zuten, haren ekintzak funts erresebatuen bidez finantzatu ziren, Barne Arazoetako Ministerioaren babesarekin, eta erakunde horretako eskala hierarkiko ia osoa kondenatu zuten: José Barriónuevo, ministroa; Rafael Vera, Segurtasunerako Estatu-idazkaria; Francisco Álvarez, terrorismoaren aurkako borrokako burua; Miguel Planchuelo, Informazio Brigadako burua; Enrique Rodríguez Galindo, Guardia Zibileko jenerala; Ángel Vaquero, Guardia Zibileko teniente koronel ohia; Julián San Cristóbal, Bizkaiko gobernadore zibila; Julen Elgorriaga, Gipuzkoako gobernadore zibil ohia; José Amedo, Poliziako komisariordea; Michel Domínguez, polizia; eta Ricardo García Damborenea, PSOEko idazkari nagusia Bizkaian.

## Metodologia eta iturriak

Ikerketak zeharkako iturriak baliatuko ditu, eta gai horren gainean eskuragarri dagoen literatura aztertuko du. Hala ere, beharrezkoa da aurretiazko zailtasun moduan aipatzea urriak direla biktima horien gaineko azterketa ofizialak. Kasuei buruzko dokumentazio gehiago emate aldera, bibliografia eta kazetaritzako materialetan sakabanatutako informazioa kontsultatu eta egiaztatuko da.

Era berean, beste zailtasun bat ere aurreikusten da: dokumentazio ofizialerako irispidea. Aurreko esperientzietatik ikasi dugunez, artxibo ofizialetatik ez zaie aterik ireki ETaren biktimak ez diren kasuetarako informazio-eskariari. Dihadugun lan honetan aurrera egiteko, bereziki esanguratsua da Auzitegi Nazionalak izapidetutako kasuen auzibideko dokumentazioa edo Barne Arazoetan Ministerioaren artxiboak kontsultatzea, baita, kasu zaharragoetarako, artxibo militarrek ere. Baina, esan bezala, erakunde horiei egindako informazio-eskariak oso gutxitan izan dute arrakastarik. Eta zailtasun handiago horrek metodologia eta emaitzak baldintzatzen ditu. Gainera, biktimizazio osagarria sortzen du, gertaerek lehendik ere eragin zuten giza eskubideen urratzean.

Metodologiak zenbait fase aurreikusten ditu txostena egiteko:

### 1. FASEA: Kasuak hautatzea

Hautaketa egiteko, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzarekin adostu zen gisan, ordena kronologikoa hartuko da kontuan.

Gure lehen esku-hartzean, 1975. eta 1978. urteen bitartean jazo ziren kasuak aztertuko ditugu:

### 2. FASEA: Kasuei buruzko dokumentazioa bilatu eta errepasatzea

Bibliografiko eta kazetaritzako iturrietatik datorren informazioa identifikatuko da. Era berean, informazioa eskatuko zaie gobernu-, justizia- eta militar-erakunde batzuei.

### 3. FASEA: Dokumentazioa aztertu eta txostena egitea

Azken txostena egiteko informazioa bildu eta antolatuko da. Txosten horretan, aurretiaz aurkeztuko dira hautatutako zazpi kasuen gaineko datuak eta informazioak.

OHARRA: Lan hau martxan dago gaur egun. XII. legealdiaren lehen zatian amaituko da.





A large, bold, grey number '5' is the central focus. To its right is a small grey dot, and further right is a larger, solid green circle. The background features abstract, overlapping white and grey geometric shapes that resemble torn paper or layered planes.

# 5. dokumentua

---

Euskal Autonomia Erkidegoaren  
12/2016 Legea,  
“Euskal Autonomia Erkidegoan 1978  
eta 1999 bitartean izandako motibazio  
politikoko indarkeria egoeran  
giza eskubideen urraketak jasan  
dituzten biktimei errekonozimendua  
eta erreparazioa ematekoa”, giza  
eskubideen nazioarteko araubidearekin  
bateragarria den



---

Euskal Autonomia Erkidegoaren 12/2016 Legea,  
**“Euskal Autonomia Erkidegoan 1978  
eta 1999 bitartean izandako motibazio  
politikoko indarkeria egoeran giza  
eskubideen urraketak jasan dituzten  
biktimei errekonozimendua eta  
erreparazioa ematekoa”**,  
giza eskubideen nazioarteko  
arabidearekin bateragarria den

---

Fabián Salvioli

**2017ko apirilaren 24a**

---

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren  
**enkarguz egina**

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetzeta  
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación

## **Fabián Salvioli<sup>1</sup>**

---

<sup>1</sup> Zientzia Juridiko eta Sozialetan doktorea (cum laude); Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna; La Platako (Argentina) Unibertsitate Nazionaleko Zientzia Juridiko eta Sozialen Fakultateko Giza Eskubideen Institutuko eta Maisutzaren zuzendaria; Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko kide ohia (2009-2016) eta buru ohia (2015-2016). Irizpen hau aholkulari aditu independente gisa ematen du, eta ez du nahitaez tartean sartzen egilea kide deneko edo izan deneko erakundeen ikuspuntua.



## Aurkibidea

- I. Sarrera.
- II. 12/2016 Legearen xedea eta gizakiaren babeserako nazioarteko araubidea.
- III. 12/2016 Legearen aplikazio arauemailearen esparrua, gizakiaren nazioarteko zuzenbidearen argitan.
  - a) Ez ikertzeagatik Estatuak duen erantzukizuna: aurreikuspen arauemailea eta gizakiaren nazioarteko zuzenbidea.
  - b) Arauaren denborazko aplikazioa eta aplikatzekoa den giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea.
  - c) Arauaren jurisdikzioa eta nazioarteko zuzenbidea.
  - d) Onuradunak.
- IV. Legean ezarritako jarduketa-printzipioak eta nazioarteko estandarrak.
- V. 12/2016 Legean ezarritako errekonozimendua eta erreparazioa gizakiaren nazioarteko zuzenbidearen argitan.
  - a) Errekonozimendu publikorako eskubidea eta hura betetzeko neurriak.
  - b) Egia jakiteko eskubidea.
  - c) Nazioarteko estandarretan aurreikusitako erreparazioa.
- VI. Legean aurreikusitako arau prozesalak, biktima-izaera identifikatu eta aitortzearen eraginetarako, eta kasuan kasuko erreparazioak ematea.
- VII. Onuradunen eginbeharrei buruzko kapitulua.
- VIII. Estatuaren erantzukizuna zehaztea; 12/2016 Legeak eta nazioarteko zuzenbideak arlo horretan biltzen dituzten irizpideak, izaera eta aurreikuspenak.
  - a) Izaera: erantzukizun objektiboa, nazioarteko zuzenbideak arautua.
  - b) Nazioarteko eginbeharrak barne eremuan betetzea.
  - c) Estatuak egitateetan izandako parte-hartzea, giza eskubideen urraketarengatiko erantzukizuna eta, horrenbestez, erreparazioa emateko betebeharra sortzeko eraginetarako.
  - d) Giza eskubideen urraketarengatiko erantzukizuna zehazteko prozesua; zigor zuzenbidearekin duen lotura.
- IX. Espainiari buruz Nazioarteko organoek biktimei erreparazioa emateko betebeharra dela-eta hartutako erabakiak.
- X. Amaierako gogoetak.



## 1. Sarrera

---

Azterlan honek analisi bat egiten du, giza eskubideen nazioarteko zuzenbide garaikidearen ikuspuntutik, uztailaren 28ko 12/2016 Legea eta eskubide horiek bateragarriak izateari buruz. Honako hau da legearen izenburua “Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa”. Legearen xedapen arauemaileei buruzko gogoeta nagusiak egin ditugu, gizakiaren nazioarteko zuzenbidearen oinarri diren betebeharrak, irizpideak, printzipioak eta estandarren argitan.

Azterlan hau egiteko hautatu eta erabili den metodologia honako honetan datza: 12/2016 Legearen helburuari, kapituluari eta xedapen nagusiei buruzko balorazio kritiko bat egitean —substantziari eta prozedurari erreparatuta—, aintzat hartuz nazioarteko tresna juridikoak, nazioarteko organo kuasijurisdikzionalen erabakiak eta dagokion jurisprudentzia.

Halaber, aztertzen ari garen gaia erabat ulertzeko daukan garrantzia dela eta, egiturazko zenbait gogoeta egin ditugu giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen oinarriko instituzioei buruz; honako hauei buruz, hain zuzen: estatuen nazioarteko erantzukizuna eta barneko edo etxeko eremuan nazioarteko arau eta erabakiak betetzea eta betearaztea, horretarako ardatz hartuta giza eskubideen urraketan biktimentzako jasan dituzten urraketan ondoriozko erreparazioaren institutuari buruzko teoria eta garapena.

Azkenik, jasota uzten dugu ezen lan hau ez datzala aztertzen ari garen legearen xedapen guzti-guztien iruzkin sakon bat egitean —azterlanaren nahiaz haragokoa baita hori—, baizik eta zehaztean zein mailatan den legea bateragarria emakumeen eta gizonen eskubideen eta askatasunen arloko nazioarteko betebeharrarekin, nazioarteko zuzenbidearen egungo araubide juridikoaren arabera; hau da, baloratzean ea legea nazioarteko zuzenbideak adierazitako norabidean doan.



## II. 12/2016 Legearen xedea eta gizakiaren babeserako nazioarteko araubidea

12/2016 Legearen aurrekariak Eusko Legebiltzarrak iraganean onetsi zituen beste xedapen arauemaile batzuetan daude, zeinak zuzendu baitziren 1960 eta 1978 bitartean autonomia-erkidego horretan gertatutako giza eskubideen urraketen biktimezako erreparazio-neurriak ezartzera<sup>1</sup>.

Onetsita dagoen 12/2016 Legeak, azterlan honen analisiaren arabera, helburu nagusi du giza eskubideen urraketa jakin batzuen biktimei errekonozimendua ematea —xedapen arauemaileak, terminologikoki, “vulneraciones” hitza aipatzen du gaztelaniazko izenburuan; hau da, bizitzaren eta osotasunaren urraketak, egitate horiek Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 artean gertatutako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan gertatu direnean— eta, horrenbestez, biktima horiei erreparazioa ematea, Eusko Legebiltzarrak finkatutako parametroetan.

Halaber, beherago aipatzen denez, legean zabalpen bat ere badago 12/2016 Legeak jasotzen dituen kasuak aplikatzeko orduan, autonomia-erkidegoaren mugez kanpo gertatu diren beste egitate batzuegatiko erreparazioak xedatze aldera; erreparaziorako betebeharra onartzen da nagusiki kontuan hartuz biktimek euskal autonomia-erkidegoarekin izan dituzten loturak —funtsean bizitokiarena.

Hala, legeak prozedura eta tresna luze batzuk ezartzen ditu, behin biktimaren izaeraren zehaztapena identifikatuta eta Egiaztatze Batzordeak gomendioa eginda eta dagokion organoak erabakia hartuta, erreparazio-neurri batzuk xedatzeko —nagusiki diru-izaerakoak edo kalte-ordain / konpentsazio ekonomikoa ematekoak, baina horietara mugatu gabe—, bai eta asistentziaren arloko beste neurri batzuk xedatzeko ere, biktimei edo —kasua bada— haien eskubidedunei zuzenean eskain dakizkien.

Lehenbizi esan beharra dago giza eskubideen urraketen biktima direnei duintasunaren eta erreparazioaren errekonozimendua egitea dela arauaren zentzua, haren edukitik eta oinarrietatik eratortzen denez. Hori guztiz bat dator arloari aplikatzekoak zaizkion nazioarteko estandarrekin. Izan ere, Nazio Batuen Erakundeko Torturaren aurkako Batzordeak argi adierazi izan du “**biktimaren duintasuna berrezartzea dela erreparazioaren azken helburua**”<sup>2</sup>.

Halaber, aztergai dugun 12/2016 Legeak guztiz errespetatzen ditu nazioarteko estandarrak —azterlan honen ondorengo kapituluetan zehazten diren arrazoiengatik—, eta, halaber, **pisu** araudi baten gisara identifika daiteke. Horrenbestez, ezerk ere ez du debekatzen etorkizunean erreparazioaren betebeharra beste erreparazio-neurri batzuk ezarri ere bete ahal izatea, dela denboraren aldetik daukan aplikazio-esparruari begiratuta, dela funtsari begiratuta; esate baterako, bizitzaren eta osotasunaren beste giza eskubide batzuen urraketek dagokienez. Eta hori guztia ere bat etorriko litzateke gizakiaren nazioarteko zuzenbidearekin eta **progresibitatearen edo garapen progresiboaren** printzipioarekin.

Giza eskubideen urraketengatiko erreparazioa Estatuaren betebeharrak bat da, nazioarteko arau konbentzional eta ohiturazkoetatik ateratzen dena; hartara, nazioarteko zuzenbide publikoaren doktrina orokorrean zabaltasunez onartzen da Nazio Batuen Erakundearen Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordearen jokabidea eta garapena, bai eta giza eskubideei buruzko itunen aplikazioa gainbegiratzen duten eskualde mailako organo judizialek eta kuasijurisdikzionaletan etengabe sortzen duten jurisprudentzia ere<sup>3</sup>.

1 61/2011 Legez Besteko Proposamena, 2011ko martxoaren 31koa (Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak onetsia), eta hartatik heldu zen 107/2012 Dekretua.

2 Torturaren aurkako Batzordea: 3. Ohar Orokorra (2012). “Estatu alderdiek 14. artikulua aplikatzea”; CAT/C/GC/3; 4. paragrafoa.

3 Erreparazioen norainokoari buruzko azterketa garrantzitsu bat Nazio Batuen Erakundearen agiri honetan topa daiteke: Nazio Batuek: Giza Eskubideen Batzordea, Gutxiengoaren Bazterkerien Prebentziorako eta haiek Babesteko Azpibatzailea, 45. bilkuraldia, “Giza eskubideen eta oinarriko askatasunen urraketa ageri-agerikoen biktimei berrezarpena, kalte-ordaina eta errehabilitazioa emateko eskubideari buruzko azterlana”. Errelatore berezi Theo van Bovenek aurkeztutako behin betiko txostena, E/CN.4/Sub.2/1993/8. Halaber, onartutako printzipio eta jarraibide hauetan: “Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekursoak aurkeztu eta erreparazioak lortzeko duten eskubideari buruzko oinarriko printzipio eta jarraibideak” (Batzar Nagusia: 60/147 Ebazpena, 2005eko abenduaren 16koa).

---

Eginbehar hori betetzeko bidean dagoen ekimen orok, printzipioz, bat etorri behar du nazioarteko zuzenbidearekin; halaber, xede horiek dituzten neurriak hartuta, balio handiko pausotzat aurkeztu ahal izango ditu Estatuak ekintzok giza eskubideen arloko nazioarteko ikuskapen-organoetan (dela mundu mailan, dela eskualde mailan ere), eta organo horiek, ekintzak aztertutakoan, berretsi egingo dituzte eta ontzat joko dituzte, eta inoiz beste ekintza batzuk iradokiko dituzte, haiek osatzeko eta “erreparazio osoaren” printzipio gidaria betetzeko asmoz, hala dagokiola uste dutenean.

Aztergai dugun 12/2016 Legearen xedea guztiz bateragarria da nazioarteko estandarrekin, nahiz eta haren edukia —edo haren behar bezalako aplikazioa— giza eskubideen nazioarteko zuzenbideetik heldu diren parametro guztiekin osa daitekeen; izan ere, arloko nazioarteko zuzenbideak, gorago aipatu dugun bezala, erreparazio osoaren irizpidea berretsia du.

Beste ikuspegi batetik esanda, 12/2016 Legearen xedapen substantiboak eta hura berresteko prozesuko zioen azalpenean adierazitakoa aztertuta, arauan maila teleologikoan —haren xedean eta helburuan— ezarritakotik ezer ere ez da bateraezina gizakiaren nazioarteko zaintza-araubide garaikidearekin, hori Nazio Batuen Erakundean eta Europako Kontseiluan gaur egun araututa eta ezarrita dagoen bezala; izan ere, horiexek dira Espainiako Erresuma atxikita dagoen mundu mailako eta eskualde mailako erakundeak, zeren eta haietako kidea baita eta nazioarteko erakunde horien barneko zaintzaren sare konbentzionalaren barnean indarrean dauden eta hura osatzen duten giza eskubideen arloko tresna juridiko nagusiak —itunak, hitzarmenak eta protokoloak— berretsiak baititu, eta tresna horiexek baitira estatu kide guztiek arlo horretan dauzkaten eginbehar eta betebeharren iturri nagusiak.

Are gehiago, aurrerago garatuko dugun bezala, egokiagoa da esatea 12/2016 Legea lerrokatuta dagoela giza eskubideen biktimentzako erreparazioen arloko eginbeharrak zorrotz betetzearekin; izan ere, eginbehar horiek ateratzen dira honako hauek berretsiak dituzten estatuentzat gaur egun indarrean dagoen araubide juridikotik: alde batetik, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta, bestetik, Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna eta Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Nazio Batuen Konbentzioa —soilik Nazio Batuen esparruan nagusi direnak aipatzearen.

### III. 12/2016 Legearen aplikazio arauemailearen esparrua, gizakiaren nazioarteko zuzenbidearen argitan

---

12/2016 Legearen (2. art.) aplikazio-esparrua arloan egokienak diren nazioarteko estandarren arabera da, zeren eta —**xedeari buruzko eskumena**— zuzen definitzen baititu giza eskubideen urraketa giza nazioarteko tresnetan ezarritako eskubide batzuk ukitzen dituzten egitateak (bizitzaren eta osotasunaren kentze arbitrarioak ez jasateko eskubidea; izan ere, osotasuna zer den modu zabal eta egokian zehaztuta dago, osotasun fisiko, psikiko, moral edo sexuala hartzen baititu<sup>4</sup>).

Gizakiaren zaintzako nazioarteko araubidean, eskubide horiek giza eskubideen **gune gogorra** deitutakoan daude, eta, gainera, zuzenbide internazionalistaren doktrinaren zati handi batek bizitzaren kentze arbitrarioaren eta torturaren debekuak kokatzen ditu **erga omnes** eginbeharrak ekartzen dituzten nazioarteko ordena publikoko arauen artean —ius cogens. Nolanahi ere den, eta betebehar horiek nazioarteko eskala juridikoan duten kokapenari buruzko doktrinaren balizko jarrerez haratago, adostasun zabal bat badago —horixe adierazten dute xedapen arauemaile argiek eta nazioarteko erakundeek aho batez egiten duten interpretazioak—: eskubide horiek etenezinak dira.

---

4 Hori guztia bateragarria da osotasunerako eskubidearen norainokoarekin, Nazio Batuen Erakundearen Torturaren aurkako Batzordeak ezarritakoari begiratuta, bai eta organo eskudunen antzeko beste interpretazio batzuei begiratuta ere, nola baitira Torturaren aurkako Nazio Batuen errelatore nagusiarenak eta Giza Eskubideen Batzordearenak (azken hori Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 7. artikulua aplikatuz).

Izan ere, Espainiako Erresuma partaide den tresna juridiko konbentzionaletan finkatutako nazioarteko araubideek debekatzen dute edonola ere indargabe daitezela beste batek bizitza arbitrarioki ez kentzeko eskubidea eta tortura edo tratu krudel, anker edo apalesgarriak ez pairatzeko eskubidea<sup>5</sup>.

12/2016 Legeari dagokionez, hasiera batean esan beharra dago ezen, aurreko paragrafoetan adierazita-koaren ondorioz, nazioarteko araudiak bidea errazten diola legeak alegatzen diren egitateak aztertzeko ezartzen duen organoari (Balorazio Batzordea deitzen zaio), ez baitu inongo haztatze-analisirik egin behar-ko beharrari, proportzionaltasunari edo zilegitasunari buruz: horiek ezinbesteko irizpideak dira egitateak eskubide-urrietak diren ondorioztatzeko horietan murriztapen- edo etete-graduak onar daitezkeenean; ha-lakorik ez dagokio, ordea, kasu honetan.

Aztergai dugun arauak, horrenbestez, etenezintzat edo “ezin indargabetu daitezkeen” eskubidetzat jotakoetan —bizitzarako eta osotasunerako eskubideak— jartzen duenez arreta, aplikatzekoak diren eta indarrean dauden nazioarteko estandarren arabera Estatuaren erantzukizuna sortzen duten egitateetan haiek urratu izanari buruzko egiaztapen objektibo soilak berekin ekarriko du 12/2016 Legean aurreikusitako onuren ara-berako benetako erreparazioarako betebeharra sortzea.

#### a) Ez ikertzeagatik Estatuak duen erantzukizuna: aurreikuspen arauemaile eta gizakiaren nazioarteko zuzenbidea

Halaber, eta oraingoan ere gaia zein den ikusita, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izan-dako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urrietak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legearen aplikazio-esparruan sartuta dago arau horrek aipatzen dituen giza eskubideen urrietak ez ikertzea (2.3 art.).

Hartara, legeak egoki jasotzen du Estatuaren erantzukizunaren identifikazioa eta **bermearen betebeharretik** heldu diren eginbehar nagusietako bat urratetik heldu den erreparazioa: hau da, baliabide erabilgarri bat jar-tzea eta egoki ikertzea alegatutako eskubide-urrietak<sup>6</sup>.

Zaintzarako nazioarteko organoen jurisprudentziak —nagusiki Nazio Batuen organo kuasijurisdikzionalenak eta, eskualde mailan, giza eskubideen gorteenak— modu uniformearen identifikatu du ikertzeko betebeharroriek ez betetzea aplikatzen dituzten xedapen konbentzionalen urraketak bat dela<sup>7</sup>.

Horrenbestez, aztertzen ari garen xedapen zehatz hori (12/2016 Legearen 2.3 art.) guztiz bat dator gizakiaren nazioarteko zuzenbidearekin eta zaintzaren nazioarteko araubide horretatik heldu diren estandarrekin.

#### b) Arauaren denborazko aplikazioa eta aplikatzekoa den giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea

12/2016 Legeak aplikaziorako aldi mugatu baten esparru jakin bat dauka (1978ko abenduaren 29tik 1999ko abenduaren 31ra arteko egitateak), 2.1 artikulua aipatzen duen bezala.

Azter daiteke —nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik— ea denbora-esparru hori arbitrarioa edo bazter-tzailea den; lehenbizi, aztergai dugun arauaren zioen azalpenak zehazten du 12/2016 Legea aurretiko lege-diak erreparazioaren arloan hasitako bidearen jarraipena dela, eta lege berriaren beharra etorri dela 1978ko abenduaren 29tik giza eskubideen urraketak larrien biktimak izanik errekonozimendua eta erreparazioa jaso

---

5 Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966), 4. art.; Torturaren eta beste tratu krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa (1984), 2.2 art.; Giza Eskubideei buruzko Europako Konbentzioa (1950), 15. art.

6 Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 2.3. art.; eta Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa, 13. art.

7 Giza Eskubideen Batzordea, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunari dagokionez; Torturaren aurkako Batzordea, Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioari dagokionez; Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenari dagokionez. Amerikako jurisdikzio erregionalean, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak estandar horiek berretsi izan ditu, are bere hasiera-hasierako jurisprudentzian ere.

---

ez dutenak badirela egiaztatu delako; izan ere, agindu etiko eta demokratiko bat da haiei errekonozimendua eta erreparazioa ematea.

Halaber, 12/2016 Legeak aukera ematen du ezartzen dituen onurak bi kasutan zabaltzeko; honako hauek dira: batetik, 2.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete bai baina 107/2012 Dekretuaren barruan sartzen ez zirenak; bestetik, legearen aplikazioa zabaldu daiteke osasun-arretari dagokionez —11. artikulua—, dekretu horretan aurreikusitako erreparazioa jada jaso dutenez, dekretuak ez baitzuen pareko erreparaziorik ezartzen.

Aztertutako legean finkatutako denbora-mugei dagokienez, nazioarteko zuzenbidean ezer ere ez dago horren aurka; are gehiago, logika osoa du ezen, behin aldi jakin baten esparruan gertatutako giza eskubideen urraketan egoera orokor bat onartuta, legediak egoera horri behar bezala aurre egin diezaiola eta tresnak ezar ditzala biktimak identifikatzeko, eta, halaber, erantzun gisa erreparazio-neurriak ezar ditzala. Garrantzitsua da orobat nabarmentzea ez dela debekurik ezartzen geroko arauak beste garai batean gertatutako egitateengatik erreparazioak zabaltzeko —horixe baita aztertzen ari garen arauaren adibide zehatza, zeren eta nolabait ere osatzen baititu, denboraren ikuspuntutik, 2011ko martxoaren 31ko 61/2011 Legez Besteko Proposamena eta hartatik etorri zen 107/2012 Dekretua—. Ikuspuntu horretatik, 12/2016 Legea bat dator gizakiaren nazioarteko zuzenbidetik ateratzen diren eginbehar eta estandarrekin.

12/2016 Legearen babesean finkatutako sarbide moduari dagokionez, legearen beraren kasu faktikoetan sartzen diren baina 61/2011 Legez Besteko Proposamenaren eta 107/2012 Dekretuaren babespean gertatzen diren ez zuten pertsonen erreparazioak jaso ahal ditzaten, legea goraiatu baizik ezin da egin, zeren eta asmatu egiten baitu pertsonaren aldeko printzipiotik eta perspektibatik sortzen diren betebeharrak erantzuten, eta modu egokian eskaintzen baitie babesa aurrez erreparazio partziala jaso duten biktimei, “erreparazio osoa” deitutakoa benetan betetzeko bidean.

### c) Arauaren jurisdikzioa eta nazioarteko zuzen

Jurisdikzioaren arloan, onetsitako proiektua ez da mugatzen lurraldetasunaren irizpidera (5.a art.); izan ere, aurreikusten du erreparazioa aplikatzea egitateak gertatu zirenean unean bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan zeukaten pertsonen —nahiz eta egitateak erkidego horretatik kanpo gertatu—, edo autonomia-erkidego horretan hamar urtez bizi izandakoei (5.b art. eta 5.c art.).

Nazioarteko zuzenbidean ezer ere ez dago erreparazioak ezartze aldera ezaugarri horiek kontuan hartzearen aurka; hori guztia honako kontzeptu klasiko hauen indarrez: “jurisdikzioaren pean” —zabal ulerturik— gertatzen diren egitateengatik erantzukizuna eta, bereziki, “*personaren aldeko perspektiba*”ren aplikazio hermeneutikoa, zeinak aukera ematen baitu —eta agintzen baitu— eskura dauden irizpide bermatzaileenak aplikatu daitezela, iturria edozein dela ere, barneko zuzenbidea nahiz nazioarteko araua; kasu honetan, aztergai dugun arauak gizakiaren nazioarteko zuzenbidea aberasten du.

Legebiltzarrak bere gain hartu du giza eskubideen urraketan biktimei erreparazioa emateko betebeharra, lurraldetasunaren eta bizilekuaren nahiz pertsona horiek autonomia-erkidegoarekin zuten loturaren irizpideekin eta nazioarteko zuzenbidearen eta hartatik sortzen diren estandarren irizpidearekin —aztergai dugun itemeari ageri dira, 12/2016 Legearen 5. artikuluan zenbait tartekitan ezarritako xedapenetan.

### d) Onuradunak

Legeak onuradunei buruz jasotzen dituen alderdiei begiratuta, hildako pertsonentzako kasuetan kalte-ordainak banatzeko irizpidea (3.2 art.), halaber, giza eskubideen nazioarteko estandar garaikideen arabera da; izan ere, familia zentzu zabalean hartzen du, eta horren barrenean bizikidetasuna egiazta dezaketen pertsonak (“*bizikideak*”) ere jaso eta biltzen ditu.

“Familia”ren kontzeptuak eta hura nazioarteko zuzenbide garaikidean babestetik heldu diren giza eskubideek ez dute mundu osoan ikuskera uniformerik, eta zaintzaren arloko nazioarteko organoek arreta handia eskaintzen ari zaizkio gizarteak izaten ari diren bilakaerari —horrek, izan ere, bidea eman dio bereziki Giza Eskubideen Europako Auzitegiari askotan “baloraziorako tartea” esaten zaion doktrina aplikatzeko.



Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordeak adierazi du biktimatzat ulertuko dela kalteak banaka edo kolektiboki jasan dituen pertsona oro, horren barnean direla lesio fisiko edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo oinarritzko eskubideen galera substantziala, baldin eta Torturaren aurkako Konbentzioaren urraketa bat diren egintzen edo ez-egiteen ondoriozkoak badira. “Biktima” terminoak, halaber, hur-hurreko familia edo biktimaren kargura dauden pertsonak ere hartuko ditu, bai eta biktima bati sorospena emateko edo haren biktimizatzea eragozteko esku hartzean kalteak jasan dituzten pertsonak ere<sup>8</sup>.

Adierazitakoa dela eta, ondoriozta daiteke legea bat datorrela giza eskubideen arloari buruzko kontzepzio zabalenekin eta babes handiena ematen dutenekin; eta, berriz ere aztergai dugun gaiari erreparatuta, aipatu beharra dago ezen “pertsonaren aldeko printzipio”aren ikuspuntutik —“pertsonaren aldeko perspektiba”-ren elementuetako bat— ezin dela identifikatu nazioarteko estandarrekiko kontraesanik; aitzitik, legearen aurreikuspena bermatzaileenak diren estandarren ildoan dago.

Halaber, eta aztergai dugun aurreikuspenaren barruan, nabarmendu beharra dago ezartzen diren **errehabilitazio neurriak** iristen zaizkiela bai 12/2016 Legeak jasotako giza-eskubideen urraketak pairatu izana egiaztatzen duten pertsoneri, bai haien senideei ere (3.6 art.). Hori, zalantzarik gabe, bat dator giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen postulatuekin eta haien ildo berean dago, bai eta gaiari buruz Nazio Batuen Erakundearen nahiz Europako Kontseiluaren sistemaren barruan etengabe eman den eta finkatuta dagoen nazioarteko jurisprudentziarekin bat ere.

## IV. Legean ezarritako jarduketa-printzipioak eta nazioarteko estandarrak

---

Arauk jarduteko printzipio batzuk jasotzen ditu —legearen aplikazioan esku hartzen duten euskal botere publikoek aplikatu beharrekoak—, biktimekiko **solidaritate-printzipioa** deitzen duen horretan zentratuak, irizpide gidari orokor gisa. Horretatik eratoritzen da, halaber, seriotasunez eta zorrotasunez dokumentatzea, biktimen errekonozimendu instituzional eta soziala sustatuz, benetako erreparazioa bermatzeari begira, legean ezarritako neurriak aplikatzearen bitartez (4.1 art.).

Halaber, berriaz arautzen dira biktimen **aldeko tratua** deitutako printzipioa —prozeduran zehar berriz ez biktimizatzea saihestearren—, azkartasun-printzipioa, erakundeen arteko elkarlanaren printzipioa eta hiru-garrenen eskubideen bermearen printzipioa (5.2 art.).

Aztergai ditugun lege-xedapenek jarrera publiko bat erakusten dute, arauaren xedea egoki betetzeko asmoa, biktimekin lankidetzan jardunez eta haiei behar bezalako erreparazioa ematen saiatuz. Gizakiaren nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, giza eskubideen urraketan biktimak identifikatzeko eta haiek erreparazioa jasotzeko dauzkaten eskubideen aitortza egiteko prozesuan, beti nabarmenduko da jarduketa publiko arduratsua, enpatikoa eta haiekiko solidaritatea erakusten duena, eta hori guztiz lortuko da ezarritako lege-parametroak praktikan aplikatzen badira.

Giza eskubideen urraketek eragindako egoera traumatikoak bizi izan zituzten pertsonak berriz biktimiza daitezzen saihestea beti izan da zaintzaren arloko nazioarteko organoen arduretako bat; 12/2016 Legeak ere hortik jotzen du kezka horri dagokionez.

Horretarako, nabarmen daiteke beharrezkoa den arreta jartzeko behar zorrotza dagoela, egin beharreko urratsetan —bereziki, Balorazio Batzordean— betekizun zehatzak dituztenek behar adina gaitasuna izan dezaten arauan finkatutako jarduketa-printzipioak behar bezala betetzeko.

---

8 **Torturaren aurkako Batzordea**: 3. Ohar Orokorra (2012), 3. paragrafoa.

---

## V. 12/2016 Legean ezarritako errekonozimendua eta erreparazioa gizakiaren nazioarteko zuzenbidearen argitan

---

Aztergai dugun legearen III. kapitulua zentrala da, eta hainbat alderdi jasotzen ditu biktima-deklarazioari buruz, errekonozimendu publikoari buruz, egia jakiteko eskubideari buruz eta erreparazioa jasotzeko eskubideari buruz. Horiek guztiak giza eskubideen zaintza-araubideen eta haien bilakaera abiapuntu hartuta eratu diren estandarren ikuspuntutik azter daitezke.

Arauk biktima-izaeraren errekonozimendu publikorako eskubidea identifikatzen du —behin biktima-deklarazioari dagokion prozeduraz deklarazio hori sortu denean—. Azpimarratu egiten da —modu egokian— biktimak hauta dezakeela bere intimitatea gorde dadila eta, horrenbestez, prozesuan zehar eta prozesuaren ondoren ere behar bezala babes dezatela, betiere horrek egia jakiteko eskubidea edo hirugarrenen beste eskubide batzuk ukitu gabe.

### a) Errekonozimendu publikorako eskubidea eta hura betetzeko neurriak

**Errekonozimendu publikorako eskubideak** —legean xedatutakoaren arabera— euskal botere publikoak behartzen ditu biktimak gogoratzen eta errekonozitzen direla ziurtatzeko neurriak sustatzera: ekitaldiak, sinboloak edo antzeko bestelako baliabideak, besteak beste (12/2016 Legearen 6. art.).

Aurreikuspen hori giza eskubideen urraketengatiko erreparazioei buruzko nazioarteko zuzenbide garaikidean dago kokatuta, eta argiro sartzan da “**satisfazio-neurriak**” deitu direnen barruan; neurri horiek, izan ere, eratu diren estandarren zati bat dira, zaintzaren arloko nazioarteko organoen jokaeran jaso eta sistematizatutakoa, bereziki Nazio Batuen Erakundearen esparruan<sup>9</sup>.

Erreparazioen gisako satisfazio-neurrien xedea da biktimaren edo biktimen kalterakoa izan den eskubide-urraketa dela-eta Estatuak bere erantzukizuna aitortu eta erantzukizun hori bere gain har dezala erki-degoaren aurrean. Halaber, jotzen da biktimen oroimena berretsi ahal izateko beste ekintza batzuk egitera; esate baterako, ohikoak izaten dira memorialen edo monumentuen adibideak, kale edo parke nahiz plazen moduko beste espazio publiko batzuei izena ematea, eta hezkuntza-erakundeetan lan egitea; batzuetan, biktimen izena daramaten ikasketa-bekak ezartzen dira eta erantzukizuna aitortzeko eta barkamena eskatzeko ekitaldi ofizial solemneak eta abarrekoak egiten dira.

12/2016 Legearen 6. artikulua behar adina zabaltasuna duen agindua ematen die botere publikoari xedapena bete eta satisfazio-neurrien arloko nazioarteko estandarrei egoki erantzuten dieten neurriak praktikan jar ditzaten.

### b) Egia jakiteko eskubidea

12/2016 Legeak, hainbat xedapenetan euskal botere publikoari esleitzen zaizkien zenbait ekintzaren bitartez, antolatzen du egia jakiteko eskubidea gauzatzeko nola lagundu, identifikatuta dauden eta beren lanaren xede gisa memoriaren sustapena duten entitateekiko lankidetzaren bitartez (7. art.).

Egia jakiteko eskubidea giza eskubideen nazioarteko tresna garaikide batzuetan aitortu izan da konbentzionalki<sup>10</sup>, baina hori ez da eragozpena aurrez nazioarteko organo batzuek aplikatzekoa den jurispru-

---

9 Horri buruz, honako hauek ikus daitezke: Nazio Batuen Erakundearen Torturaren aurkako Batzordearen 3. Ohar Orokorra eta Giza Eskubideen Batzordearen Erreparazioei buruzko Jarraibideak (Human Rights Committee: CCPR/C/158); 2016ko azaroaren 4an onetsitako dokumentua da hori.

10 Derrigorrezko desagertzeen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa (2006): Atarikoa eta 24.2 art.

dentziaren mailan hura berretsita egoteko<sup>11</sup>; are gehiago, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordearen hasi-hasierako jurisprudentziatik ere eratorzen da<sup>12</sup>.

Egia jakiteko eskubideak banakako dimentsio bat eta dimentsio kolektibo bat —gizarteari dagokiona— dauzka: biak ere elkarren osagarriak dira eta ez dute bata bestea baztertzen.

Aztergai dugun legean, gaiari ekiteko modua funtsezkoa den topiko bat du ardatz: biktimek berek eta haien familiek egia jakiteko duten eskubidea —alde batetik—, eta behar diren espedienteak Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutura igortzea —bestetik.

Halaber, garrantzitsua da 12/2016 Legearen 7.2.b) artikuluaurreikuspena; izan ere, agintzen du ezen, aztertzen ari diren egitateetatik zigor arloan preskribatu gabe dauden legez kontrako jarduketak ateratzen badira, bidezkoa den informazioa igorriko zaiela auzitegiei edo administrazio eskudunari. Hartara, eta beti berme judizialak errespetatuz —Balorazio Batzordeak ez du zigor arloko eginkizun jurisdikzionalik—, legeak jarduketa arduratsuko tresnak ematen ditu, justiziarako eskubidea gauzatzen laguntza eman dadin, bidezkoa den esparruan hori egingarria denean.

### c) Nazioarteko estandarretan aurreikusitako erreparazioa

Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko Legeak bi alderditan ardatzen du erreparazio zehatza —biktima identifikatu ondoren—: **kalte-ordain ekonomikoa eta osasun-asis-tentzia** (gorago aipatu den moduan, satisfazio-neurriak modu oso orokorrean aipatzen dira aurreikuspen arauemailean, eta biktimek eta haien erreparazio eskubidearen identifikatze- eta zehazte-prozesuak konpentsazio ekonomikoa eta errehabilitazio fisiko edo/eta psikikoa jartzen du arreta).

Diruzko erreparazioak dira giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean berretsi diren lehenak, bereziki Europako Hitzarmena (1950) indarrean sartzearen eraginez, haren erreparazioetarako esparru juridikoaren eraginez<sup>13</sup> eta Giza Eskubideen Europako Auzitegian egindako lanaren eraginez. Nazio Batuen giza eskubideen aldeko itunetako organoek historikoki “konpentsazioa” edo “kalte-ordaina” aipatu izan dituzte giza eskubideen urraketak egiaztatetik heldu den estatu-erantzukizuneko kasuetan, baina ez dute kaltea zenbatesten kopuru zehatzak on-dorioztatu ahal izateko<sup>14</sup>. Halaber, adostasuna dago giza eskubideen arloko nazioarteko organo jurisdikzionalen edo kuasijurisdikzionalen jurisprudentzian kalte materialei edo kalte ez-materialei dagokienez —batzuetan, kalte moral, psikiko, psikologiko eta abarrekoen gisara aipatuta— buruzko jurisprudentzia dela eta.

Onetsitako legeak, horrenbestez, zailtasunik gabe jasotzen du aztertutako atal honetan, gizakiaren eskubideen zaintzaren arloko nazioarteko organoek arauetan aurreikusitako nazioarteko estandarrek, maila jurisprudentzian garatuta daudenak.

Erreparazioei buruzko beste alderdietako batean, 12/2016 Legearen 11. artikulua “osasun-asis-tentzia”ko neurriak aipatzen ditu; egiazki, “errehabilitazio-neurriak” deitutakoak dira horiek, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen definizioaren arabera.

Nazioartean eraturitako estandarretan, errehabilitazio-neurriek hartzen dituzte bai tratamendu medikoa, bai tratamendu psikologiko edo psikiatrikoa ere —aztergai dugun legeak berriaz jasotzen ditu, halaber, asis-tentzia psikosozial eta psikopedagogikoa.

11 Nabarmentzekoa da Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren jurisprudentziak egia jakiteko eskubidea justiziarako eskubide orokorrean sartu duela, Costa Ricako San Joseko Itunaren barruan; horixe ateratzen da *Bámaca Velásquez vs Guatemala* kasuaren epaitik eta Auzitegiak eman dituen beste batzuetatik (ikus Corte IDH. *Bámaca Velásquez vs Guatemala* kasua; C saila 70. zk.; 201. paragrafoa).

12 **Giza Eskubideen Batzordea:** María del Carmen Almeida de Quinteros eta beste batzuk vs Uruguai, 1983ko uztailaren 21eko irizpena.

13 Giza Eskubideen Europako Hitzarmena: 41. artikulua, satisfazio zuzena. Baldin eta Auzitegiak deklaritzen badu Hitzarmena edo haren Protokoloak urratu direla eta Tratugile Gorenaren barne-zuzenbideak aukera ematen badu urraketa horren ondorioak soilik modu ez-perfektuan erreparatzeko, Auzitegiak kaltetutako alderdiari satisfazio zuzena emango dio, bidezkoa bada.

14 Hasi-hasieratik, jada ebatzitako bigarren komunikaziotik aurrera, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen jurisprudentziak ondarre-alderdia jasotzen du erreparazioaren barruan, berriaz “konpentsazio” hitza erabiliz (ikus Ana María García Lanza de Netto vs. Uruguai; 1980ko apirilaren 3ko irizpena, 17. paragrafoa).

---

Europako Kontseiluaren esparruan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak bere epaietan erreparazio ekonomikoko “satisfazio zuzena”ri dagokion izenaren pean aipatu ohi ditu errehabilitazioari buruzko gaiak<sup>15</sup>.

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak, bere aldetik, zenbait aldiz errehabilitazio-neurriak ezarri izan ditu, eta horiek hainbat alderdi hartzen dituzte. Lehenbizi, batzorde horren jurisprudentziaren hasi-hasieran —lehenbiziko aldiz 1979an<sup>16</sup>—; aurrerago, berriz, honako kontzeptu hauek aipatu izan ditu: “asistentzia medikoa”, “tratamendu mediko egokia” edo “etorkizunera begira”, bai eta behar fisiko edo psikologikoak ere, eta are psikiatrikoak<sup>17</sup> eta oftalmologikoak<sup>18</sup> ere.

Bestalde, interesgarria da Torturaren aurkako Batzordearen jurisprudentzia, zeinean zenbait kasu erakusten baititu. Horietan, izan ere, berariaz xedatzen du errehabilitazio medikoko neurriak ematea<sup>19</sup>. 3. Ohar Orokorrean, Torturaren aurkako Batzordeak errehabilitazioa erreparazio-kontzeptuaren barruan aipatzen du zehazki<sup>20</sup>.

Aztertzen ari garen arauaren espiritua eta xedea direla eta, ulertzen da asistentzia psikiatrikoko neurriek berdin jasota egon behar dutela 12/2016 Legearen aplikazioan; bestalde, legea osotasun sexualaren urraketa-kasuei aplikatzerakoan, ezinbesteko gertatzen da arau-xedapenetan aurreikusitako asistentzia ematen duten entitateek generoaren arloan eskarmentua eta behar den gaikuntza duten pertsonak edukitzea.

Asistentzia psikologiko, psikosozial edo psikopedagogikoa, 12/2016 Legeari jarraituz, kalte psikikoa jasan ahal duten pertsona onuradunei zabaltzen zaie —oro har, giza eskubideen nazioarteko organoen aurreko frogatuetan behar duela jotzen da—, maite den pertsona batek jasandako bizitzarako edo osotasunerako eskubideen urraketaren ondorioz.

Horrenbestez, aztergai dugun 12/2016 Legeak errehabilitazioaren arloan aurreikusitakoa guztiz bateragarria da giza eskubideen zaintzaren arloko nazioarteko estandarrekin.

## VI. Legean aurreikusitako arau prozesalak, biktima-izaera identifikatu eta aitortzearen eraginetarako, eta kasuan kasuko erreparazioak ematea

---

Legeak ezarritako prozedura administratibo horrek izapidea hasteko mekanismo arin bat aurreikusten du (13. art.), zailtasuna sor dezakeen gehiegizko baldintza burokratikorik gabea. Instrukzioa Balorazio Batzordeak egingo du, eta batzorde hori ez da mugatuko probak jasotzera; izan ere, ofizioz xedatu ahalko ditu alegatutako egitateak behar bezala egiaztatzeko bestelako neurriak —neurri horiek behar bezain zabalak dira (14. art.) xedapenaren helburua egoki betetzeko—. Aurreikuspen arauemailea babes-klausula batekin ixten da, zeinaren bidez Balorazio Batzordeak egokitzen jotzen dituen jarduketa guztiak egin ahalko baititu aztertzen ari den egitateak hobeki argitzeko eta aurkeztutako eskabidea hobeki ebazteko (14.3 art.).

12/2016 Legeak hala ezarrita, halaber, aurreikusten da auzi-medikuek parte hartzea, eta bidezkoa den frogatuetan egin ondoren, Balorazio Batzordeak txosten arrazoitu bat egingo du. Txosten hori gero aurkeztuko da giza eskubideen arloan eskumena duen idazkaritza nagusiko edo sailburuordetzako titularrak ebazteko (15. art.).

---

15 Esate baterako, Z. vs Erresuma Batua (2002) epaian, Europako Auzitegiak medikuntza-gastuak aipatzen ditu.

16 **Giza Eskubideen Batzordea:** 63/1979 komunikazioa, Violeta Setelich vs. Uruguai; 1981eko urriaren 28ko irizpena, 21. paragrafoa.

17 **Giza Eskubideen Batzordea:** R.S. v Trinidad eta Tobago, 684/1996 komunikazioa, 2002ko apirilaren 2ko irizpena, 9. paragrafoa.

18 **Giza Eskubideen Batzordea:** Engo vs. Kamerun; 1397/2005 komunikazioa, 2009ko uztailaren 22ko irizpena, 9. paragrafoa.

19 Ikus, esate baterako, **Torturaren aurkako Batzordea:** 257/2000 Komunikazioa (Bulgaria).

20 **Torturaren aurkako Batzordea:** 3. Ohar Orokorra (2012), 2. paragrafoa.

Aurreikusitako prozedurak, bere osotasunean, azkartasuna, froga baloratzeko ahalmena eta babes egokiak erakusten ditu —irizpenaren motibazioa horren barne dela, zeina eskaera egiten duten pertsonentzat arbitrariotasunen aurkako babes moduko bat baita—. Horri gehitu behar zaio ezen jarduketa-printzipioek eta beste printzipio gidari batzuek —12/2016 Legearen 4. artikuluan adieraziak— aukera ematen dutela ondo-rioztatzeko egoki erantzuten zaiela erreparazioak zehazteko ikerketa azkarra eta eraginkorra egiten duten baldintzei, jarduketak ez baitira zigor arloko instantziak edo diziiplina-mailako zehapen-neurriak. Horrenbestez, prozeduraren arauak guztiz eta zorrozki bateragarriak dira arloan aplikatzen diren giza eskubideen estandarrekin.

Balorazio Batzordearen osaera, eratzea eta funtzionamendua direla eta, 12/2016 Legean ezarrita dauden bezala, ezin da eragozpenik jarri gizakiaren nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik; eskaera egiten duten pertsonak, gainera, aukera dute organo hori osatzen duten pertsona bat edo batzuk errekusatzeko, baldin eta jotzen badute haiek egitateen analisitik eta baloraziotik kanpo uzteko arrazoi baliodunak badaudela.

## VII. Onuradunen betebeharrei buruzko kapitulua

---

12/2016 Legearen 19. eta 20. artikuluek, alde batetik, egokitzat jotzen ditugun betebeharrak jakin batzuk ezarzen dituzte onuradunentzat; baldintzen eta betekizunen ez-betetze kasuetarako xedatutako neurriak —20. art.—, berriz, guztiz logikoak dira, eta giza eskubideen nazioarteko zaintzarako estandarren arabera ezin da haiek direla-eta eragozpenik jarri.

## VIII. Estatuaren erantzukizuna zehaztea; 12/2016 Legeak eta nazioarteko zuzenbideak arlo horretan biltzen dituzten irizpideak, izaera eta aurreikuspenak

---

Azterlanaren kapitulu hau —arrazoi pedagogikoak tarteko— lau ataletan banatuta dago; honako hauek, hain zuzen: giza eskubideen urratzearengatik eta urratze hori dela-eta erreparazioa emateko Estatuak daukan erantzukizuna; nazioarteko betebeharrak barne mailan betetzea; Estatuak parte hartzea giza eskubideen urratzearengatik erantzukizuna zehazteko egitateetan; eta zigor arloko prozesuekin giza eskubideen urratzearengatik Estatuak daukan erantzukizuna zehaztea.

### a) Izaera: erantzukizun objektiboa, nazioarteko zuzenbideak arautua

Nazioarteko zuzenbidean, giza eskubideen urratzearengatik Estatuak daukan erantzukizunaren ezarpena eta zehaztapena **objektiboa** da.

Hartara, Estatuari bere ekintzarengatik edo egite-ezarengatik egoztekoa zaion egitatea egiaztatuta, automatikoki sortzen da haren nazioarteko erantzukizuna, inongo frogarik behar izan gabe asmoa edo faktore subjektiboak bezalako alderdiei buruz, eta egitate horiek delitu bat edo gehiago egin izana eragin lezaketen kasuetan zigor arloko erantzukizunak egiaztatu gabe.

Arloa dela-eta historikoki sortu diren garapenen arabera, nagusiki bigarren mundu-gerraren amaieratik aurrera (ez ditugu haiek berriaz zehaztu lan honen asmoak gaindituko genituzkeelako), giza eskubideen urratzearengatik erantzukizuna —eta, beraz, erreparazioa emateko betebeharra, azken horrek berekin dakartzan eginbeharrekin— **nazioarteko izaerakoak dira, nazioarteko zuzenbidetik sortzen dira eta, logika betez, azken horren arauen arabera preskribatzen dira.**

---

Urraketei konponbidea emateko xedatzen diren neurriek, behin haiek egiaztatuta, oro har, **erreparazio osoaren printzipioa betetzeari erantzun behar diote**; horrek barnean har ditzake eskubideak berrezartzeko neurriak, errehabilitaziokoak, satisfaziokoak, egitateak berriz ez gertatzeko bermeak eta eragindako kalte materiala edo/eta ez-materiala erreparatzeko neurriak.

Hori Nazio Batuen Erakundearen barruan hartutako arauetatik ateratzen da, bai eta zaintzaren arloko nazioarteko organoen jarduketatik ere. Hartara, Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsioak aurkeztu eta erreparazioak lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideek **erreparazio osoa eta benetakoa** aipatzen dute, berrezarpen-moduei, kalte-ordainari, errehabilitazioari, satisfazioari eta egitateak ez errepikatzeke bermeei dagokienez<sup>21</sup>.

Adierazitako dimentsioetatik bigarrenean, Nazio Batuen Erakundearen Torturaren aurkako Batzordeak, ildo berean, aipatu du ezen erreparazioaren kontzeptu zabalak berrezarpena, kalte-ordaina, errehabilitazioa, satisfazioa eta egitateak ez errepikatzeke bermeak biltzen dituela, eta Konbentzioaren ez-betetzearengatik erreparazioak lortzeko behar diren neurriak aipatzen dituela<sup>22</sup>.

Eta norabide berean, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordeak aipatzen du ezen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak, oro har, berekin kalte-ordain egokia dakarrela; eta, bidezkoa denean, erreparazioak, besteak beste, berekin dakartzala berrezarpena, errehabilitazioa eta satisfazio-neurriak — honako hauen modukoak, hain zuzen: apologia publikoak, memorial publikoak, egitateak ez errepikatzeke bermeak eta lege aldaketak eta bidezko diren jokabideak<sup>23</sup>.

Berezkoa denez, neurrien zerrenda hori guztia, bere aplikazio zehatz eta berariazkorako, azterketaren peko kasuari edo kasuei egokitzen zaie, inguruabarren arabera eta aukera bakoitzean.

Europako maila erregionalean, gorago aipatu den bezala Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak erreparazioei buruzko xedapenean “satisfazio zuzena”ren kontzeptua aipatzen badu ere —jurisprudentzian hori, funtsean, kalte-ordain ekonomiko moduan itzuli da—, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren erabakien betetzeari buruzko gainbegiratze-sistemaren esparruan, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak beste neurri batzuk aipatu izan ditu<sup>24</sup>.

Hori dela eta, ondoriozta daiteke “erreparazio osoa”ren kontzeptua, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean, finkatuta dagoela bai Nazio Batuen Erakundearen mailan, bai entitate erregionalen mailan ere.

Irizpen honetan aurrez aipatu den bezala, 12/2016 Legeak erreparazio neurriak ardatzen ditu, eta haiek kalte-ordain (diruzko ikuspegia) eta errehabilitazio (asistentzia medikoa edo/eta psikologikoa) gisa jasotzen ditu; zehazten du ezen, ezarritako prozeduraz kanpo ere, botere publikoek ahalmena dutela satisfazio-neurrien kontzeptuari dagozkion egintzak aurrera eramateko, bai eta egia jakiteko eskubidea betetzen lagun dezaketen beste batzuk ere.

Aurreko bi paragrafoetatik logikoki ondorioztatzen denez, araua argi kokatuta dago giza eskubideen urraketak dakartzaten egitateengatiko erreparazioen arloko nazioarteko estandar aurreratuenen barruan.

## b) Nazioarteko betebeharrak barne eremuan betetzea

Nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko printzipio batek adierazten du Estatuak ezin duela bere barne zuzen-

---

21 **Nazio Batuak: Batzar Nagusia:** 60/147 Ebazpena; 18. paragrafoa.

22 **Torturaren aurkako Batzordea:** 3. Ohar Orokorra (2012), 2. paragrafoa.

23 **Giza Eskubideen Batzordea:** 31. Ohar Orokorra (2004): Itunean estatu alderdiei ezarritako betebeharrak juridiko orokorraren izaera: 16. paragrafoa.

24 Izan ere, Ministroen Batzordeak “erabakien betearazte osoa” aipatzen du, eta hainbat neurri gomendatzen ditu; honako hauek, besteak beste: prozedurak berrikustea, erabakiak Europako Kontseiluaren hainbat hizkuntza ez-ofizialetara itzultzea, eginkizun publikoak betetzen dituzten agente eta pertsonen prestakuntza ematea, lege-xedapenak aldatzea eta abar. Horri buruz, ikus Europako Kontseiluaren 2015eko Urteko Txostena. Halaber, azterlan espezializatu batek “erreparazio osoa”ren bila Europak egin dituen prozesu horien xehetasunak eman ditu (**Lambert Abdelgawad**, Elisabeth: “L’*exécution des arrêts de la Cour Européenne des Droits de l’Homme*”, 2e Édition, Dossiers sur les droits de l’homme N 19; Conseil de l’Europe, 2008; bereziki, 27. orrialdetik 31. orrialdera).

bidea alegatu nazioarteko eginbeharrak ez betetzeko; horiek, izan ere, fede onez bete behar dira, estatuak berretsi dituzten edo atxiki zaizkien tresnen xedearekin eta azken mugarekin bat etorrita.

Arau hori, zeina historikoa baita jendeen zuzenbidean eta ordena juridiko horren benetakotasunaren oinarrietako bat baita, halaber, ohituraren sustraiak badauzka —aipatutako fede onaren printzipiotik heldutakoa— bai eta konbentzioen sustraiak ere<sup>25</sup>.

Halaber, **bermearen betebeharrak**, zeina giza eskubideen itunetatik sortzen diren eginbehar orokorretako bat baita, zehazten du estatuak **legegintza-neurriak eta beste edozein motatakoak** —administratiboak, judizialak eta abar— **hartu** behar dituztela konbentzioko xedapenak betetzeko, hau da, haiek behar bezala aplikatzeko barne eremuan eta haien eragin baliagarria sortzeko<sup>26</sup>.

Estatuaren barne antolamendua —unitarioa, federala, konfederala eta abar— ezin da nazioarteko xedapenak ez betetzeko eragozpen-argudio gisa erabili<sup>27</sup>, eta **errespetua eta bermea direla-eta dauden betebeharrekin** —behar diren neurriak hartzeko eginbeharrekin bat— **barne egitura guztien botere publiko guztiak ukitzen dituzte**.

Hori dela eta, aztergai dugun 12/2016 Legeak botere publiko baten —autonomia erkidego bateko parlamentu bat— erakusketa praktikoko zentzudun bat da, zeren eta giza eskubideen nazioarteko tresnak bermatzeko eginbeharrak hartzen baititu bere gain —aipatu den bezala, berezko zaizkio, botere publiko guzti-guztiei berezko zaizkien bezala—, gertatutako urraketek dagokien erreparazioa emateko mekanismo bat ezarri.

### c) Estatuak egitateetan izandako parte-hartzea, giza eskubideen urraketarengatik erantzukizuna eta, horrenbestez, erreparazioa emateko betebeharra sortzeko eraginetarako

Giza eskubideen urraketaren ondoriozko Estatuaren erantzukizunaren sorrera haren edozein organoren, haren oniritziarekin diharduten pertsonen edo Estatuak diligenzia-betebeharra bete gabe egitateak aurrera eramaten dituzten partikularren ekintzaren ondorioa izan daiteke; horixe adierazi dute jurisprudenzian giza eskubideen arloko gaiak ebazten dituzten organo kuasijurisdikzionalak eta judizialak, bai Nazio Batuen Erakundeak, bai Europako Kontseiluak berak, erregio mailan, gaiari buruz egin dituzten itunak aplikatuz.

Arestian adierazi dugun bezala, inolako eragozpenik ez dago estatuak, barne mailan, parametro hauetaz harago doazen egitateengatik erantzukizuna hartzea erabaki dezaten, giza eskubideen zaintzaren arloko nazioarteko araubide osoa informatzen duen “pro persona” printzipioaren eta hermeneutikaren arabera.

Nolanahi ere, aztergai dugun legegintza-aurreikuspena ederki ahokutzen da gizakiaren nazioarteko zuzenbideak ezarritako estandarretan, zeren eta biktimaren izaeraren zehaztapena eta dagokion erreparazioa bidezkoa izan daitezen eskatzen baita egitateetan funtzionario publikoek parte hartu izana, beren eginkizunetan zihardutela nahiz haietatik kanpo, edo, bestela, taldean nahiz modu isolatuan, banaka edo modu ez-kontrolatuan ziharduten partikularrek parte hartu izana (12/2016 Legearen 2.b) art).

### d) Giza eskubideen urraketarengatik erantzukizuna zehazteko prozesua; zigor zuzenbidearekin duen lotura

Giza eskubideen urraketan Estatuak daukan erantzukizuna identifikatzeko prozesuek beren logika daukate, eta zigor-epaiketekin edo -prozedurekin —ez eta azken horiek izan ditzaketen emaitzekin ere— inongo loturarik ez duten mekanismoak determinatzen dituzte.

Are gehiago, giza eskubideen urraketengatik Estatuak duen erantzukizuna sor daiteke nahitaez delituak egin

25 Itunen Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioaren 26. eta 27. artikulua (1969). Espainia tresna horri atxiki zitzaion, 1972ko maiatzaren 2an gordailututako tresnaren bitartez.

26 Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966), 2. artikulua. Espainia itun horren alderdia da 1977ko apirilaren 27tik. Nazio Batuen Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa (1984), 2. artikulua. Espainia itun horren alderdia da 1987ko urriaren 21etik.

27 Honako hau dio Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 50. artikulua argitasun nabarmenez: “Itun honetako xedapenak aplikatuko zaizkie estatu federaletako zati guztiei, mugarik eta salbuespenik gabe”.

---

izana ez dakarten egitateengatik —esate baterako, Estatu alderdi deneko nazioarteko tresnetan ezarritako betebeharrekin bateraezina den lege bat onestea.

Alabaina, gerta daitekeena da delitu-egitate batek berekin ekartzea, maila teknikoan, giza eskubideen urraketa bat. Estatuaren erantzukizuna zehazteko prozesua eta zigor-prozedurak gauzatzea elkarren guztiz desberdinek diren bideetatik doaz, eta batak ez du inolaz ere bestea aurrez baldintzatzeko.

Nazioarteko jurisdikzioetan, erabakien adibide kontaezinak badaude —horren barnean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren kasuak—, zeinengatik erabaki baita Estatuak giza eskubideen urraketengatik daukan erantzukizuna, biktimen identifikazioa eta erreparazioak eman behar izatea, nahiz eta zigorrik edo hasitako nahiz amaitutako zigor-ikerketarik ez egon.

Izan ere, Estatuaren nazioarteko erantzukizuna zehazteko instantziak ez dira zigor-jurisdikzioak, eta ezin diote inori zigor-erantzukizunik esleitu —hori kontraesanean legoke prozesuan bete beharrekoak diren eta esku-bide zibil eta politikokoak arautzen dituzten giza eskubideen nazioarteko tresnetan existitzen diren zigor arloko bermeekin.

Bi prozedura mota horien logika oso desberdina da; giza eskubideen urraketarengatik Estatuak daukan erantzukizuna identifikatzeko prozesuetan —esate baterako— ez dago zigor- nahiz-diziplina izaerako oinarritzko prozedura guztietan dagoen errugabetasunaren presuntzioa.

Halaber, nazioarteko organoen jurisprudentzian kasu ugari daude zeinen bidez Estatuaren erantzukizuna erabaki baita, baina barne mailan ezin baita zigor gisako ikerketetan aurrera egin, egitateen egileak identifikatu ez direlako edo zigor arloko araubide prozesalak aplikatuta preskripzioa egon daitekeela ondorioztatzen delako.

Oro har, nazioarteko organo batek giza eskubideen urraketarengatik Estatuak daukan erantzukizuna ezartzen duenean, ez du zigorraren mailan inongo neurririk xedatzen; izan ere, erabakitzen dituen neurrien barruan, ezartzen du Estatuak —barne mailan— zigor arloko ikerketa egin behar duela eta ustez erantzuleak diren pertsonak epaitu behar dituela. Berezkoa denez, nazioarteko ebazpenak ez du baldintzatzeko zigor arloko jarduketara horien emaitza, zeren eta zigor zuzenbidearen berme guztiak bai baitaude: tipikotasuna, errugabetasun-presuntzioa eta abar; hori dela eta, litekeena da Estuari nazioarteko erantzukizun bat ere egozte eta egitate horiekin lotutako zigor prozesu bat ez amaitzea susmagarrien zigorrarekin.

Aipatu berri dugunak abala du aztergai dugun gaia dela-eta zaintzaren arloko nazioarteko organoek etengabe izan duten jarrerari: hartara, Nazio Batuen Erakundearen Torturaren aurkako Batzordeak nabarmendu izan du pertsona bat biktimatza hartu egingo dela nahiz urraketaren egilea identifikatu, atxiki, epaitu edo zigortua ez izan<sup>28</sup>.

Argudiatze-ildo berean, nabarmentzekoa eta baloratzekoa da 12/2016 Legearen seigarren xedapen gehigarria, zeinak aipatzen baitu legea aplikatuko dela baita egitatei buruzko erruduntasuna dela-eta lotura zehatzik ezartzeko beharrik gabe ere.

Horrenbestez, 12/2016 Legeak egoki betetzen ditu arloko nazioarteko estandar guztiak; haren xedapenetako bakarretik ere ezin da ondorioztatu delituak egiteagatik inoren zigor-erantzukizunik zehazteko ahalmenik; eta haren jarduketek ez dute inolaz ere zigor arloan izan daitezkeen emaitzak baldintzatzeko.

Are gehiago, balizko nahaste oro saihesteko ahalegin argi batean —are nazioarteko estandarrek zehazten dutenetik harago ere—, aztergai dugun arauaren 14.5 artikuluan ezarritako xedapenak berariaz aipatzen du ezen irekitako kausa judizial edo administratiborik badago, prozedura eten egingo dela, kasuan kasuko erabakiak irmoak izan arte. Halaber, 2.b) artikulua agintzen du ezen, Balorazio Batzordeak uste baldin badu aztertzen ari den espedientearen edukitik zigor arloan preskribaturik ez dagoen jarduketaren bat ondoriozta daitekeela, hura auzitegi eskudunei emango diela aditzera eta, kasua bada, administrazio eskudunari.

Balorazio Batzordeak espediente zigor arloko dagokien instantzietan igortzea —kasua bada— bat dator, era berean, Estatuaren nazioarteko betebeharrekin: Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordeak adierazi zuen erreparazioak, orobat, bere baitan hartzen duela, kasua bada, giza eskubideen urraketaren egi-leak justiziaren pean jartzea<sup>29</sup>.

---

28 **Torturaren aurkako Batzordea:** 3. Ohar Orokorra (2012), 3. paragrafoa.

29 **Giza Eskubideen Batzordea:** 31. Ohar Orokorra (2004), 16. paragrafoa.



Nolanahi ere, aztertutako xedapenek argi erakusten dute prozedurak ez duela ukitzen zigor arloko ekintzei buruzko ikerketen gaineko inongo alderdirik, ez eta, are gutxiago, haiengatiko zehapena edo erantzukizunak egozteara ere; horrenbestez, ezin da ondorioztatu zigor arloko eskudantziarik dagoenik Balorazio Batzordearentzat edo 12/2016 Legeak zehaztutako prozesuan parte hartzen duen beste inongo instantziarentzat ere —izaera nagusiki administratiboa baitute—. Izan ere, haien egitekoa bideratuta dago Estatuak bere erantzukizuna bere gain hartzera, biktima-izaera zehaztera eta gero giza eskubideen urraketengatik eman beharreko erreparazioak esleitzera.

## IX. Espainiari buruz Nazioarteko organoek biktimei erreparazioa emateko betebeharra dela-eta hartutako erabakiak

Gorago aipatu den bezala, erreparazioa emateko betebeharra giza eskubideen nazioarteko zuzenbidetik automatikoki sortzen den printzipio bat da, egindako urraketaren edo urraketen emaitza gisa. Haren irizpideak nazioarteko erantzukizunaren institututik ateratzen dira; izan ere, konbentzioetan eta ohituretan oinarritutako jendeen zuzenbidean irmoki ezarrita dagoen gorputz juridiko bat da.

Halaber, dauzkaten prozedura eta aginduetan giza eskubideen tresnen aplikazioa gainbegiratzeko duten nazioarteko organoek etengabe ematen diete aditzera estatuei ezen, beren eginbehar konbentzionalak guztiz burutuko badute, identifikatutako urraketa batek biktimarentzat edo biktimentzat eskubide automatiko bat sortzen duela —eta horrekin batera datorren Estatuaren betebeharra ere—, eman beharrekoa den erreparazio osoa emateari dagokionez.

Irizpen hau egiteko aurrera eramaten ari den azterlanaren eraginetarako, egokia da aipatzea ezen Nazio Batuen Erakundearen Torturaren aurkako Batzordea<sup>30</sup> Espainiari buruzko seigarren aldizkako txostenaren azterketatik sortu ziren amaierako oharretan, adierazia duela kezkatuta dagoela biktimek erreparazioa eta kalte-ordain egokia lortzeko izaten ari diren zailtasunengatik; hori dela eta, adierazi zuen ahaleginak aragoitu behar direla bermatze aldera torturaren eta tratu txarren biktimek kalte-ordain zuzen eta egokia, bai eta ahal den eta errehabilitaziorik osoena ere, lor dezatela. Torturaren aurkako Batzordeak gai honen garrantzia hainbestearaino nabarmendu du, non Estuari eskatu baitio kasuei eta emandako kalte-ordain motei buruzko datuak bil ditzan eta hurrengo azterketan eman diezazkion<sup>31</sup>.

Eskubide Zibil eta Politikoan Ituna barne mailan guztiz aplikatzeko beharra dela-eta azpimarra berezia jarri zen Espainiari buruz Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordeak egin zuen seigarren aldizkako txostenaren azterketan; izan ere, batzorde horrek amaierako oharretan Estatu alderdiari adierazi zion bermatu behar duela, nazioko ordenamendu juridikoan, guztiz betetzen dituela tresna horretan ezarritako betebeharrak, eta horretarako, behar diren neurriak hartu behar dituela, baita legegintza-neurriak ere, beharrezkoak badira, ituna guztiz aplikatzen dela bermatzeko<sup>32</sup>; giza eskubideen urraketak direla-eta biktimei eman beharreko erreparazioari berariaz dagokionez, Batzordeak dio Estatuak segurtatu behar duela biktimek erreparazio egokia jasotzen dutela, horren barnean osasun- eta errehabilitazio-zerbitzuak daudela<sup>33</sup>.

Ageri-ageriko gertatzen da aztergai dugun 12/2016 Legea nazioarteko zuzenbidetik sortu diren betekizunekin bateragarria dela, eta, are gehiago, antolamendu juridiko hori osatzen duten arauak adierazitakoaren bidean eta haiek aplikatzen dituzten organoen gorago aipatutako erabakien bidean dagoela; nabarmendu beharra dago Nazio Batuen bi batzordeek kalte-ordainean —konpentsazio ekonomikoa— eta behar bezala-

30 Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa aplikatzen duen organoa.

31 **Torturaren aurkako Batzordea**: Espainiaren Seigarren Aldizkako Txostenari buruzko amaierako oharra. CAT/C/ESP/CO/6, 2015eko maiatzaren 29koa, 20. paragrafoa. Torturaren biktimei erreparazioa eta errehabilitazioa.

32 **Giza Eskubideen Batzordea**: Espainiaren Seigarren Aldizkako Txostenari buruzko amaierako oharra. CCPR/C/ESP/CO/6, 2015eko uztailaren 20koa, 5. paragrafoa.

33 **Ibidem**, 14. paragrafoa.

---

ko errehabilitazioan jartzen duten azpimarra; izan ere, neurri horietan —baina ez horietan bakarrik— ardazten da 12/2016 Legearen ekintza-eremua.

## X. Amaierako gogoetak

---

12/2016 Legeak, bere osotasunean, nazioarteko zuzenbideak, zaintzaren arloko nazioarteko organoek eta giza eskubideen urraketen biktimentzako erreparazioen arloan eraikitako estandarrek adierazitako norabidean dago.

Aztertutako arauaren xedea eta helburua, azterketa teleologikoa eginda, bat datoz nazioarteko araudi horrekin eta erabaki horiekin; legea praktikara eramanez, erreparazioa eman nahi zaien giza eskubideen urraketak legeak aurreikusten duenarekin bat datorren nazioarteko jurisprudentzia sendoa duten egitateak dira.

Jurisdikzioak, denbora-esparruak, onuradunek, jarduketa-printzipioek eta 12/2016 Legeak ezarritako prozedurak bete egiten dituzte erreparazioaren arloa dela-eta nazioarteko organoen arau eta irizpenetan zehaztutako betekizunak.

12/2016 Legen aurreikusitako neurriak, bai botere publikoei satisfazio-neurriak emateko gaikuntza emateari dagokionez, bai legearen xedeari dagokion berariazko prozedurari dagokionez ere —kalte-ordaina eta errehabilitazioa— lagungarri gertatzen dira egia jakiteko eskubidea bete dadin eta “erreparazio osoa”ren ildo berean daude, azken hori baita giza eskubideen urraketek mundu mailako eta eskualde mailako etengabeko jurisprudentziaren arabera aurre egiteko printzipio nagusia.

Halaber, legea, zalantzarik gabe, bideratuta dago nazioarteko zuzenbidetik ez ezik Espainiari buruzko nazioarteko erabaki zehatzen ondoriozko betebeharretatik ere sortzen diren irizpen eta berariazko oharrak betetzera. Hori dela eta, 12/2016 Legea, zalantzarik gabe, guztiz eta eragozpenik gabe dago indarrean, eta daukan xedearen eta azken mugaren arabera hura dela-eta egin behar den aplikazioak giza eskubideen arloan Estatuak dauzkan betebeharrak gainbegiratzen dituzten nazioarteko erakundeen balorazio oso positiboa izango du.







# 6

dokumentua

---

5/2019 LEGEA, apirilaren 4koa, Euskal  
Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean  
izandako motibazio politikoko indarkeria  
egoeran giza eskubideen urraketak jasan  
dituzten biktimei erre-konozimendua eta  
erreparazioa emateari buruzko uztailaren 28ko  
12/2016 Legea aldatzekoa



---

# 5/2019 Legea, apirilaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzko uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzekoa

---

Eusko Legebiltzarrak 5/2019 Legea, apirilaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzko uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzekoa onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

## Zioen azalpena

Eusko Legebiltzarraren 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzkoa, 2336/2017 inkonstituzionaltasun-errekurtsoaren objektu izan zen, Espainiako Gobernuak presidentea sustatua, bai eta Konstituzio Auzitegiaren etete partzial batena ere, 2017ko urriaren 3ko Autoaren bidez, zeinak honako artikulua hauei eragin baitzien: 2.3, 2.4 artikulua azken tartekia, 4.2. c), 7.1, 14.1, 14.2 artikulua c), d) eta e) apartatuak, 14. 4, 14.8 eta seigarren xedapen gehigarria.

Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko Bitariko Lankidetzaren Batzordeak akordio bat erdietsi du 2018ko uztailaren 30ean, oztopo konstituzionalak ezabatzeak aukera egiaztatzeak, eta horrek aipatu inkonstituzionaltasun-errekurtso horretan atzera egiteko bidea emango luke.

Aintzat harturik urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 153. artikulua bitariko foro horrentzat aurreikusten dituen potentzialtasunak, alderdiek akordio bat sinatu zuten, zeinetan egiaztatu baitzuten zer aldaketak, Konstituzio Auzitegiaren duela gutxiko jurisprudentziaren eta erreferentziako legearen testuinguru diren aurrekari espezifikoaren argitan, emango luketen bidea lege hori egokitzeak, biktimei giza-taldearentzat bilatzen den eraginkortasuna murriztu gabe. Analisi horretan oinarritu zen Ministro Kontseiluak hartutako akordioa, Estatuko Administrazio Orokorrak inkonstituzionaltasun-errekurtsoan atzera egiteko euskarri izan zuena.

---

Aditzera emandako aldaketa horiek gauzatzeko, bidezkoa da planteamendu berri honi heltzea, erabat sinetsirik ez dela inbaditzen soil-soilik botere judizialari dagokion eskumenik, baldin eta berme juridiko eta konstituzionalak zaintzeko eta indartzeko beharrezko aldaketak egiten badira, Zuzenbide konparatuak dagoeneko aldarrikatzen duen hori egingarria izan dadin: giza eskubideen urraketen biktimak aitortzea eta babestea botere publiko guztien berezko zeregina dela, eta, horrenbestez, ikuspegi horretatik uste dugu ezen gaindituzat jo behar direla 2336/2017 inkonstituzionaltasun-errekurtsioan aurkituriko oztopo konstituzionalak, baldin eta ondoren azalduko diren terminoetan aldatzen bada legea.

Jakitun izanik botere publikoek har ditzaketela biktimen aitortza eta erreparazioarako neurriak, nahiz betiere muga batzuen barruan eta oinarritzko eskubideak erabat errespetatuz, jarduera administratibo batera mugatzen du arauak bere xedea, zeinak bilatzen baitu emaitza kaltegarri baten sorrerarekin lotzen diren egitate batzuk aztertzea, hortik abiatuta kaltetuen alde erreparazio- edo konpentsazio-mekanismo egokiak antolatzeke, helburu bakar gisa.

Arauak aztergai duen egitatearen eta kaltearen arteko kausazko lotura taxutzen da zenbait pertsonaren alde ezarritako laguntza-sistema baten premisa gisa, argi bereizia egitate horietatik erator litezkeen balizko erantzukizun penalak argitzetik, zeina ez baita, inolaz ere, lege honen xedea. Horrenbestez, biktimen babes eta laguntzarako jarduera publikoak ez dira lehentasunez bideratu behar zigor-arloko legediaren kontrakoak izan daitezkeen egitate batzuk ikertzera, ezta gertaera horien egileak identifikatu eta, hala balegokio, zigortzera, baizik eta, zehazkiago, kausazko lotura bat ezartzera egitate jakin batzuen, emaitza kaltegarriaren sorreraren eta, egitate horien ondorioak jasan dituen heinean, pertsona jakin bat behar- edo arretera-egoera baten merezidun izatearen artean.

Aurrekoa adierazita, aldaketek berariaz eragiten diete Konstituzio Auzitegian desadostasuna sortu zuten manuei.

**2. artikuluan** (Non aplikatuko den) erreferentzia bat txertatzen da adierazteko ezen, zilegi ez diren egitateak egiaztatzerakoan, ezin izango dela ezezaguna izan, inolaz ere, zigor-arloko jurisdikzioak dagoeneko ebatzi duena.

**4. artikuluan** (Jarduteko printzipioak) manuen zenbait adierazpide aldatzen dira, operatiboki ezinezkoa izan dadin inolaz ere sartzea 12/2016 Legearen babesean izapidetzen diren espedienteekin zerikusiren bat izan dezaketen pertsonen eremu indibidualean, eta delitu izan daitezkeen jokabideen ikerketan zigor-arloko jurisdikzioa gordetzeko printzipio berri bat sartzen da.

**7. artikuluan** (Egia jakiteko eskubidea) aldatu egiten dira euskal botere publikoen eta 12/2016 Legearen programa kudeatzeko ardura duten Eusko Jaurlaritzako organoen arteko kolaborazioari buruzko aurreikuspenak, intentsitatea arintzearen, eta uler dadin soil-soilik administrazio-espedienteen emaitza onarekin lotua; hori guztia, ez dadin modurik egon eskumen judizialak urratzen direla ulertzeko.

**14. artikuluan** (Instrukzioa), (izaera administratibodun) Balorazio Batzordearen funtzionaltasuna adierazteko modua aldatzen da, ofiziozko jardunetarako deia ezabatzearen, eta argi gera dadin batzordeak premisa saihetsezin bati jarraituz jotzen duela pertsonengana, alegia ohorerako, errugabetasun-presuntziorako eta izaera pertsonaleko datuen babeserako eskubideak zainduz beti; eta jasoko duen kolaborazioak ez duela barne hartzen egitateak argitzeko inolako helbururik, baizik eta bakar-bakarrik espedienteak ahalik eta modurik osoenean ebazteko prestutasuna.

Kendu egiten da seigarren xedapen gehigarria. Izan ere, legeak sustatzen duen programaren operatibitateak ez du barne hartu behar administrazio-espedientearen euskarri gisa hornitzen den egitatearen inolako baloraziorik, eta, horrenbestez, zentzua galtzen du erruduntasunaren elementuaren presentzian ardazturiko erregulazio orok.

Azkenik, xedapen gehigarri bakar bat txertatzen da, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua aplikatzeko ezohiko epe berri bat zabalitzen duena, 12 hilabetekoa.

**Lehen artikulua.**– Beste idazkera bat ematen zaio uztailaren 28ko 12/2016 Legeari, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzkoari, 2.4 artikuluan, eta honela geratuko da:



«2. artikulua.– Non aplikatuko den.

(...)

4.– Motibazio politikoko indarkeria-egoera batean giza eskubideen urraketa egiaztatu ahal izango da legez kontrako egitate horien errealitatea aitortzen duten administrazio-ebazpenaren edo ebazpen judizialaren bitartez, egitate horiek alegatzen diren kalteekin edo eskubideen afekzioarekin kausazko lotura badute. Bestela, zuzenbidean onartzen den beste edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango da, aurretik prozesu judizial bat egon beharrik gabe. Nolanahi ere, apartatu honetan adierazten den egiaztatze-bideak ezin izango du ezezaguna izan zigor-arloko jurisdikzioak dagoeneko ebatzitakoa».

**Bigarren artikulua.**– Beste idazkera bat ematen zaio uztailaren 28ko 12/2016 Legeari, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzkoari, 4.2 artikulua c) eta d) apartatueta, eta e) letra berri bat gehitzen zaio; honela geratuko da: «4. artikulua.– Jarduteko printzipioak.

(...) c) Erakundeen arteko elkarlanaren printzipioa; erakunde horiek, legezko epean eta eran, eskatzen zaizkien datu guztiak emango dituzte, eta espedienteak ahalik eta modurik osoenean ebazteko beharrezkoa den elkarlana ahalbidetuko dute, hala agintariekin nola teknikariek.

d) Hirugarrenen eskubideen bermearen printzipioa, zeinak berekin baitakartza ohorerako eskubidea, errugabetasun-presuntziorakoa eta espedienteetan azal daitezkeen hirugarren pertsonen izaera pertsonaleko datuak babestekoa, halako moldez non espedienteetan hirugarren pertsonak egoteak ezin izango baitie pertsona horien berme juridikoei eta konstituzionalei eragin edo kalterik ekarri.

e) Zigor-arloko jurisdikzioa gordetzearen printzipioa, delitu izan litezkeen jokabideak ikertzerakoan».

**Hirugarren artikulua.**– Beste idazkera bat ematen zaio uztailaren 28ko 12/2016 Legeari, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzkoari, 7. artikulua 1. apartatuan, zeinetan a) eta b) letrak ezabatzen baitira, eta 2.b) apartatuan, eta honela geratuko da: «7. artikulua. – Egia jakiteko eskubidea.

1.– Euskal botere publikoak elkarlanean arituko dira giza eskubideen, memoriaren eta elkarbizitza demokratikoaren arloan diharduten Eusko Jaurilaritzako organoekin eta organismoekin, euren eskumenak baliatuz ahal dutena egin dezaten lege honetan aipatzen diren giza eskubideen urratzei buruz egia ezagutzen laguntzeko, pertsonen artxibo ofizialearako irispidea errazteko eta lege honetan aipatzen diren giza eskubideen balizko urratzeak aztertzeke ekintzen bidez.

2.– Euskal botere publikoek lagunduko dute, beren ahalbide eta eskumenen neurrian, biktima guztiak honako ekintza hauetarako irispidea izan dezaten: a) (...) b) Balorazio Batzordeak uste duenean espedientearen edukitik preskribitu gabeko legez kontrako jardueraren bat ondoriozta daitekeela, auzitegi eskudunei eta, hala badagokio, administrazio eskudunari jakinaraziko die, eta prozedura etengo du, harik eta dagokien zigor-arloko organoek legez kontrako jarduera hori ebazten duten arte».

**Laugarren artikulua.**– Beste idazkera bat ematen zaio uztailaren 28ko 12/2016 Legeari, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzkoari, 14. artikulua 1, 2, 4, eta 8 apartatueta, eta honela geratuko da: «14. artikulua.– Instrukzioa.

1.– Eskubidea bera (...) jasotakoan... lege honetako V. kapituluaren araututako Balorazio Batzordera igorriko du.

2.– Edonola ere, beharrezkoa iruditzen bazaio, Balorazio Batzordeak aukeran izango du honako hauetakoren bat egitea:(...) d) Txostenak edo lekukotzak eskatu lekukoei eta beste pertsona batzuei... (gainerakoa berdin), betiere zerikusiren bat izan dezaketen hirugarrenen ohorerako, errugabetasun-presuntziorako eta izaera pertsonaleko datuen babeserako eskubideen errespetuaren baitan.

e) Beharrezkotzat jotzen dituen urrats guztiak egin, espedienteak ahalik eta modurik osoenean ebazteko.

(...)

---

4.– Balorazio Batzordearen helburuak betetzearekin zerikusia duten erakunde publikoek eta pertsona pribatuek errekeritzen zaien laguntza eman beharko diote batzordeari, lege honen babesean izapidetzen diren espedienteak ahalik eta modurik osoenean ebatz daitezzen ahalbidetzeko (gainerakoa berdin).

8.– Horretarako, batzordeak... laburbildu egingo ditu biktimaren giza eskubideen urraketa eragin duten egitateak...».

**Bosgarren artikulua.**– Ezabatu egiten da seigarren xedapen gehigarria uztailaren 28ko 12/2016 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzkoan.

**Xedapen gehigarria.**– Berriz zabaltzea ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua aplikatzeko ezohiko epe bat.

Hamabi hilabeteko ezohiko epe berri bat zabaltzen da, lege hau indarrean hasten denetik aurrera, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak jasotako baldintza guztiak bete arren errekonozimendua eta erreparazioa eskatu ez duten edo epez kanpo eskatu duten pertsona guztiek lege horri hel diezaioten.

#### **Azken xedapena**

Lege hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.





# 7

● dokumentua

---

Terrorismoaren Biktimen  
Partaidetzarako Euskal Kontseiluan  
garatutako eztabaida-gaien  
ondorioen proposamena



---

**Terrorismoaren biktimen  
errekonozimenduaren eta  
erreparazioaren arloan egin beharreko  
urratsak, biktima horien ekarpena  
hobetzea eta eraginkorrago egitea ere  
helburu dutenak, hala hezkuntzaren  
arloan nola iraganari buruzko  
hausnarketa kritikoko prozesuetan eta,  
oro har, desberdinen arteko elkarrizketan**

---

2020ko maiatzaren 22a

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetzeta  
eta Lanikidetzaren Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos





Dokumentu hau 2017tik 2020ra bitartean Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluan izandako eztabaidaren emaitza da, terrorismoaren biktimen errekonozimenduaren eta erreparazioaren arloan eman beharreko urratsei buruz eta biktima horien ekarpena hobetzeko eta eraginkorragoa egiteari buruz, bai hezkuntzaren arloan, bai iraganari buruzko hausnarketa kritikoko prozesuetan, bai eta, oro har, desberdinen arteko elkarriketan ere.

Ohartarazi behar da ezen, biktimei eta terrorismoari buruz hitz egiten dugunean,

- ETari buruz ari garela lehenik. ETak eta antzeko beste erakunde batzuek baliatutako indarkeria giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen aurkako indarkeria sendoa izan da. Sufrimendu larri eta bidegabea eragin die pertsoneri eta familiei, bai eta gizarte osoari ere. Hurbileko memorian sartzen den aldian, ETA izan da bizitzeko eskubidea gehien urratu duena. ETaren indarkeriak gizarte-sostengua izan zuen, eta helburu politikoak lortzeko bitarteko gisa erabili zen. ETak modu sistematikoan erabili zituen izua, mehatxua eta hilketa, proiektu politiko totalitario bat inposatzeko, non ez baitziren onartzen euskal gizartearen aniztasun ideologikoa edo kide izatearen sentimenduak. Indarkeriazko estrategia horren erabilerak sostengu handia jaso zuen, eta oraindik ere euskal gizartearen zati batek onartzen du, ez baitu orain arte gaitzetsi eta ez die biktimei barkamenik eskatu (ez eta gizarte osoari ere, hamarkadetan beldurpean izan duen arren); aitzitik, zoritxarrez, ekitaldi publikoak egiten dira oraindik terroristak aintzatesteko, baita omentzeko ere. Horregatik, eta eragindako kalte guztiarengatik, gaitzespen argi eta garbiko jarrera partekatua merezi du. Horrez gain, biktimen aurrean esplizituki adierazi behar da ez dela inoiz izan kausarik bakoitzaren bizitzak, duintasunak edo osotasunak baino balio handiagorik izan duenik. Ondorioa hau da: ez zen inoiz gertatu behar, ez da inoiz errepikatu behar. Horrenbestez, inoiz gehiago ez gertatzeko mezu hori pedagogikoa izan dadin eta belaunaldiz belaunaldi helaraz dadin, ETA baztertzearan berariaz baztertu behar dira erakundeak baliatu zuen indarkeriaren justifikazioa, legitimazioa edo gorespena.
- Baina GALi, BVeri, GAeri eta antzeko taldeei buruz ere ari gara. Hurbileko memoria-aldian giza eskubideen beste urraketa batzuk gertatu dira erakunde horien ekintzen ondorioz. Indarkeria horrek biktimak eta sufrimendu larri eta bidegabeak eragin ditu, eta horiek ez dira beti aintzatetsi, ez eta, batzuetan, ikertu ere. Erakunde horiek eragindako indarkeria eta estatuko estamentuen konplizitate-, zigorgabetasun-, onspen- edo pasibotasun-egoeretan gertatutako giza eskubideen urraketak arbuiaitzen ditugu, aringarririk gabe. Ondorioa, beraz, honako hau da: ez zen inoiz gertatu behar, ez da inoiz errepikatu behar. Horregatik, eta "inoiz ez" dioen mezu horrek balio pedagogikoa eta belaunaldien artekoa izan dezan, indarkeria hori arbuiaitzeak berekin dakar indarkeria minimizatzearen, ezkutatzearen edo ukatzearen aurkako jarrera, baita biktimak diskriminatzearen aurkakoa ere.

Nolanahi ere, erakunde terrorista bat baino gehiago egon badaudela aitortzearekin batera, zeharo baztertu behar da biktimizazioak nahastea, baita indarkeria bat kontrapisuko argudio gisa erabiltzeko edo beste zeinu bateko indarkeria bat legitimatzeko asmoa ere. Ez zen inoiz gertatu behar, ez da inoiz errepikatu behar. Horregatik, eta "inoiz ez" dioen mezu horrek balio pedagogikoa eta belaunaldien artekoa izan dezan, indarkeria mota oro arbuiaitzen badugu, arbuiaitzen dugu, halaber, giza eskubideen urraketa batzuk edo biktima batzuk beste batzuk justifikatzeko, konpentsatzeko, diluitzeko edo minimizatzeke erabiltzea.

---

# Resumen y Conclusiones

## I. Terrorismoaren biktimen errekonozimendua eta erreparazioa

Biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari dagokionez, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak funtsezko hiru premisa ditu abiapuntu:

- Gabezia handiak izan dira.
- Hala eta guztiz ere, asko egin da.
- Baina egitekoa ez da amaitu.

Izan ere, ez da lortu ordezkari politiko eta instituzional guztiek modu argian eta kritikoa baloratzea iraganean erakunde terroristen eta, bereziki, ETAren indarkeriak eragindakoa.

Egiteko nagusi horrekin batera, –eta hargatik eragotzi gabe azterlanak egitea terrorismoaren biktima guztiei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzko legeek aurreikusitako prozesuak osatzen eta hobetzen jarraitzeko, baita errealitate horren eta biktimen eta haien familiek jasandako sufrimenduaren ezagutzan eta errekonozimenduan sakontzeko ere–, egokitzat jo liteke:

- Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioei proposatzea terrorismoaren biktimei buruzko euskal legea aldatzeko aukerak eta komenigarritasuna azter eta balora dezatela, errealitate berrira eta nazioarteko terrorismoaren forma berrietara hobeto egokitu dadin.
- Toki-mailako akordio bat susta dadin proposatzea, udalerrri bakoitzean biktimak oroitzeko erreibindikazioari erantzuna emateko moduari buruz, biktima horiek nozitutako atentatuak gertatu ziren lekuak seinalezatzeko aukera barne, baldin eta biktima horiek ados badaude eta udalean adostasun nahikoa badago.
- Maila partikularrago batean, hau erreklamatzeko:
  - Atentatua jasan zuten garaietatik (bereziki, 70eko eta 80ko hamarkadetan) edo haien kasua guztiz argitu ez delako eta –igarotako denbora kontuan hartuta– haien ebazpen judiziala gertagaitza delako, errekonozimendu- edo erreparazio-defizita izan duten biktimen laguntza sendotzea.
  - Egia jakiteko eskubidea eta atentatu terroristaren inguruabarrei buruzko informazio guztia jasotzeko eskubidea benetan aitortu dadin bultzatzea. Horrek esan nahi du ahalegin handiagoa egin behar dela:
    - Datuak eta informazioak dituzten pertsonak aukera gehiago izan ditzaten horiek emateko.
    - Eta dagoen informazio guztia ezagutzera eman dadin eta guztion eskura egon dadin.
    - Eta, zehazki, arlo judizialean:
      - Auzitegi Nazionalen informazio judizialerako eta sumarioa identifikatzeko eskubidea sustatzeko eta bermatzeko ahalegina egiteko, biktimen edo haien familiek aukera izan dezaten senitartekoaren auzi judizialean egindako guztiaren kopia lortzeko.
      - Era berean, Auzitegi Nazionalak atentatu terroristak guztiz argitu ezin izan diren kausak aztertu eta ezagutzeko aukera eman dezala aldarrikatzeko.
- Biktimen errekonozimendu pertsonalizaturako neurriak bultzatzea:
  - Testigantzak grabatzen eta horiek Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eta Terrorismoaren Biktimen Memorialaren artxiboetan gordetzen jarraituz.
  - Erakundeen arteko keinu pertsonalizatu baten garapena bultzatuz, biktimetako bakoitzari eta haien familiei jasandako bidegabekeriaren eta egia historikoaren adierazpen ofizialaren dokumentua modu solidarioan emanaz.

## II. Biktimen hezkuntza-ekarpena

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak positiboki baloratzen du biktimek hezkuntzan emandako testigantzen esperientzia, eta beste eremu batzuetara zabaldu beharko litzatekeela uste du.

Horrela, Adi-adian Biktima Hezitzaileen Programari dagokionez, egokituz jotzen da:

- Biktimek, betiere askatasunez eta beren borondatez, jasandako bidegabekeriaren aurrean beren bizitzaren, borrokaren eta erresilientziaren lekukotza pertsonala eman ahal izateko aukerak gehitzeko proposatzea
  - aurrez aurreko lekukotza emanez ikastetxeetan eta unibertsitateetan, edo hezkuntza ez-formalaren eremuetan, zeharka edo ikastaro espezifiko bidez,
  - Gogora Institutuaren artxiboan gordetako testigantzak grabatuz, baldin eta dibulgazio- eta hezkuntza-erabilerrako baimena badute,
  - testigantzen grabazioekin beste biktima-profil batzuetara ere iritsiz: zauritutako eta mehatxatutako biktimak, jazarpen-indarkeriaren biktimak eta terrorismoaren aurkako borrokan buru izan diren giza-taldeen ordezkariak.
- Horren garapena unibertsitatera, lanbide-heziketara eta hezkuntza ez-formaleko beste eremu batzuetara zabaltzen jarraitzea.
- Esperientziaren potentzialtasuna aztertzea, terrorismoarekin eta indarkeriarekin lotuta sortzen ari diren beste fenomeno batzuei hezkuntzaren eta prebentzioaren ikuspegitik aurre egiteko.

Hezkuntza-maila formalagoan, honako hauek egitea komeni dela azpimarratzen da:

- Historia objektiboki ezagutzearen eta biktimen testigantzen arteko lan osagarria erraztea eta sustatzea, bai eta horiek ikasle guztiei zuzendutako lerroetan islatzea ere, modu transbertsalean eta irakasgai jakin batean agortu gabe.
- Gurasoek, irakasle-taldeek eta Berritzeguneez ikaskuntza- eta introspektio-prozesu horretan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea.
- Gazteen bisitak sustatzea datu historikoak biltzen dituzten zentroetan, non azterlanak egiten baitira eta terrorismoari eta terrorismoaren biktimei buruzko dokumentazio guztia artxibatzen baita.

Indarkeria politikoa deslegitimatze eta indarkeria hori sustatzen duten erradikalismoak prebenitzeko, gainera,

- Biktimen seme-alaben eta biloben lekukotasunak ere funtsezkotzat jotzen dira; izan ere, gurasoak galdu zituzten beren bizitzako une garrantzitsuetan, erreferente horiek behar zituztenean, eta barne-erbestera-tze horretatik beren bizitzari zentzua emateko premiara igarotzea zaila izan zen, gertatutakoa ezagutzearen bitartez.
- Eta, era berean, baloratu beharko litzateke indarkeria erabili zuten pertsonen testigantzak izateko aukera, ondoren beren iraganari buruz eta helburu politikoekin indarkeria erabiltzeari buruz hausnarketa autokritiko sakona egin dutenena.

Era berean, Kontseilua bat dator erlijio-izaerako integritate erradikalari arreta handiagoa emateko premiarekin eta behararekin; izan ere, garatutako esperientzia oso baliagarria izan daiteke eremu horretara bereziki bideratutako prebentzio-hezkuntzako proiektu bat egiteko, honako hauen bidez osatuta:

- Gazteen erradikalizazio-prozesuak identifikatzeko azterlanak eta ekintzak bultzatzea.
- Enpatia, ulermena eta lankidetzaren sustatzeko mezuak zabaltzea, eta bidegabekeriak eta horiek elkarriketaren eta bestearen onarpenaren bidez konpontzeko modua identifikatzea.
- Lan sakona egitea (adibidez, irakurketa ideologiko partekatuen bidez) indarkeriara jotzearen ahulezia eta faltsutasuna ezinbestean desmuntatzera bideratutako argudioei buruz, eta horren ordezkari arrazoian,

---

errespetuan eta aniztasun politiko, kultural, linguistiko, erlijioso eta sexualaren onarpenean oinarritutako argudioak erabiltzea.

- Gizarte baten barruan ghetto fisikoak (auzoa, ikastetxeak, etab.) eta ghetto sinbolikoak, intelektualak edo ideologikoak sortzea saihestea, ghetto horiek ezartzen dituzten oztopoak hausteko lan eginez gutxienez.

### III. Biktimak eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoko prozesuak

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren iritziz, garrantzitsua da justizia erreparatiboak biktimen eskubideei eman diezaiekeen erantzuna, biktimen eta gizartearen erreparazio-ondorio biziak izan ditzaketen neurri-sorta baten bidez, biktimagileengan eragin nabarmena izateaz gainera.

Esparru hori sustatzea komeni da, eta horretarako urrats espezifikoko hauek proposatzen dira:

- Erreparazio Erreparatiboaren Oinarriko Printzipioan oinarritzen diren esperientziak babestea; izan ere, printzipio horrek hau eskatzen die biktimagileei: egindako delitutik eta jarduera terroristatik modu kritikoa urruntzeko, biktimei eragindako kalte bidegabea aitortzeko, inoiz ez justifikatzeko, indarkeriaren erabileran oinarritutako helburuak baztertzeko eta biktimek egia jakiteko duten eskubidea bermatzen laguntzeko borondate esplizitua erakusteko.
- Ibilbide hori egin duten eta biktimekin elkartzea bilatzen duten presoek hori egitea erraztuko duten guneak sortzea, betiere elkartze horietan parte hartzeko edo ez hartzeko biktimen autonomia eta askatasuna ahalik eta gehien errespetatuz eta alde aurretik bermatuz biktimari kalte material edo moral gehiago ez eragitea.
- Memoriako jardueretan erreparazio-ildoak sustatzea, erreparazioaren, bizikidetzaren eta delituaren prebentzioaren pedagogian balio erantsiko emaitzak lortzearen, irismen luzeko hezkuntzaefektuekin.

Hori guztia biktima bakoitzaren beharrei arreta berezia eskainiz, guztiek ez baitute erantzun bera eskatzen.

Nolanahi ere, biktimen lekukotzak erabakigarria izaten jarraitzen du memoria eraikitzeari eta gertatutakoaren egia berreraikitzeari dagokionez, eta erabakigarritzat jotzen da, halaber, erakunde publikoek:

- Biktimak gizartera lehen pertsonan hurbilduko dituzten programak bultzatzen jarraitzea, bai terrorismoaren biktimen testigantzak bai benetako gizarteratze-prozesua egin duten biktimagileenak bilduz eta sailkatuz, iraganari buruzko hausnarketa kritikoa prozesuan izan dituzten ahalmenak kontuan hartuta.
- Iragana argitzeko txostenak egiten jarraitzea, egia jakiteko eskubidea bermatzen laguntzeko, biktimen testigantzen bilketa zabalduz, iraganaren memoria kritikoa eraikitze aldera, eta hezkuntza eta gizarte-eremu desberdinetan haien testigantzak entzuteko prozesuen zabalkuntza sustatuz.
- Testigantza horiek tresna gisa erabiltzea DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako Historia irakasgaiei dagozkien unitate didaktikoetan, eta behar bezala kontserbatzea.
- Testigantza horiek bai gizarte osoan bai belaunaldi berrietan zabaltzeko lan egitea, pedagogia soziala egiteko, funtsezko balioa baitira bizikidetzarako eta berriro ez geratzeko.

### IV. Biktimak eta desberdinen arteko elkarrizketa-prozesuak

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak aitortzen du biktima guztien eskari komuna dela:

- Gertatutakoa erabat argitzeko eta justiziarako eskubidea
- Jasandako sufrimendu bidegabea aitortzea eta erreparazioa jasotzea.
- Benetako kontakizunean oinarritutako memoria, jasan duten indarkeria argi eta garbi deslegitimatzen duena.

Hori onartuta, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua bat dator, halaber, euskal gizartearen bakearen kultura sustatzeko beharrek, balio-gorputz sendo batean eta gatazkak konpontzeko

tresna gisa elkarrizketa sustatzean oinarrituta. Baina, horretarako, ezinbestekoa da indarkeria terroristaren erabilera erabat deslegitimatzea: ETAren amaierak ezin du ekarri gertatutakoari buruzko kritika espliziturik gabe iragana ahaztea.

Kontseiluaren iritziz, gutxieneko etiko sahetsezin bat abiapuntutzat hartuta –biktimak eragin zituen indarkeria-ekintza oro bidegabekeria izan zela aitortzea–, elkarrizketa bat bultzatu beharko litzateke hainbat norabidetan:

- Terrorismoaren biktimen artean, zeinen egoerak eta pentsamoldeak askotarikoak baitira.
- ETAren terrorismoaren biktimen eta beste terrorismo mota batzuen, GALen, BVEren, GAEren eta antzeko erakundeen biktimen artean.
- Biktimen eta gizartearen artean: bai biktimetatik eta haien elkarteetatik gizarte-adierazpenetara, bai gizartetik eta gizarte-, politika- eta erakunde-eragileetatik biktimengana; bereziki etorkizuneko belaunaldiak kontuan hartuta, bakearen balioa irakatsi behar baitaie.

## Azken hausnarketa, etorkizunari begira

Euskal gizarteak biktimek bizi izan duten errealitatea ezagutzen badu, herritarrek jakin ahal izango dute zer kalte jasan duten, eta hausnarketa kritikoa sustatu ahal izango da, biktimekiko jarreran bizi izan duten sektarismoa aitortu ahal izateko; izan ere, gaur egun ere irauten du jarrera horrek.

Bizikidetzara eraikitzeko, beharrezkoa da, hain zuzen ere, iraganari bizkarra ez ematea eta gertatutakoa argitzen saiatzea, biktimen errealitatea eta borroka-espirtua ezagutzea, indarkeria terrorista jasan duten guztien memoria eta oroimena zaintzea, haien testigantzak zabalduz terrorismoaren biktimei aitorten soziala eskaintzea, eta antzeko egoera batetik igaro diren eta testigantza horietan laguntza- eta inspirazio-iturri bat aurki dezaketen beste biktima batzuei laguntzea. Zeregin horretan, azpimarratu behar da Biktimen Elkarteek, Fundazioek eta Gobernu-erakundeek egindako lan garrantzitsua, testigantzak dokumentatuz eta artxibatuz, eta hezkuntza- eta gizarte-eremuan material gisa erabiliz.

Etorkizunari begira, ezinbestekoa da jarduera eta proiektu horiek indartzea, lan hori burutzen eta gizarte osora zabaltzen laguntzeko, kontzientziarioari eta sentsibilizazioari eusteko eta herritarrekin enpatizatze-ko, bereziki gazteenekin.

Nolanahi ere, hainbesterainokoak izan dira deshumanizazioa, bizitako gertaerei buruzko beldurrari eutsi dion belo isila, balioen alderantzikatzea eta enpatiarik eza, ezen oinarritik beretik berreraikitzen hasi behar baita, pertsona guztiok gizaki gisa dugun duintasuna aitortzetik abiatuta.

Eta horretarako ezinbestekoa da lehenbailehen desagerraraztea terrorismo mota ororen justifikazioa eta terroristen omenaldi publikoak eta haien sinboloen gorespina. Hain zuzen ere, kasu horiek “bigarren mailako biktimizazio”, “birtraumatizazio” edo “birbiktimizazio” kasuak dira, eta anormaltasun demokratikoaren sintoma argiak indarkeria terroristaren bidegabekeria aitortzen duen gizarte batean, non oraindik ere entzun eta kontuan hartu beharreko biktima asko sortzen baitira, zeinentzat funtsezkoa izaten jarraitzen baitu une batean edo bestean terrorismoa babestu dutenek ekarpena egitea iraganari buruzko beren azterketan eta haren etorkizuneko proiektioan eta deslegitimazio argian, anbiguotasunik eta gaizki-ulerturik gabe.



A large, stylized grey number '8' is the central focus. To its right, the word 'dokumentua' is written vertically in a smaller, grey, sans-serif font. Below the 'a' in 'dokumentua' is a small grey circle. To the right of the '8' and the text is a large, solid green circle. The background features abstract, overlapping white and light grey shapes that resemble torn paper or geometric folds.

# 8 dokumentua

---

Iñigo Urkullu Lehendakariak XI.  
Legegintzaldiko Memoriaren Egunean  
eta Terrorismoaren Biktimen Europako  
Egunean emandako hitzaldiak, eta Batera  
Konpromisoaren testua





---

Iñigo Urkullu Lehendakariak XI.  
Legegintzaldiko Memoriaren  
Egunean eta Terrorismoaren  
Biktimen Europako Egunean  
emandako hitzaldiak, eta Batera  
Konpromisoaren testua

---

**2020ko apirila**

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General  
para la Paz y la Convivencia



## Terrorismoaren biktimen europako eguna *Día europeo de víctimas del terrorismo*

---

**2018-03-10 Bilbao 10-03-2018**

Lehendakariaren hitzaldia – *Discurso del Lehendakari*

Biktimak, Biktimen Elkartetako goi ordezkariak, herri agentariok, jaun andreok, egun on. Ongi etorriak eta eskerrik asko gurekin izateagatik.

Gaur Terrorismoaren Biktimen Egun Europarraren bezperan, elkartaratze hau konbokatu du Eusko Jaur-laritzak, hirugarren urtez. Aurten Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarekin batera antolatu dugu.

Aurreko urteetan abiapuntua definitzen jardun gara. Ozen esan dugu gaizki egin genuela, terrorismoa jasan zuten biktimei behar beste kasurik ez genielako egin; batez ere, 70garren eta 80garren hamarkadetan. Autokritika hori egunean jartzen dugu, biktimek pairatutako sufrikarioa arindu nahian. Hori da gure abiapuntua.

Hoy víspera del Día Europeo de las Víctimas del Terrorismo el Gobierno convoca esta concentración con el Consejo Vasco de Participación de Víctimas del Terrorismo. En años anteriores hemos expresado nuestra autocrítica por la desatención que sufrieron las víctimas del terrorismo, especialmente en las décadas de los 70 y 80.

Hoy aquí actualizamos esta autocrítica con el propósito de aliviar el sufrimiento padecido; con intención de demostrar cercanía, solidaridad y verdad a las víctimas.

Transmitimos dos mensajes.

El primero mira al pasado y se resume en dos palabras: FUE INJUSTO.

No sabemos si alguna vez ETA y el resto de organizaciones terroristas llegarán a hacer una lectura autocrítica sobre lo que hicieron. No sabemos si serán capaces de expresar algo que repare el daño que causaron a las víctimas y a la sociedad.

No sabemos si lo harán, sabemos que deberían hacerlo. No sabemos si lo harán; pero la sociedad y las instituciones vascas y sus representantes, Sí podemos hacerlo.

Hoy tenemos un mensaje que transmitir a las víctimas del terrorismo: FUE INJUSTO.

Aurreneko mezu hau iraganari lotutakoa da.

Ez dakigu noizbait ETAk eta beste organizazio terroristek irakurketa autokritikoa egingo ote duten biktimei eta gizarte honi egin ziotenaren inguruan. Ez dakigu gauza izango diren emandako mina arintzeko moduko zerbait adierazteko. Ez dakigu egingo duten; baina euskal erakundeek eta horren ordezkariak egin egingo dugu.

Terrorismoaren biktima guztientzako mezu bat zabaldu nahi dugu: INJUSTUA IZAN ZEN.

Proclamo solemnemente, como Lehendakari, en nombre del Gobierno y la sociedad vasca, que el sufrimiento padecido por las víctimas del terrorismo FUE INJUSTO. Son dos palabras plenas de significado.

Hablamos de ETA y decir FUE INJUSTO significa afirmar que por su prolongación en el tiempo y su intencionalidad de imposición política; por perpetuarse después de la Transición, la Amnistía y el Estatuto de Gernika; por el acompañamiento socio-político con que contó y, sobre todo, por la gravedad e intensidad

---

de los daños humanos irreparables producidos; la violencia de ETA requiere una valoración expresa de su injusticia, una valoración expresa del daño injusto causado a las víctimas y sus familias.

Hablamos de ETA y decir FUE INJUSTO significa también rechazar su enaltecimiento, legitimación o justificación. Hablamos del GAL, Batallón Vasco Español y organizaciones terroristas similares y decir FUE INJUSTO significa recordar que su violencia provocó víctimas mortales y gravísimos sufrimientos que no siempre fueron reconocidos y, en algunos casos, ni siquiera investigados.

Decir FUE INJUSTO ante estas víctimas significa afirmar que la impunidad no puede ser la última palabra y que el Estado tiene una responsabilidad ante ellas. Significa que la expresión de solidaridad ante su sufrimiento y su reconocimiento no pueden deslindarse.

Hablamos de las víctimas del 11-M, los atentados de Barcelona o las víctimas del terrorismo en el mundo y decir FUE INJUSTO significa manifestar explícitamente que ninguna causa tuvo nunca un valor mayor que la vida, dignidad o integridad de cada persona víctima. Significa recordar a cada una de las víctimas del terrorismo y afirmar sus derechos a la verdad, la justicia y la reparación.

Bigarren mezua orainari eta etorkizunari begira dago. Aurtengoan, zirkulu bat ere badugu kontzentrazio honetan. Ekimen honen zentzuaren bigarren ardatza da. Atzera begiratzean, injustua izan zela esan behar dugu. Aurrera begiratzean, zirkulu bat osatzen dugu, biktimen eta gizartearen arteko elkartasunaren zirkulua. Gizartea eta biktimak elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikitzen.

Esta concentración se agrupa en un círculo. Cuando miramos atrás, afirmamos que fue injusto. Cuando miramos adelante, configuramos un círculo de unión entre víctimas y sociedad. La sociedad y las víctimas juntas construyendo el presente y el futuro de nuestra convivencia. Este es el proyecto de esperanza y el mensaje que queremos compartir víctimas y sociedad.

El reto es asumir juntos la tarea de construir la convivencia presente y futura. Nuestro compromiso es promover el encuentro, interacción, confluencia y unión entre víctimas y sociedad. Lograrlo es demostrar que, a pesar de todo, la voluntad de convivir democrática y pacíficamente es más fuerte que la violencia y el terror.

Afirmamos que FUE INJUSTO y que ahora caminaremos juntos. No hay dos partes, las víctimas por un lado y la sociedad por otro. Estamos juntos y conformamos un círculo de solidaridad y unión.

Zirkulua gara, elkartasunak elkartzen gaitu. Orain, elkarrekin egin nahi dugu aurrera.

## Terrorismoaren biktimen europako eguna *Día europeo de víctimas del terrorismo*

---

**2019-03-10 Donostia / San Sebastián 10-03-2019**

Lehendakariaren hitzaldia – *Discurso del Lehendakari*

Jaun andreok, egun on. Gaur, martxoak 11, Terrorismoaren Biktimen Europako eguna da. Biktimak oroitzeko eta gogoan izateko ekitaldi hau Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Kontseiluarekin batera deitu dugu. Eskerrik asko beraz, hurbildu zareten guztioi.

Iaz, gogoeta bat partekatu genuen, eta ezinbestekoa da berriz ere hura gogoratzea, memoriaren pedagogia kritiko bat egiten jarrai dezagun.

ETAren indarkeriaren injustizia baloratu beharra dago, batez ere biktimei eta haien senideei egindako kalte bidegabeari dagokionez. Zergatik?

- Denboran zehar luzatu zelako;
- Inposaketa politikorako asmoa izan zuelako;
- Trantsizioaren, Amnistiaren eta Gernikako Estatutuaren ondoren iraun egin zuelako;
- Izan zuen babes soziopolitikoagatik; eta, batez ere,
- Sortutako giza kalte konponezinen larritasunagatik.

Este Día Europeo de las Víctimas del Terrorismo debemos seguir haciendo una pedagogía crítica de la memoria.

Tenemos un mensaje que transmitir a todas las víctimas del terrorismo: “Fue injusto.” Cuando hablamos de ETA decir que “fue injusto” requiere una valoración expresa de su injusticia, del daño injusto causado a las víctimas y sus familias.

Después del desarme y disolución de ETA, una tarea pendiente es manifestar al unísono que matar, extorsionar, secuestrar, torturar, agredir... fue injusto.

Cuando hablamos del Batallón Vasco Español, el GAL y organizaciones terroristas similares “fue injusto” significa recordar que su violencia provocó víctimas y sufrimiento que no siempre fue reconocido y, en algunos casos, ni siquiera investigado. Decir “fue injusto” es recordar a cada una de las víctimas y afirmar sus derechos a la verdad, la justicia y la reparación. La conclusión es: nunca debió ocurrir, “nunca más” debe repetirse.

Vivimos en el siglo XXI, mientras no se aborde esta tarea, estaremos atados al pasado siglo. Es un principio tan básico como fundamental. Se trata de asentar una memoria crítica del pasado en todo aquello que supuso vulneración de derechos humanos.

El contenido de este mensaje se proyecta al presente y al futuro. Este mensaje mira de frente a los ojos de cada víctima para decirle algo que necesita escuchar. Necesita saber que no hubo nada que tuviera más valor que la vida de su familiar asesinado. Es justo que escuche decir, con claridad, que el sufrimiento que padeció fue injusto.

Mezu honek, orainaldiari begiraten dionean, biktima bakoitzaren begietara begiraten du zuzenean. Entzun beharra daukan eta entzutea bidezkoa duen zerbait esaten dio. Jakin beharra dauka ez zegoela ezer bere senide erailaren bizitzak baino balio handiago zuenik. Ezer ere ez.

---

Bidezkoa da argi entzun dezan bidegabea izan zela bere sufrimendua. Oso oinarrikoa den zerbait da, baina sakontasun eta erabateko garrantzia duena. Mezu honek etorkizunari ere begiratzen dio. Bizikidetzaren etorkizunari, hain zuzen ere.

Bizikide izateko, ez dugu zertan bat etorri behar gauza guztietan. Bi puntu sinpletan besterik ez dugu bat etorri behar. Bi oinarri demokratiko eta etiko hauetan: giza eskubideak eta aniztasuna. Biak ala biak: giza eskubideak eta aniztasuna.

Este mensaje mira al futuro. Al futuro de la convivencia y la cultura de paz. Al futuro de los derechos humanos y del nunca más.

Este es el punto de partida de la espiral que hoy nos acompaña. La espiral de la convivencia. La convivencia no significa estar de acuerdo en todo. Sí significa asumir dos principios democráticos y éticos: derechos humanos y pluralismo. Principios. Sencillos. Plenos: derechos humanos y pluralismo.

Frente a la espiral cerrada de la violencia, la espiral abierta de la convivencia.

El punto de partida es reconocer que fue injusto. El punto de partida para que sociedad y víctimas, JUNTAS, podamos construir el presente y el futuro de nuestra convivencia.

Esta es la espiral que hoy representamos. La esperanza que hoy convocamos. El compromiso que hoy manifestamos.

Hau da gaur osatzen dugun espirala. Hau da gaur partekatzen dugun itxaropena. Gizartea eta biktimak elkarrekin, gure bizikidetzaren oraina eta geroa eraikitzen. Hau da gaur hartzen dugun konpromisoa.

## Terrorismoaren biktimen europako eguna *Día europeo de víctimas del terrorismo*

---

**2020-03-11 Vitoria-Gasteiz 11-03-2020**

Lehendakariaren hitzaldia – *Discurso del Lehendakari*

Herri agintari eta ordezkariok, biktimen senide eta lagunok, jaun andreok, egun on.

Gaur martxoaren 11, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna da. Eusko Jaurlaritzak, bosgarren urtez, ekitaldi hau deitu du Biktimak oroitzeko. Eskerrik asko parte hartzeagatik eta agertzen duzuen konpromisoagatik.

Hoy es el Día Europeo de las Víctimas del Terrorismo. Un Día en el que compartir reflexiones necesarias para seguir haciendo una pedagogía crítica de la memoria:

Cuando hablamos de ETA decimos que “fue injusto”. Injusto por su prolongación en el tiempo, por su intencionalidad de imposición política, por perpetuarse tras la Transición, la Amnistía y el Estatuto de Gernika. Fue injusto por el acompañamiento socio-político con que contó. Injusto, sobre todo, por la gravedad del balance de daños humanos irreparables producido. La violencia de ETA requiere una valoración expresa de su injusticia, del daño injusto causado a las víctimas y sus familias.

En el periodo de lo que se conoce como memoria reciente, ETA y otras organizaciones afines han sido las principales causantes de las violaciones del derecho a la vida en nuestro País. El reconocimiento de la injusticia del terrorismo implica también el rechazo a su enaltecimiento, legitimación o justificación.

Cuando hablamos del Batallón Vasco Español, el GAL y otras organizaciones terroristas similares, decimos que “fue injusto”. Injusto porque provocó víctimas mortales y gravísimos sufrimientos que no siempre fueron reconocidos o, en algunos casos, siquiera investigados.

Decir que fue injusto significa que la impunidad no puede ser la última palabra. Significa que la expresión de solidaridad ante su sufrimiento y el reconocimiento de la injusticia que padecieron son las dos caras inseparables de la misma moneda.

Hoy recordamos a cada una de las víctimas del terrorismo. Hoy recordamos el derecho a la verdad, la justicia y la reparación.

Gaur, Terrorismoaren Biktimen Egunean, “Bidegabea izan zen” mezua zabaltzen dugu. Bidegabea izan zen, bai. Zergatik da hain garrantzitsua terrorismoa bidegabea izan zela esatea eta gogoratzea? Lehenik eta behin, biktimei erreparazioa eskaintzeko. Horrekin batera, memoria kritikoa eraikitzeko, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza sustatzeko, eta bizikidetzaz sustraitzeko.

La reparación a las víctimas, la construcción de una memoria crítica, la promoción de una educación en derechos humanos y la pedagogía para la convivencia demandan reconocer la injusticia del terrorismo.

No reconocer que lo ocurrido “fue injusto” es grave. Es grave por lo que significa desde un punto de vista ético, humano y, también, político. Un silencio acrítico ante la violencia pasada es el resquicio por el que se deja pasar, disimuladamente, un mensaje sutil de comprensión, justificación o legitimación de la misma.

Esta inhibición política, este hacer como que no pasó nada, esta resistencia a decir simplemente que “matar estuvo mal”, no puede admitirse como algo normalizado.

No reconocer la injusticia de los asesinatos y vulneraciones de derechos humanos producidos en el pasado por el terrorismo con cualquiera de sus siglas, y particularmente por ETA, resulta inasumible en nuestra sociedad.

---

Las familias de las víctimas asesinadas y las víctimas heridas deben saber que no hay nada que justifique lo que sufrieron. Deben saber que nada tiene más valor que su dignidad humana. La sociedad y las instituciones vascas conocen y reconocen el inmenso e injusto sufrimiento que padecieron.

Gaur, biktima guztienganako elkartasun eta hurbiltasun adierazpen gisa, berretsi egiten dugu elkartasun eta aitortza adierazpen hau.

Aurten, 2020garren urtean, triangelu baten egituraren inguruan elkartu gara. Triangeluaren alde bakoitzak oroitzapen honetan lotu nahi ditugun hiru edukietako bat irudikatzen du: biktimak, gizartea eta etorkizuna.

Elkarrekin, biktimak eta gizartea, bizikidetzaren eraikitzearen zeregina partekatzea da erronka. Biktimen eta gizartearen arteko elkargunea sustatzeko konpromisoa dugu, etorkizunari eta bizikidetzari begira. Gizarteak eta biktimek elkarrekin eraiki behar dugu bizikidetzaren oraina eta etorkizuna.

Reiteramos nuestra solidaridad, reconocimiento y cercanía a todas las víctimas.

Nos unimos con un mismo propósito: La sociedad y las víctimas construyendo juntas el presente y el futuro.

Este año nos reunimos en torno a un triángulo. Esta figura apela a la construcción de la convivencia, mediante la integración de distintas perspectivas. Cada lado representa uno de los tres contenidos que queremos enlazar en esta conmemoración: víctimas, sociedad y futuro.

El reto es compartir juntos, víctimas y sociedad, la tarea de construcción de la convivencia y del futuro. La sociedad y las víctimas juntas construyendo el presente y el futuro de nuestra convivencia.

Este es el proyecto de esperanza.



---

## **Batera Konpromisoa**

---

Biktimen inguruko politika publikoetan beste aurrerapauso bat egiteko oinarriak

---

2013ko azaroaren 26an onartutako Bake eta Bizikidetzaren Planaren lehentasunetako bat biktimen politika kudeatzea eta bultzatzea da. IV. Ekimenean, bi ardatz ezartzea aurreikusten da: batetik, biktimei laguntzeko ildo nagusiekin jarraitzea eta, bestetik, politika hauek berritzea, uneko testuinguruaren bilakaerara egokitu-ta. Jarraitzearen eta berritzearen artean kokatu behar da, bada, Batera Konpromisoa

Biktimen inguruko politika publikoetan hainbat fase pasa ditugu dagoeneko. 70eko eta 80ko hamarkadetan, ez zitzairen konturik batere egiten; 90eko hamarkadan, gero eta sentsibilitate handiagoa pizten zuen gai honek, eta 2000. urteko aurreneko hamarkadan orain arte ez bezalako euskarria ematen hasi zaio, araudiz nahiz erakundeen aldetik, biktimen eskubideei babes aktiboa eman nahian.

2015a ere iritsi zaigu honela. 2011. urtean ETAk indarkeria eten zuenetik, abagune ezin hobea daukagu orain arteko bide malkar honetan, egindakoa ondo aztertzeke eta hemendik aurrera biktimen inguruko politiketik nondik nora joan behar duten argitzeko. Izan ere, aurrera egiteko moduko baldintzak dauzkagu.

Pasa den ekainaren 5ean, terrorismoaren biktimei erakundeen errekonozimendua erakusteko ekitaldi hartan esan nuen: oraindik ere aurrerago jo nahi du Eusko Jaurlaritzak bide honetan. Eta, hain zuzen, kontzeptuz eta ekintzez testuinguru berria zehaztuz, agiri honetan bertan. Eta agiri hauze izango dugu konpromiso berria.

Batera Konpromisoa ez da oraintxe hutsetik sortu. Azkeneko urteetan biktimen inguruko politiketan egindako lanaren fruitua da. Oraindik ere lanean ari baikara, gero eta sendoago; azkeneko legegintzaldietan, gobernu eta talde sozialek, politikariek eta han-hemengo parlamentariek gero eta gehiago parte hartu eta lagundu dutelako.

## Hiru printzipio

---

**Benetakoa izatea:** autokritika egin beharra egokitu zaigu, eta egingu dugu

Biktimen kontuetan iraganean zer egin dugun kritikoki aztertuta, ez da zaila oker batzuk hautematen: berandu ibili gara biktimei behar zuten elkartasuna eta erantzuna ematen; gehiago erreparatu diogu bate-raezintasun politikoari, biktimen inguruko batasunari baino; biktimak bereizi izan ditugu, pairatu izan duten indarkeriaren arabera, eta biktimen auzia bakoitzaren alderdikerietarako tresnatzat hartu dugu.

Eusko Jaurlaritzak autokritika egin du, eta horietako bi oker egin dituela ametitu du. Hasteko, 90eko hamarkadaren lehenengo urteak arte, erakundeak beti berandu iritsi garelako biktimen kausara. Eta jarraitzeko, hurrengo urteetan, bateraezintasun politikoak zirela-eta, ez garelako gai izan elkar hartuta denok biktimekin solidario izateko eta denok batera indarkeria errefusatzeko.

Egin du, ba, egin beharreko autokritika Eusko Jaurlaritzak, eta eskatu die barkamena indarkeriaren eta terrorismo oren biktima izan direnei, egindakoengatik eta egin gabe utzitakoengatik, batez ere, 70eko eta 80ko hamarkadan ez genielako konturik egin, batere. Lehenago erreakzionatu behar genuen, eta hobeto erantzun, denok batera. Autokritika hauze da Batera Konpromisoaren abiapuntua.

## **Egia esatea:** minimo etikoa argi eta garbi definitzea

ETAren amaierak ezin du ekarri besterik gabe orria pasatzea gertatutakoari buruzko kritika espliziturik gabe. Memoria-politikek ezinbestean dakarte edozer indarkeria- edo terrorismo-mota bidegabeak direla errekonozitzea; hortaz, baita ETAren indarkeria eta terrorismoa ere.

Indarkeriaren justifikazio ororen eta giza eskubideen urraketa ororen kontra altxatuko gara. Hitz ematen dugu gure aldetik biktimen oroimena eta ohorea ez direla bazterturik geratuko, iragana ahazturik etorkizunera begiratzeagatik. Horixe da gure minimo etikoa, etorkizuna eraikitzeke ezinbestekoa, horretan oinarritzen da Batera Konpromisoa.

## **Berdintasuna gauzatzea:** biktimen eskubideak betetzea

Biktimen inguruko politika publikoak egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eskubideetara begira taxutuko dira aurrerantzean ere, eta, aurrerantzean, biktimei emango zaien arreta harik eta pertsonalizatuena izaten saiatuko gara bereziki.

Horretan, gogoan izango dugu biktimen eskubideek berdinak izan behar dutela beti, hau da, berdin kontu egin behar zaiela denei, jasandako indarkeria edonolako izanda ere. Printzipio honek bi adierazpen izango ditu: batetik, biktimen artean egindako bereizkeria okertzat ematea, eta zuzentzea; eta, bestetik, biktima batzuk daudelako beste batzuk egotea justifikatu nahia erabat gaitzestea.

## **Paradigma zabalagoa:** biktimak etorkizunari ere lotzea

---

Biktimen inguruko politikak atzera begira landu izan ditugu orain artean. Nola ez ba, ezinbestekoa da eta izango da atzera begiratzea. Hala ere, atzera besterik ez begiratzea oso murrizta da bai biktimentzat eta bai biktimizazioa gainditzeko lanerako. Paradigma hori zabaldu nahi du, hortaz, Eusko Jaurlaritzak.

Izan ere, biktimei erreparatuz, etorkizuna ere begi aurrean dakusagu. Begira diezaiogun ba etorkizunari; hala, biktimei buruz pentsatzen dugunean, iraganean jasan izan zuten kaltearen gaitza ez ezik, gaur egungo eta etorkizuneko elkarbizitza eraikitzen denekin batera daukaten papera ikusiko dugu.

## **Gure bitxi preziatuena:** biktimak eta gizartea bat eginda

---

Terrorismoaren edo indarkeriaren biktimek pairatzen duten bizipen traumatikoak ez du parerik gizartean. Horrek lubakia eragin du biktimaren eta gizartearen artean. Biktomologiaren ikerketek erakutsi dute, bai hemen eta bai munduko beste edozein txokotan, biktimen eta gizartearen arteko harremana hurbil-urrun ardatzean kokatzen dela.

Denboraren joanean biktimak eta gizartea hurbildu edo urrundu egiten dituzten faktoreak agertzen dira. Politika publikoek badute gaitasuna distantzia hori txikitu edo ezabatzeke. Eusko Jaurlaritzaren ardura den kontuetan, biktimekin lotutako ekintza guztietan, bitxi preziatu bat irabazi nahian jokatzeko dugu beti: biktimen eta gizartearen artean batasun eta konfuzientzia lortu nahian, etorkizunera eta elkarbizitza hobera begira.

---

## Konpromisoak mamia behar du

---

Eusko Jaurlaritzak gaur egun bultzatzen dituen programa guztiak Batera Konpromisoaren ildotik doaz, nola orain hala aurrerantzean:

- Adi-adian programa: etorkizunera begira taxutzen da, eta biktimak eta gizartea elkarrengana batu nahi ditu, hezkuntzaren bitartez elkarbizitza hobea eraiki nahian.
- Gertu programa: etorkizunerako batasun hori bera nahi du lortu, biktimek ere parte hartuz memoriaren eraikuntza sozialean.
- Bizitzeko eskubidearen urraketen udal-argazkiek ere herritarrek eta biktima hurkoak elkarrengatzen ditu, udalen bitartez.
- Eraikiz programak biktimek eta herritarrek iragana eta etorkizuna banatzeko egiten du lan.
- Gogora Institutua: biktimentzat eta gizartearentzat memoria partekatuzeko espazioa da; iraganetik elkarbizitza eraiki nahian.

Batera Konpromisoak etapa berriak ekarriko ditu biktimen inguruko politiketara, iraganera ez ezik, etorkizunera ere begiratu dezaten, eta biktimen eta herritarren batasuna bultzatuko du, denak elkarrekin hobeto bizi gaituzen.

Joan den ekainaren 5ean, biktimen eta gizartearen arteko topaketan, urrats bat eman genuen, gaur Batera Konpromisoaren bitartez jarraitutasuna eta urrats berriak dakartzana. Konpromiso honek lau hitz lotuko ditu: biktimak, gizartea, etorkizuna eta elkarbizitza. Denen ahalegina beharko du horretarako. Erakundeena, alderdi politikoena, komunikabideena, gizarte eragileena, biktimena eta herritarrena.